² "El fin de la autarquía significó una radical liberalización económica, pero de ninguna manera un relajamiento en el compromiso antidemocrático del régimen. El nuevo ministro del Interior era el General Camilo Alonso Vega, simpatizante del Opus y en total acuerdo con la actitud represiva hacia la oposición política". Preston, P. Cooper, N., y otros: *España en Crisis. La Evolución y Decadencia del Régimen de Franco*. Fondo de Cultura Económica. Madrid, 1978, págs. 110 y 111.

³ Corcuera Atienza. J.: *De Guernica a Sarajevo, pasando por Burgos*, prólogo de Auto de Terminación", El País/Aguilar, Madrid, 1994, p,22.

⁴ Gurrutxaga, A.: *El Código Nacionalista Vasco Durante el Franquismo*, Editorial Anthropos. 1985, pag. 248.

⁵ "ETA había pasado por divisiones internas entre su Quinta y Sexta asambleas, discusiones ideológicas sobre la prioridad de la cuestión nacional o el problema de la clase obrera y, por consiguiente, sobre la utilidad táctica de la lucha armada". Zulaika, J. :*Violencia Vasca*, Editorial Nerea, Madrid, 1990, p. 87.

⁶ Como muestra del radicalismo ideológico en *Carta a los Intelectuales* (1965): "...podemos afirmar que la dictadura del General Franco está siendo para nuestro pueblo infinitamente más positiva que una República democrática burguesa, que hubiera ahogado nuestras aspiraciones sin crearnos tensiones como las que ahora disponemos para lanzar al pueblo a la lucha".

⁷ *Hacia una Estrategia Revolucionaria Vasca* (1968): "La única clase social capaz de dirigir una verdadera revolución contra el capitalismo es el proletariado".

⁸ Tanto en el *Libro Blanco de ETA* como en el *Vasconia* se rechaza la posibilidad de aceptar un estatuto de autonomía para Euskadi, en general aparece con frecuencia en las publicaciones ideológicas de la organización.

⁹ "En el espacio íntimo de la familia, en seno de la cuadrilla, en la trastienda de las asociaciones culturales, de montaña, folklóricas; en el recorrido cotidiano del "pateo"; a través de todos estos canales de socialización se producen y mantienen las formas críticas y nacionalistas de la conciencia y se forja una adhesión afectiva colectiva a la violencia, como expresión posible del silencio impuesto". Pérez Agote. A.: *El Nacionalismo Vasco a la Salida del Franquismo*, CIS-Siglo XXI. · Madrid. 1987.


¹⁰ Mario Onaindia, *El Aventurero Cuervo. Memorias* (1977-1981) Espasa Calpe, Madrid 2004, ps. 237 y 239.

¹¹ *El Aventurero Cuervo*, op. cit.

¹² Mario Onaindia, *Guía para orientarse en el Laberinto Vasco*, Ediciones Temas de Hoy, Madrid, 2000, p. 14.

¹³ Recogido por Pedro López Arriba, *La idea de la libertad en la historia de España*, Ediciones Vitruvio, Madrid, 2022. El autor reconoce que la obra de Onaindia fue la que le impulsó a tratar los precedentes ideológicos en los se inspiraban los ilustrados liberales.

¹⁴ *La construcción de la Nación Española*, op. Cit, p.30.



20 URTE MARIO BARIK

MANU GOJENOLA

Sarrera ttipia

Mario Onaindiak utzi gintuenetik hogeit hamar urte beteko dira 2023ko agorrilaren azken egunean. Bera ezagutu genuenok haren hutsune handia dugu: pertsonalki bere jakituria, umorea, baikortasuna faltan dugu, kultura zabalaz jantzia zena eta politikoki, egoera zail hauetan, mundua atzera bi mundu gerlen artean bizi izan zen garaira itzuli denean dirudiela, bere analisia-gaitasuna ments zaigu. Zer gertatzen ari den, nola irten gaitzezkeen egoera honetatik... ikuspegi zorrotz eta buruargia, senduna eta adimentsua eskaintzen bazekien eta hura nahi genuke. Eta umorez beterik ematen zigun.

Bere ekintza politikoa hitz gutitan laburbilduz, ETA talde armatu eta joera politiko muturrekoa lagata kartzelatik irtenik, bere jokera Autonomia Estatutua bultzatzea eta egoera berriaren ardatz nagusi bezala hartzea izan zen bere bete behar nagusia eta baita bere alderdiarena ere, Euskadiko Ezkerrarena (EE). Estatutuaren alde zeuden ezkerreko alderdiak batzea izan zen bere bigarren zeregin nagusia. Eta honekin batera, gertuen zuten talde armatua, ETA pm, Gobernu espainolarekin Mariok egin zuen negoziaketa baten bitartez, taldearen zati nagusia deuseztatzea lortu zuen eta haren militanteak birgizarteratzea.

Mariok aldaketa edo egokitze ideologiko eta praktikoa asko egin zituen bere bizitza politikoan zehar. Labur esanik, talde armatu marxista-leninista eta autodeterminazioaren aldekoa izatetik, sozialdemokrazia, autonomiazalea eta konstituziozalea izatera. Urrats hauetan, inguruan zituenek, alderdikideek, lagunek, senideek ez zuten beti ulertzen berak proposatzen zuena. Esaera bat zeukan hau grafikoki islatzen zuena: "Bakarrik uzten nauzue Tourmaleta igotzen". Izan ziren desadostasunak eta EEk izan zituen zatiketak 1978, 1982 eta 1992an. Mariok esaten zuen Euskal Herrian batzuek nahastu egiten dutela "ezkerra" eta "EAJ-PNVren ezkerra". Uste dutela "EAJ-PNVren ezkerra izatea, ezkerrekoa izatea dela", eta ez zela horrela.

Dena dela, historialariek zorte handia izan dute berarekin, zeren egoera bakoitzaz zer uste zuen izkiriatu eta azaldu egiten zuen. Honako lantxo hau horretan laguntzaile gertatzea da, eta helburuetako bat bere testuetan izkiriatu zuena hemen jasotzea da.

Bestalde, Mariok gidatu zituen alderdietara (EE, EIA) erlijiozko eta politika sekularizazioa eta demokratizatzeko soziala ekarri zien, zirriborraz urteak geroago EAJ-PNVk eta HBk ere hartuko zuten bidea. EEren baitan diziplina eta mailak sekula ere ez ziren izan oinarri zorrotza, nahiz eta alderdi marxista-leninista izan EIA. Militanteek argi eta garbi kritikatzeko zituzten alderdiko agintariak, euren proposamenei ezetz biribila emanek, eta garrantzi handiko erabakia hartu behar bazen, Asanblada deitzen zen. EEko parlamentarioa zen Jabier Olaberriren hitzetan, barne demokraziaren sekulako saioa zen. Mariok berari askatasun osoa ematen ziola zioen Olaberri, hortik eduki zuen aktibitate hain handia.

Mario politiko profesionala baino gehiago, politikan zebilen intelektuala zen. Diruaz ez zeukan interesik. Mario ez zen oso organizatua, baina heldutasuna zuen, eta buruargitasunaz gain, gaitasun intelektuala eta prestigioa zuen; kulturalki oso jantzia zen, asko irakurria baitzen eta ondo bereganatua zeukan hori guztia; intuizio handiko gizona zen, eta politikoki besteen jokakerak aurreikusten zituen. Elkarriketa batean, Eozik, bere emazteak zioenez: monomatiakoa zen, gai bat hartzen bazuen, aurrera egiten zuen ze ondorio izango zituen aintzat hartu gabe.

Gauza asko bere kontura egiten zituen, inori kontsultatu barik. Gero, ekimenak, iniziatibak, antolamenduak... prentsan aurkezten zituen alderdiaren akordioak edo ebatziak balira bezala. Eztabaidak sortzea gustatzen zitzaion. Hastapenean, hainbat alderdikide kontra bazituen ere, Biltzar Tipian (BT-Comité Central) irabazi egiten zien aurka zirenei. Moderazioa eta pragmatismoa ezarri zituen alderdian, bera agintari nagusia zenean. Jarrera posibilista bultzatzen zuen, hiritarrentzat hoberena bilatuz. Espainiar idazlea zen Rafael Sánchez Ferlosiok 1984 inguruan erran bezala "gaur egun, Onaindia politikaria da profesio horretan dimentsio etikoa sar dezakeen bakarra".

EEK beti izan zituen aldeko gehiago boto-emaileak baino eta hauteskundeetan ezin izan zuten emaitza onik lortu. Agian, bere diskurtso etikoa, zibikoa eta arrazionalak ez zeukan tokirik euskal politikaren eremu amorratuan. EE izan zen autonomiari ideia gehien eskaini ziona, baina botere gutien baliatu zuen alderdia. Bere barne batasunari ere ezin izan zion eutsi. Nazionalistak eta ez-nazionalistak alderdi batean bizi irautea ezinezkoa izan zen. EEko partaideen arteko zatiketa euskal gizartean 1998an gertatu zenaren aurrekari bat izan zen, Lizarra-Garaziko Ituna eta abertzale-frontea sortzearekin batera. EEren proiektu heterodoxoa hondora joan zen. Ez zuten lortu Euskadiko Ezkerrakoek Euskal Herriaren norabidea aldatzea, baina euren buruak aldatu zituzten. Gorrotozko erlijio kutsuzko politika laga egin zuten, demokraziaren balioa ikasi egin zuten eta hiritar bihurtu ziren. Beste batzuek hogeita hamar urte eta ehunka hildako behar izan dituzte aldaketek pentsatzen hasteko.

Euskaltzaletasun porrokatua ukan zuen Mariok, ume-umetatik. Hizkuntzari sinistu ezineko orduak eskaini zizkion. Euskaraz historian zehar Euskal Herrian kaleratutako ia liburu guztiak irakurri zituen. Sintaxia eta hiztegia, bereziki, aztertu zituen sakonki, bederatzi sorkuntzazko lan euskaraz izkiriatu eta beste hamalau liburu itzuli zituen euskarara, berrehun eta berrogeita

hamar artikulua inguru izkiriatu bazituen bere bizitzan, euroatik % 15 euskaraz eta beste zenbait lan ere euskaraz egin zituen. Gaztelaniaz, zortzi liburu izkiriatu zituen. Honekin batera, gauzak kontatzea maite zuen. Zinemaz, literaturaz, euskal hizkuntzaz zekien oro erakusten zuen. Adibidez, filmetan jazoakoa edo literatura munduan ze idazle ari diren bide berriak bilatzen azalduaz; euskara nola aldatzen ari den komunikabideetan, edota ze hitz ez den baliatzen haboro eta, haren ordeaz, beste zein. Edo “ertzain” hitza gerraostetik berriro baliatzen hasi zirenean, Mariok zioen “h” barik izkiriatzen bazen “herri-zaina” barik, “erbi-zainak” izanen zirela. Eta abar eta abar. Gauza anitz erakusten zuen irribarre tartean, jolasean balebil bezala. Sakontasunezko gauzak, baina edozeinek ulertzeko moduan azaldurik.

Gizon librea izan zen Mario. Umetatik esango nuke. Gauza asko egin zituen; leku askotara joan zen; lagun asko ezagutu eta aunitz izkiriatu zuen; erabaki asko hartu behar izan zituen. Eta libre sentituz.

Bizitza

Mario Onaindia Natxiondo 1948ko urtarrilaren 13an jaio zen Bilboko Abando klinikan, Errekalde Zumardia karrikan. Gurasoak Lekeition bizi ziren, baina Mario zazpikia zetorrenez eta bikotearen lehen haurra zelarik, Bilbon sortu zedin pentsatu zuten.

Aita, Jakinda Onaindia Ulazia zuen, Gizaburuagako Lariz-Oleta okindegian 1917-04-26an jaioa. Bizpahiru urte-edo eman zituen Plentziako eskola batean. Gero, etxeko okindegiko ogia banatzen zuen zaldi-gurdi batekin Ipazter, Lekeition eta Mendexan. Atleta hutsa zen, era guztietako ariketak egiten zituen eta esku pilotan ere ederki jokatzen zuen. Gero kamioi bat erosi zuen eta garraio-lanetan ibili zen. Gerra garaian Jakindak batailoi nazionalista batean gura izan zuen izena eman, baina berme bi eskatu zizkieten eta orduan handik irten eta aitzinean zen UGTko batailoi batera jo zuen eta bertan izena eman eta eurekin gerra egin. Bizkaiko frontea erori eta harrapatua izan zen, Gaztelako preso-kanpo batzuetara eraman zuten.

Marioren aitita, aitaren aita, Jazinto Onaindia Arruabarrena zen, lorretako Arandian sortua –Mariok *Haraindiako Honaindiak* esaten zuen–; gurasoak Ibarruri eta Ajuriakoak zituen, eta jeltzale handia zen. Lekeition bizi zen BBBko burua zen Karlos Solanorekin harreman estua zuen. Horregatik, gerra zibila amaitu eta okindegia, errota-harriak eta etxea konfiskatu zizkieten. Marioren amuma, aitaren aldetik, Maria Ulazia Urbistondo zen, Lekeition jaioa eta gurasoak Itziar-Debakoak zituen. Madrilen lanean izan zen neskame gisa handiki batzuen etxean ezkondu aurretik eta pentsaera monarkiko antzekoa zuen.

Marioren ama, Angeles Natxiondo Zaldibizkar Lekeition jaio zen 1919an. Bere gurasoek kafea zuten eta han egiten zuen lan. Emakume oso buruargia zen eta nortasun handikoa. Gurasoak hauek zituen: Manu Natxiondo Ipazterkoa, Ameriketan lanean izana, Nevadan eta gero Idahon, “Manu Amerikanua” bezala ezaguna zena, eta ama, Maximina Zaldibizkar, Ereñokoa zena. Angeles eta Jakinda ezkondu eta Marioren ostean, Maria Angeles 1947an eta Esther 1951n jaio ziren Lekeitioko Goikokalean. Mario, Lekeitioko eskolan ibili zen, bere

lehen maistra izeko Angelita Onaindia zuelarik (nire ama). Mariok bost urte zituela Eibarrera joan ziren bizitzera. Han, Jakindak Lambretta enpresan egiten zuen lan mekanikari gisa. Eta Angeles, etxeko lanez gain, josten aritzen zen.

Mario eskolan zebilen Eibarren. Bere lagun hurkoak Cisco Arrieta eta Pedro Mari Arriola zituen. Eta geroago Lekeitiora joan zen hamabi urterekin Mertzedarioetan abadeki gisa hasteko. Amuma Maximinaren etxean bizi izan zen eta bere lagun hurkoak Andoni eta "Kapitaina" ziren. Urte bi eginik, gero Galiziako Sarriara joan zen beste hiru urtez. Hamazazpi urterekin utzi zion apaizgai izateari, neskatala bati gutuna igorria zen, eta hau ez zuten gustukoa fraideek eta, Bartzelonara joan aurretik bere fraidegai bizitza segitzeko, Eibarrera itzuli zen, denbora ematen baitzieten etorkizunaz pentsatzeko. Uztea deliberatu zuen eta "Academia Comercial" izenekoan hasi zen ikasten administrazioko gauzak, eta baita hizkuntzak ere: ingelesa eta frantsesa. Buruargia ikusi zutenez akademian, eskolak beste ikaskideei ematen zien, trukean berak jasotako klaseak dohainik zirelarik. Banco de Vizcaya zenera sartzeko azterketak gainditu zituen, berrogeita hamar lagun ingururen artean lehen postua lortu zuelarik. Bankuan lanean zebilela, beste zeregin batzuetan ere hasi zen. Bazeraman, Galizian jasota bereziki, politikaren, literaturaren eta teatroaren hazia.

ETako partaidea izan zen, 1967an sartuta. Bilboko ibaiaren ezkerraldeko arduraduna izan zen ETAn eta gero Arabakoa. Bilboko Zazpi Kaletako Arte kale karrikan atxilotu zituzten Mario eta kide bi 1969ko apirilean, beste batek ihes egin zuelarik, eta San Mames kaleko polizien egoitzan tortura ikaragarrien ostean (esate baterako, hiru hilabetez gernuan odola egiten zuen, hartu zituen kolpeak gatik; eta gerriko-uhalean 25 zentimetro galdu zituen), Basauriko kartzelara bidali zuten. 1970ko abenduan, Burgosko Auzian heriotza-zigorra eskatu zioten, beste bost kideri bezala, auzipetu zituzten hamasei ETAkidetan. Mario azkena izan zenez deklaritzen, amaieran "Gora Euskadi Askatuta!" oihukatu zuen. "Gora Espainiako langileria!" ere entzun omen zen eta *Eusko Gudariak* kantari hasi ziren. Auzia bukatuta, furgonetetan eraman zituzten hamaseiak atzera kartzelara, *Soldadito Boliviano* kantari zihoazela.

Nazioarteko protestei esker, zigorra kendu zieten sei mutilei eta haren ordeztu laurogeita bat urtekoa ezarri zioten Mariori. Kartzelan zortzi urte eta erdi eman zituen, Caceresen bereziki (Jose Luis Zalbide eta Teo Uriarterekin batera), eta, azkenik, Kordoban.

1977ko maiatzean atzerriratu zuten Mario Bruselara, heriotza zigorra Burgosen jasotako beste bost presoetatik, laurekin, eta gainontzeko beste batzuk (pm taldearen buruak eta Bera-zadi enpresaria hil zuten komandokoak) Oslo, Kopenhage eta Vienara. Hego Euskal Herrira agertu ziren uztailan, Askatasunaren Aldeko Martxa sostengatuz, berrehun mila lagun bildu zituen martxa horretan. 1977ko irailean EIA (Euskal Iraultzaren Alderdia) alderdi politikoko idazkari orokorra izendatu zuten Zegamako kongresuan. "Ordainduko didazue" esan zien alderdikideei ukabila jasota, bere asmoa Lur argitaletxeaz arduratzea baitzen, idaztearekin batera.

Autonomia Estatutuaren hogei ponentetariko bat izan zen Mario. 1983an Euskadiko Ezkerra (EE) alderdiaren arduradun nagusia aukeratu zuten. Gipuzkoako Batzar Nagusietako partaide izan zen 1979an. Eusko Legebiltzarrekoa 1980an, 1981ra arte; gero, bigarren legegintzaldian, 1984-1986, eta hirugarrenean, 1987tik 1990ra arte. ETA pm talde armatua desegiteko lana egin zuen, haren militanteak birgizarteratuaz. Europarlamentaria ez zen atera zortzi mila boto ingurugatik. 1985ean laga egin zion EEko Idazkari Nagusi izateari. Politika lagata, urte batzuk, literaturara lehenik, eta gero zinemara dedikatu zituen. Ezkerreko hainbat alderdi politikoren konbergentzia bultzatu zuen (EE - EIA - EKIA - ESEI - PCE - PSE, gehi LKlko sektore batzuk eta Nafarroako ANV). Senatuko partaidea hautatua izan zen Gipuzkoatik 1993an, 1996ra arte eta gero, berriz, 1996tik 2000. urtera arte. Sozialistekiko konbergentziaren has-tapenetako garaipenaren sinboloa Mario zen, Gipuzkoan boto gehien atera zuen senataria izanik. Eta Europako Kontseiluko Parlamentari Asanbladako kidea izan zen 1996tik 2000ra bitartean. PSE-EEko presidenteordea aukeratua izan zen 1993an eta, bere azken urteetan, Arabako sozialisten presidente. Honegatik guztiarengatik, ostera ere heriotza zigorra ezarri zioten, oraingoan "mili"ek, eta bizkartzainekin ibili beharra izan zuen 2000tik eta zendu zen arte.

Mario, Soraluzen sortu baina hamabost urte zituenetik Gasteizen bizi den Esozi Leturiondo Aranzamendirekin ezkondu zen 1978an. Bi haur izan zituzten, Nora eta Jon. Mario 2003-08-31an zendu zen minbiziagatik Gasteizko Txagorritxu ospitalean, bizkartzainak –Javi eta Bienve– atean zituela. Aurretik, Joseba eta Paco izan zituen bizkartzain.

Politika eta kultura hastapenak

Burgosko Auzian kontzientzia politikoa bost urte zituela hasi zitzaiola erran zuen. Aita gerran ibilia bazen ere, preso eta gero Langileen Batailoian egona zen, asko sufrituaz, baina ez zuen politikaz berba egiten etxean, edo oso noizean behin. Ama, ordea, kontzientzia nazionala transmititu ziona izan zen. Erlijioarekin batera. Abadeki seminarioan hastea, berak Mariok geroago ETAn sartzearekin alderatzen zuen. Aitak euskararekiko maitasuna irakatsi zion, hizlari zinez trebea izatez gainera, bere arreba Angelita lez, bost neba-arrebetan nabarmenduaz. Euskararekiko zaletasunari hil arte eutsi zion Mariok.

Hamazazpi urte inguru zituela Galiziako apaiztegia utzi zuen. Handik gutira EAJ-PNVn eman zuen izena. Hiru urte inguru pasatu zituen eurekin eta zerbait erlijiosoa sentitu zuen. Egiten zituen ikastaroetan, erran zuenez, ez zitzaizkion gustatu joera xenofoboa eta ezkerraren aurkakoa batetik, eta frankismoaren aurkako langile oposizioari euskal "kutsua" aitortze eza, bestetik. Ez zegoen prest frankismo bukatu arte Aberri Egunetara joatea aski izatea eta, bien bitartean, lasai itxarotea demokrazian tokatuko zitzaizkion karguak jasotzeko, izkiriatu zuenez. Inmoralia iruditu zitzaion. Ez zuen nahi bere kontzientzia inoren eskuetan uztea, berataz erabaki zezaten, apaiztegia laga zuenean lantxe. Frankismoaren kontra modu gogorrean nahi zuen borroka egin. Eta filosofia, teoria eta analisia-metodoa falta zituen jeltkideen alderdian, erran zuenez.

Marxismoan aurkitu zuen zentzua ematen zion errelatoa. Kooperatiben inguruan mugitu zen. Klase sozialarekin identifikatu zen. CCOOn sartu zen. Gallartako batzar batetan, langile-riaren emozio sakonena sortzeko ahalbidea ikusi zuen. 1967-1968an euskarazko kulturaren berreskuratzean, ezkerreko pentsalarien eragina ikusi zuen: Gabriel Aresti –Bilbon batzar politiko/kulturaletan ezagutu zuena–, Ez Dok Amairu bakarlariren musika taldea, Jorge Oteizaren entsegu lanak. Marxismoa, abertzaletasuna etorkinei irekitzeko modua lez ikusi zuen. Mario, euskararekiko mugarik bako maitasuna zuen gaztea zen. Mario V. Asanbladak erakarri zuen, klase eta aberriaren arteko oreka zela eta. Txabi Etxebarrietak izan zuen honetan eragin nabarmena, berarekin mintzatu ostean sartu baitzen Mario ETAn.

Mariok bazuen identitate nazionala, nazioaren esanahi desberdinekin, aldatuz joan zena. Klasea eta nazioa hartu zituen identitatearen biga narratiba lez. EAJ-PNV eta PCEren ikas-taroetan izana zen, baina ETA hautatu zuen. Eliza ordezkatu zuen ETAre bitartez, honetan zentzu aszetiko eta misiolari berberak mantendu zituelarik. Marioren hitzetan, militanteak Juan Bataiatzailea ziren, eta Mesias, orde, Iraultza. Lehen martirien odola eskaintzeko prest ziren. Borroka armatuak –mistizismo iraultzaileak–, indarkeriak, banandu zituen nazionalismo iraultzailea eta EAJ-PNV. Behin-behineko nazio-kontzeptua bazuen Mariok, herrian biolentziaren bidez esnatu behar zena. Mariok zioenez, “orok bultzatzen gintuen inmolaziorako, eta izpiritu aszetikoan Txabi gorenera heldu zen”.

Aitaren gerrako oroimenaz mendeku hartzeko, euskaraz mintzatzeagatik uhalekin jo egin baitzuten Langile Batailoian, eta Mariok, 1969an harrapatu zutenean, polizia euskaraz egiten zien. Aitarekin identifikatzeko, aita bezain gudaria izan zedin. Eta aita UGTko batailoian egin zuenez gerra, haiek ere hemengotzat hartzea zuen helburu Mariok. Nahiz eta aita onartu ez semea ETAn sartu izana, semea indarkeriaren bideari eutsita ikusirik, Mariok haren isiltasunetik gerran jatzotakoaz gaizki ulertuak ote ziren pentsatzera eraman zuten.

Mario, Burgosko Auzian deklaritzen azkena izan zenez, heroi eta martiri bilakatu zen, Euskal Herriaren askatasuna eskatuz, baina baita klaserik bako gizartea ere. Ia desagertzeaz zen erakundea, zatiketak gatik, birsortzea lortu zuen.

Espetxealdia

Burgosen ostean, zortzi urte eta erdi egin zituen Caceres eta Kordobako presondegietan. Bilboko Artekalen atxilotua izan zenean, tiroketa bat gainditu zuen, gero martiria bihurtu zen torturagatik eta heriotzara kondenatua izan zen. Aberriarengatik oro emana zen, beraz. Heroi eta martiri bilakatu zen. Mariok izkiriatu zuenez, *Eusko Gudariak* kantu hark Burgosen nazionalismoaren alde eta EAJ-PNVren bizkortzeaz, militante jeltzale askok baino gehiago egin zuen.

Burgosko Auziaren ondoren bere burua birsortu behar zuela ikusi zuen. Hila balitz bezala eta orain bizi berri bat sortu behar balu lez. Irakurtzeari heldu zion, hainbeste maite zuena. Caceresko zuzendaria harrituta zegoen, bost urtetan hiru mila liburu inguru irakurri zituztelako

Mariok, Zalbidek eta Teok. Identitate abertzalea eta teoria marxista biltzen jardun zuen. Uste zuen euskaldunok ez genuela itxaron beharrik izan Arana Goiri anaien ideiak agertzeari. Ikertu zituen euskarazko autoreek hizkuntza erkidego baten partaideak izatearen kontzientzia argia baitzuten.

Bere kezka abertzaleak joera armatutik lan intelektualera aldatu ziren. 1976an kartzelako lagunekin batera "Otsagabia" ponentziaren alde egin zuen Mariok, ETA pm-ren VII. Asanbladan aurkeztua, talde honen alde egin baitzuten 1974an. "Pertur"en ikuspegia arazo nazionalaz onartu zuen, Gramsci eta Poulantzasen proposamen politikoak babestuz. Nahiz eta Gallartako aurkezpena (1977-04-03) Mariorentzat hutsa izan zen. Hala ere, gero EIA ireki zuen hauengana: ideologikoki Frantziako PSTik banandutako CERES (Centre d'études, de recherches et d'éducation socialiste) eta PSUra hurbildutako ezker taldearen aldekoa zela zioen, baina baita Britainia Handiko Alderdi Laboristarena ere.

EIA / EE bikotearen marxismoan oinarritutako nazioarekiko jokaera gustatzen zitzaion, ETAren kultura-ideologoen eta hain maitea zuen Jorge Oteizaren pentsamendua gehituz. Mundu horretan sortutako klase borrokaren eremu autonomo eta askatasun nazional kontzeptuak asko gustatu zitzaizkion Mariori.

Karrikaratzea eta borroka intelektualaren hasiera

1977ko hauteskundeak hurreratu zirenean, Juan Mari Bandrés abokatuak proposatutako bide bat onartu zuten batetik, Adolfo Suárez Espainiako presidentek eta bestetik, Mariok eta kondena gehien zuten beste preso batzuek: kanporatuak izatea, ETA m, EHAS eta LAIAren kontrako iritziarekin, zeinek nahi zuten presoak kartzelatan geratzea. Brusela, Oslo, Kopenhage eta Vienara igorri zituen presoak gobernu espainolak. Mario Bruselara bidali zuten.

Handik Danimarkara eta Ipar Euskal Herrira mugitu zen Mario, preso ohi eta erbesteratutak, talde politiko desberdinak eta politika munduko ororekin mintzatuz. Jarrera desberdinak aurkitu zituen, eta bere kontrako zenbait, kartzelatik irten zelako. Bestalde, muga pasatu zuen, beste atzerriratuekin batera, Askatasunaren Aldeko Martxan parte hartzeko. Bere burua mundu abertzalearen alde ilunean ikusi zuen, indarkeria oraindik sostengatzen zutelako zenbaitek, kanpoko espainolisten aurka, baina baita barruko bera bezalako areioen kontra ere.

1977ko irailean EIAko idazkari orokorra hautatu zuten. Lan intelektual handia egin zuen EIAren komunikabideetan, *Arnasa* eta *Bultzaka* izenekoetan, batez ere. Burgosko martirio heroia izateak ere presentzia handia ekarri zion jendearen aurrean. Marxismoa analisaren metodo gisa darabil, baita benetako teoria politiko modura ere. Gramsci, Poulantzas eta Althusser baliatu zituen ezker abertzalearen mundua arrazionalizatu gurarik. Identitatearen subjektua ez zen norbanakoa, klase eta nazioa baizik. Bere buruari identitate pertsonala emateaz gain, Mariok EEren aldekoen ere eman nahi izan zien.

Mariok beste askoren alderantziz, intelektual baten bizi ziklo aldrebeskoa eduki zuen, lehenengo aktibismo politikoa eginez, gero lan publiko eraginkorra, eta bizitzaren azkenean, Akademia meritu klasikoak jaso zituen, doktorego bikoitza izanik filologietan –ingeleza eta hispanikoa–, Filosofia Lizentziaturaren lehen zikloa bukatutik, eta Euskal Filologiako Lizentziatura amaitzeko sei ikasgai ments zituen.

Hausnarketa politikorako gaitasun ikaragarria zuen Mariok. Eta bere biografia nazio-kontzeptuarekin lotu zuen beti. Urte hauetan, Mario ezkerreko nazionalista bat zen. Bere inplikazio politikoen subjektibotasun eta ekintza nazionalaren artean, aberria kokatzen zuen. Tentsio horretan, kontuan hartu behar da marxismo-leninismoaren gogortasuna uzten ari zela, 1980ko hamarkadaren hasieran. Nazionalismo konplexuago baten oinarria ipini zuen. Euskal nazioa onartzen zuen, baina ez zedila izan inori bortxaz jarria, horretarako eskubiderik ez baitzegoen. Ideien eta kontzeptuen bitartez hedatu zitekeen, baina ez indarkeriaren bitartez. Independentziaz edo askatasun nazionalaz baino, nazio-eraikuntzaz sinesten zuen. Mariorentzat EE zen bere ideologia nazionalista kritikatzeko urrunen heldu zen alderdia. Izan ere, autokritikak ezker abertzalearen oinarriak deuseztatu zituen, haren hondakinen gainean abertzaletasun heterodoxoa eraiki zen, eta, handik aitzinera, EEn sektore handi batek fede abertzalea galdu zuen.

Euskadiko Ezkerran, euskal langile mugimenduak izan zituen arazoak ikusi zitezkeen eta nola historian zehar euskal nazionalisten eta espainiar sozialisten artean bananduak egon ziren. Horregatik, EEk hori guztia gainditzeko oinarri teorikoak sortu zituen. Eta kultura politikoa patroiz laizistetatik ikusi behar zen. Autogobernua eta euskal identitatearekiko errespetua bermatuz, nazionalismoak erlijioa bezain gauza pribatua izan behar zuela zioen. Honekin, euskal nazioa nahi izan zuen eraiki esparru politiko konstituzionalean. Mariok, eta beraz EE / EIA alderdiak, demokrazia pluralista bitarteko, metodo eta helburu lez kontsideratzen zuen.

Gernikako Estatutuak –EEk sortutako izena– euskal gizartea normalizatu egiten zuen eta gazte batzuek biolentzia baliatzea edo horren alde egotearen motiboak kendu egiten lituzke eta baita indarkeria sozial horren oinarriak deuseztatzea ekarriko lukeela laga zuen izkiriaturik Mariok. Zioenez, autodeterminazioa ezin zela azaldu “independentzia bai ala ez” terminoetan erranik, Estatututik hasita baizik. Gernikako Estatutua nazionala zen Mariorentzat eta HBko Estatutu-proiektua ezker abertzalearena zen. Mariorentzat, KASEk izan zezakeen inizatiba 1977ko ekainaren 15ean amaitu zen.

Zendu aitzinean, Euskadiko Ezkerra autonomiari garrantzia eta maila handiena eman zion alderdia izan zela zioen, eta Gerra Zibilarekin lotuaz, Frankoren faxismoaren kontra, bai nazionalistek eta bai sozialistek borrokan egin zutela.

Euskadiko Ezkerra Europara zabalik zegoen leihobat zen. Hango diskurtso hain aurreratuak ekartzen dituzte, hemen ia sinetsi ezinak direlarik. Lehen alderdia bilakatzen da emakumei kuotak ematen dizkiena hauteskunde zerrendetan, kontsumitzaileen eskubideak sartzen dituzte, diskurtso aho betez ekologista darabilte, hogeita hamabost orenak aldarrikatzen dituz-

te, eta diru-sarrerren bermatze errenta (RGI delakoa), zeina EEren ideia den. Euren denborei aitzinatuak izan ziren eta euren ekarpena ez zuten gehienek ulertu.

EEk partidu-kultura oso desberdina izan zuen, arraroa edota bitxia izan zitekeena. Euskadin izan diren alderdietan, barne demokraziaren maila handiena izan zuena da, Asanbladak ereko joera zuten: baina benetako asanblearismoa. Gauzen eztabaida egiten zen eta zuzendaritzako ponentzia batzuk galdu egiten zuten eta normaltzat jotzen zen. Ez zegoen traumarik, ez zatiketarik, ez dimisiorik gauzen debatea egiten zelako, hitz egiten zelako, edo gauzak egiteagatik. Izan ere, barne argitalpenetan gutunak eta artikulua zeuden idazkari orokorraren kontra. Hori ez da inon ikusi, liderrari kristorenak eta hamar esan eta ez zen deus ere jazotzen.

Mariok euskal arazoari dimentsio bi eman zizkion, J.P. Fusiri jarraika: euskaldunen eta Espainiaren arteko liskarra, bata; eta euskaldunen artekoa, bestea. Euskal pluralismoa behar zela zioen, barne borroka honetaz bukatzeko. Marioren gogoetak bai EE, bai Estatutua tresna egoki bihurtu zituen abertzaletasunak ukatutako barne gatazkaz amaitzeko.

Abertzaletasuna uzten duenean, karlismoa Herri Batasunarekin (HB) lotzen du, edota indarkeria terrorista gerla karlistekin. Edo azken urteetan, foruzaletasuna aldarrikatzen duenean, pentsatutako bi blokeak osatzeko, liberalak eta karlistak lehen, eta nazionalista eta ez-nazionalistak orain, bildu gura ditu. Guzti honek elikatu zuen bere diskurtsoa azken urteetako aldaketa zibilzalera heldu arte.

1980an ETA pm erakundeak UCD alderdi politikoko hainbat militante mehatxatu izanak, Marioren jarrera kritiko handia ekarri zuen. Ez zuen deuseztatzea publikoki eskatu oraindik inorren, baina ordurako Rosonekin hizketan ari zen horretarako.

1979/1981 aroan jarrera distantziakidea izan zuen, indarkeriaren legimititateaz eta politika demokratikoaz. Lema batzuek sortu zituen, hala nola "Que se vayan". Nafarroan PSOEk izan zuen jarrera euskal autonomiaz, *El País* egunkarian artikulua plazaratzeak ekarri zuen 1979an, erranez PSOEren jarrera HBkoena baino indarkeriaren aldekoagoa zela. Hil batzuk geroago, Euskal Legebiltzarrean sozialistak ostera ere salatu zituen indarkeriaz segitzeagatik, Nafarroaren arazoa herri honi egonkortasuna galarazi egiten ziolako.

Indarkeriarekin etena

1979-1981 urteen tarteko indarkeriak lagundu zien Mariori eta baita EEko bere lagunei ere mundu horretatik urruntzen. Sekula ez zuen ETA pm kondenatu, baina euren jarreraren kontra zegoen, ontsa baitzekien publikoki kontra azaltzeak alderdiaren barruko zatiketa ekar lezakeela. Horregatik, zirkulu txikietan baino ez zuen esaten. Baina José Ignacio Ustaran eta Juan de Dios Doval UCDko politikariak hil zituztenean, argi eta garbi esan zuen "ETAren porrota izan da". Mariok esaten zuen Ustaranen eraiketa EEren historiako egun garrantzitsuenak izan zela, sentimenduen iraultza bat eman zelako: EEko militanteek hildakoarekin egin baitzuten bat, eta ez borroeroekin.

1981 eta 1983 tartean Espainiako Barne Ministroa zen UCDko Juan José Rosónekin bildu zen Mario (1982tik aurrera sozialisten Barrionuevo ministroarekin) ETA pm erakundea deuseztatzeko bidea abiatuz. VIII. Asanbladaren ostean armak uzteko prest zegoen sektore bat eta negoziaketan ondoren, 1982ko irailean Miarritzen prentsaurreko batean erran zuten euren burua desegin zutela, aurpegiak erakutsiaz, egindako kalteak onartu gabe baina, eta biktimekiko ezer erakutsi gabe.

1981n indarkeria nazionalistarekin kritiko azaldu zen Mario eta, beraz, abertzaletasunaren barruan heterodoxo gisa agertu zen. Ere aldizkarian euskal arazoa terrorismoa zela erran zuen, eta honen oinarria ez zela politikoa, kulturala baizik. Kultura abertzale sektarioak ez zuen demokrazia ezarriko, zioen. Lehen aldiz, ETA m erakundearen aurka aritu zen, politika modu gerrazalean ulertzen zutelako eta heriotza laudatzen zutelako. Mariok erran zuen ETA ez dela askatze-armada bat, nahiz eta batzuk hala sinistu, eta daukan alde positibo bakarra da nazionalismo erradikal indarkeriazaleak nora garamatzan erakusten duela: inora ere ez.

Mariok honela ikusten zuen mundu hori: nazionalismo etnikoa, ezkertiar estetikarekin, politika ikuspegi erlijiosoarekin egiten zuena, aberriaren sakralizazioan oinarriturik. Erakundea eta bere militanteak gauza sakratu bihurtu ziren, kantuetan eta aldarrietan adieraziak. Euren jaiak, ekintzen ondorio bihurturik, heriotza eta biolentziaren komunitateak tokia bete zuen karriketan; aldarrikapenak eta ikurren erakusteak amatezko aberria sortu zuten. Honekin batera, banpirizazioa ekarri zuen: EAJ-PNV, ezkerreko langile edota EEren sinboloez eskuratzeko bortitza. Mariok sarri erran zuen HB milien sostengurako mahai zibilak zirela. Eta *Egin* egunkaria horma bat zela pintaketak egiteko.

Mariok baztertu zuen ikuspegi abertzalea, non herri osoa euren baitzen. Sinekdokea zerabilten HBk eta EAJ-PNVk, zatia osoaren ordezt hartuaz, partidua herriaren ordezt. Horregatik, Mariok esaten zuen EE herriaren % 10aren ordezkari zela, eta kito. Euskadirentzat etika laikoa, banakako eskubideetan oinarritua nahi zuen, eta ez kolektiboen goraiatzeari. 1982an, abertzaletasunak Espainiara zabalik behar zukeela zioen, zeren askatasuna eta demokrazia ezartzea Estatuko beste herrietan ez luke EE / EIA alderdian hasiak ziren PCE-EPK alderdia bereganatzeko asmoz. Mariok bere identitate abertzalearen analisisa kritikoa egin zuen. Edozein nazio-proiektuk bere beharrezko muga zibiko eta pluralistak ditu eta bere "ni" a edozein nazioan oinarritutako errelato zapaltzailearen gainetik izanik ere, bere Euskadiren ideia nahi izan zion aurkeztu publiko berri bati, hau da, baita espainolistei ere.

EE eta PCE-EPK biltzea oso erakargarria izan zen aberria gero eta diskurtso baztertutagoan oinarritzen zuen gizonarentzat. Alde sinekdokialak diskurtso politikoan ez zituen baliatu nahi, bere nazionalismoan hedatzen ari zen heterodoxiaren ezaugarri; izan ere, ez zen ari ezker abertzalearen egitura kulturala eztabaidatzen, euskal nazionalismoa bere osotasunean baino.

Horrela, euskal abertzaletasuna erlijio sekularizatu gisa aurkezten zuen Mariok, nazioaren ideia ez-ortodoxoa ezarri gurarik. Ezin da heterodoxia erabili nazioari dagokionez. Heterodoxia disidentzia edo heresia bihurtu behar da. Nazionalismoaren kulturaren funtsa kuestionatzen zuen. Mariok bazekien urrats honekin heterodoxoa izatetik traidorea izatera pasatuko zela, eta, abertzale ortodoxoen begietara, euskaltzaletasuna berreskuratzea gero eta zailagoa izanen zuela. 1979an, elkarrizketa batean, bere obsesioa kartzelako denboretatik Lekeitio eta Eibar batzea zela baieztatu zuen.

Mariok bultzatu zuen Euskadiko Ezkerraren aldaketan, zazpikien suntsitzea eta NI (Nueva Izquierda)ren zatiketak hauste ikonoklasten kontrako presioa murriztu zuen; gehi EPK-Euskadiko Alderdi Komunistarekin batzea eta hauen aportazioek ekarri zuten bilakaera ideologikoa modu kolektiboan eta, bereziki, apurka-apurkakoa izatea. Betiko komunitate abertzaletaren ezinikusi eta gorroto heretikoekikoak areagotu egin zuen EEren eraldaketa doktrinan. Marioren eraberritzearen helburu nagusia abertzaletasunaren aldaera modernoa eta hiritarra lortzea zen, gizarte osoaren kultura eta ideologia bihurtu zedin.

EE alderdi erabat autonomista bihurtzen ari zen, independentziari uko egiten ziona. Autonomiaren aldeko alderdi tinko eta fidelena zen EE. Abertzaletasuna berrikuntza sakon batera darama Mariok, jite ilustratu, hiritar eta arrazionalaz. Mariok esploradore indiarren papera berak egiten zuela erraten zuen. Ideia berriak sortu edo ematen zituen, Euskadiko Ezkerraren afiliatu eta aldekoek ez beti onartuak, baina alderdiaren kultura politika bereziari esker, barne demokrazia zabalaz, azkenean ulertzen zutena. Hau zen faktoreetako bat joera nazionalistari sakralizatze aldean kentzen ziotena. Ez zetorren kanpotik, barrutik baizik, eta moralki eta politikoki sinbolo handiena zenarengandik: Burgosko Prozesuko heroiarengandik.

Aldaketa abertzale laikoa osorik egin zen EIA, PCE-EPK eta ESEIren batuketarekin, Euskadiko Ezkerra-Izquierda para el Socialismo alderdia sortuaz. Baina partidu berriaren oinarria Euskadi naziotzat onartzean zetzan. Kultura abertzalea onartzea eta identitate espainola euskal nazioaren mendean izatea ziren Mariorentzat funtsa.

Heterodoxiaren erakusgarri intelektuala marxismoaren analisi soziala baliabide gisa uztean zegoen. Eragin handiagoa ukan zuen, hamarkada lehenagoan, leninismoa uztean baino. Marxismoa izan zen gaztetan hartu zuen filosofia, nazionalismoari modu arrazionalen aurre egiteko era.

1982/1983an Espainiako indar polizialen aurka zuena aldatzen hasi zen. 1980tik 1983ra ETA pm deuseztatzea eta EIA / PCE-EPK / ESEI biltzea izan ziren gauza nabarmenak. Nazioarekiko eta marxismoarekiko zuen ziurtasuna zalantzan jartzen hasi zen.

1982an, hogeita hamalau urterekin, nazioarekiko fedea galtzen du eta abertzale komunitatetik kanpo geratzen da. 1984an Mariok ez du kanon abertzalean sinisten, komunistak EEra erakarriaz, ETA pm taldeak borroka armatua utzita eta haren militanteak birgizarteratuz eta

bereziki, euskal nazionalismoaren kultura eta diskurtsoaren kritika desmitifikadorea ezarriaz. Hala ere, bere heterodoxiak ez zuen bere abertzaletasunari deus ere kendu.

Normalkuntza Euskadira helduko zela, esan zien EEkoei –hauen eskandalurako–, guardia zibila edo ETAkidea hiltzea berdin izango litzateke, Oteizak *Quosque Tandem* Etxebarrieta eta Pardines batu nahi zituela monumentu batean izkiriatu zuenaren bidetik.

Beti izan zuen Mariok bere burua disidentetzat, baina gertatzen dena da Mario ez dela alde egiten duen gizona, joaten dena. Oteiza ere disidentea zen nazionalista ofizialentzat. Baina hala ere, Mariok autogobernuaren aldeko lana egin zuen, herria modernizatzeko asmoz. Bere pentsakera arrazionaltasuna eta irrazionaltasunaren sintesia sortzailean zetzan.

Mariok zioen euskaldunon problema kutsu materialekoa zela, oinarri totalitario eta ez-gizalegezkoak zituen kultura politiko bategatik, non biak, bai EAJ-PNV (transferentziak eskatuz ari zena) eta bai HB (KAS alternatiba eskatzen zuena) sartzen zituen.

Euskadiko Ezkerra alderdiko burua izateari utzi zion 1985ean, nahiz eta Eusko Legebiltzarrean segitu zuen parlamentari gisa 1990era arte. Hiru legegintzaldi egin zituen, nahiz eta ez beti osorik bete legealdia: 1980-81; 1984-1986; 1987-1990.

1986an, hauteskunde autonomikoen ostean PSE / EA / EE gobernu hirukoitza egiteko gorabeherak izan zirenean, Mariok komentatu zidan berak gobernu bikoitza nahi zuela PSE / EErekin, zeinek hogeitazortzi parlamentari biltzen zituen; gero AP eta CDSek bina zituztenez, erraten zuen EAJ-PNVk hamazazpi eta EAK hamahiru gutiengoan izanen zirela bilduz gero, beste lau alderdien hogeita hamabiren aitzinean, baina elkarri hartu zioten ezinikusia zela eta inola ere ez zirela batuko. Eta HB, hamahiru zituelarik, Legebiltzarretik kanpo geratuko zen. Auskalo. Pausu hau emateko, beste behin ere, “Tourmaletara igotzeko” bakarrik sentituko zen.

Mario, beti bezala, urratzaileena eta ikonoklasteena izan zen, ETA sukarra zela erranik, baina gaixotasuna euskal populuan zegoela, elkarbizitzako erregimen demokratikoa ezin erai-kiz. Erran zuen abertzalismoak ez zuela beretzat interes politikorik, bai ostera bitxikeria zientifiko lez ikusten zuela, eta hau baino gehiago, literatur kutsukoa. Zioenez, nazionalista izatea autogobernua eta kultura nazionala defendatzea zen. Maketoen-aurkako joera desagertu gabe zegoela izkiriatu zuen, berak gorrotatzen zuena; orduan (1986an) berak zortzi deiturak euskaldunak zituen, euskaraz bost nobela eta hamar itzulpen egina zen, Burgosen heriotza zigorrera kondenatua, zortzi urte presondegian egona zen... baina abertzale askok traidoretzat jotzen zuten. Ezarria zen muga identitatea, hau da, abertzaleak baino ez zirela euskaldunak, Mariok arrazismo berri bezala jotzen zuen. Zer gehiago egin behar zuen euskaldun bezala kontsideratua izateko, erran zuen.

EEren barruan Mario zen EAJ-PNVrekiko garratzena, zeren izkiriatu zuenez erakunde tradizionalista erradikala zen, ordena sistematikoki zalantzan ipintzen zuena, demokrazia eta Estatutua errespetatzen ez zituena, konponbidea Koroarekiko ituna egitean zegoela zioten, eta arazo politikoak ETArekin negoziatu behar zirela defendatzen zuten. Arzalluzetaz Erromako

Aita Santuak baino gehiago agintzen zuela zioen Mariok, zeina Kristoren ordezkaria lurrean den, baina Arzalluz Jainkoaren Haragitze berbera zen eta baita Lege Zaharrena ere.

Politika aktiboa uztean, hainbat proiektu kulturaletan sartu zen. Hala nola, ikasketa uni-bertsitarioak egin zituen, entsegu eta idazle lana, baina bien bitartean EEko parlamentaria zen Gasteizen. 1987ko hauteskunde europarretan, ez zen Europarlamentari aukeratua izan zortzi mila boto ingurugatik. Geroago, sozialistekin senatari aukeratua izan zenean, Europako Kontseiluan ibili zen eta, honi esker, Europa hartu zuen konpromisozko identitate berria lez.

1988an, ETA pm desagertu ostean, milien lehen su-etena izan zen. Idatzi zuen zehatz-mehatz ze arazo izanen zen Euskal Herriko demokrazia normalizatzeko euskal nazionalismoaren maximalismoak eta indarkeriak zuen tokiagatik. ETA m nazionalismo tradizionalaren segitzailea zela kontsideratzen zuen Mariok, eta modernitatearen aurkako alde denak txertatuak zituen. ETA m-k salto mortala egin eta hauek onartu beharko lituzkeela zioen: 1) ez dago Euskal Herri Langile ez ENAM (MLNV) Euskadin bizi den jendearen desberdina dena eta hauteskundeetan botoa ematen duena; 2) ezin du esan Euskal Herria nazioaren alde dagoela, baina onartutako Gernikako Estatutua mespretxatuz; 3) Euskadiko ordezkariak, demokratikoki hautatuak izan direnak baino ez daude. Izkiriatu zuenez Mariok, ETA m / HB loditu egin ziren ukazio frontea bihurtuz.

Nazioaren eta gizabanakoaren arteko borroka, "Yoyes" en kasua Mariok adibide gisa ikusi zuen. Euskal Herrira itzuli zen "Yoyes" –Dolores González Katarain–, milien erakundea utzita, horregatik heriotza-mehatxua eman zioten (Ordizia, bere herria bere aurkako pintadekin beterik zegoen), gipuzkoar gizartean sozialki isolaturik bizi izan zen eta, azkenik, erail zuten bera traidoretzat jotzen zuen pintada baten aurrean erori zelarik, eta hiru urteko semea ondoan zuela. Bere neba batek, HBko zinegotzia zenak, ez zuen arrebaren akabatzea publikoki gaitzetsi.

Mariok izkiriatu zuen: "'Yoyes' en krisia denon krisia izan zen, iraultzaren mitoa erori zitzai-gunean, eguneroko bizimodua edireitea, banakotasunaren garrantzia ezagutzea... 'Yoyes' ek adore eta kemen titanikoak egin behar izan zituen, azkenean kokotean tiro batez amaitu zena, askatasun nahikoa lortzeko bizitzaren aitzinean bere berezko kriterioak ukaiteko. Baina, Euskadin autonomia pertsonala lortzen duenak urraketa ankerra eta senide-traumez betetzea baino ez du lortzen".

Politikara itzulera: EE / PSE, postnazionalismoa, foruzaletasun liberala

Mariok politika sekula ez zuen utzi. Politika eta kultura beretzat txanponaren alde biak ziren eta hala kontsideratu zuen bere bizitza guzian. Politikara itzuli zen uste baitzuen ezkerarren batasuna ez zela utzi behar autonomia prozesua bukatu eta normaldu arte.

PCE-EPKrekin berdina nahi zuen, baina oraingoan sozialistekin, hau da, ezker espainola nazio eraikuntza prozesu batean sartu, Estatutuan oinarritua, hau da, Konstituzioan. 1981n

esaten zen EEko originaltasuna ez zela nazionalismoa aldatzea, euskal sozialismoak egite nazionala onartzea baino. Eta autonomia zen sintesia: nazionalistak Estatuko politikan parte hartzea, eta ez-nazionalistak eraikuntza nazionalen parte hartzea. Hori zen buruan zebilkion batasun proiektuaren oinarri 1993an. Demokrazia Hego Euskal Herrian autonomia zen, eta berak pentsatu eta izkiriatu zuen bezala, autonomiak itxiko zuen euskal gatazka.

Estatutuaren alde zeuden ezkerreko alderdiak, EE / EIAk aurreko konbergentziak egin eta gero, (EKIA, ESEI eta PCE-EPK), Euskadiko Ezkerra eta PSE-PSOE bildu ziren. Hauek batzeko, programa bat behar zuen Mariok. Eta horretarako programa Postnazionalismoa zen: hau da, sozialismoa nazionalismoaren kulturen sartu, Konstituzioaren bidetik, eta Euskadiri benetako nortasun zibikoa eman behar zitzaion. Euskal ezkerrek espainiar nazionalismoaren *tikak* gainditu behar zituen. Elkarrizketa batean Esozik, Marioren emazteak, erran zuen bezala, Mario politika publikora itzultzea honegatik izan zen: erronkak eta abentura politikoak maite zituelako, beste guztiak gogaitu egiten zuen. Konbergentziarekin oso pozik zebilen, EAJ-PNVri aukerabidea edo alternatiba planteatzea helburu zuen. Ramon Jauregik esaten ei zuen poz gehien erakusten zuena Mario zela. Egun guzian eta guzietan zerbaitetan ari omen ziren Jauregi eta Mario.

Postnazionalismo kontzeptua Jon Juaristik ekarri zuen, eta gero Mariok baliatu. Honek erran nahi zuen nazionalismoak bere helburuak lortu zituela eta agorturik dela: oro gatoz bat Autonomiarekin, eta orain gizarteaz, Ongizate Estatuaz eta autonomia antolatzeaz mintzatu behar da. 1993-1994an delako postnazionalismoa erakargarri bezala aurkeztu zen, Jabier Arzalluzek ere buruargitatzat jo zuen, hau esanik "horrek min egiten digu", baina azkenean ez zuen izan itxaroten zen eragina.

Postnazionalismoak euskal nazionalismotik aldendu zuen betiko Mario. Garai honetan gehiago kritikatu zuen EAJ-PNV, HB baino. EAJ-PNV ez zuen ikusten gai euskaldunok nazionalitate batean integratzeko. EAJ-PNV kristau abadearekin alderatzen du, eurek baino ezin dute sakratuaren bitartekari izan, hau da, nazioarena. Maisuak, Sabino Aranak, emandako transzendentzia, komunitate nazionalistaren komunio mistikoa da. EAJ-PNVk gobernutik ezin du nazio zibikoaren ideia jaso; HB totalitario eta antidemokratikoa izanik, kanpo zegoen, soberan zen horretarako.

Paradoxa hau da, ez-nazionalistek proiektu zibikoa baliatu behar lukete euskal eta espainol identitateak biltzeko. Hori zen EEren eraikuntza-proiektua, nazionalista bihurtu, baina unionistak izanik. Eta hori egin behar zuten kultura estetika eta abertzaleen erritua onartuz. Kulturaz ari zen, politikaz baino. Nahi zuen nazioa erlijioa bezain pribatua izatea. Bere ideia post-nazionalistak "nazio eraikuntzaz" alde soziokulturalak gehiago jorratu zituen politikoak baino, eta Euskadiri nahi izan zion nazio kultural integratzaile kutsua eman.

Postnazionalismoak euskal arazoaren kultura-pertzepzioa aberastu egiten zuen, amankomunezko kultura-baliorik ez baitzegoen euskaldunen artean, homogeneousotasunik ez zegoelako ez tradizio, memoria, erreferente sinboliko, ezta balioetan ere. Euskal kasuan, autogobernuan –Estatutuan– eta Konstituzioaren defentsan sostengatu zitekeen soilik. Nazionalismoa ez zen

izan nazioa asmatu zuena, arazo nazionalari eman zitezkeen arrapostuetako bat baizik. Mariok izkiriatu zuen memoria amankomunak aberri erreferente politiko-kulturak gogortu, estutu behar zituela.

Marioren gururietan ezin zen Euskadi xume baten malenkonia tatarrez eraman, non aberria ez zegoen alderdi batek bahitua, jendeak "santu" deitzen zien legeei eta herrietako dantzak musika-bandak jotako *Gernikako Arbolarekin* bukatzen ziren. Bere postnazionalismoaren garai inspiratzailea prenazionalista zen. Nazioaren oinarriak nahi izan zituen aurkitu Arana anaiak baino askoz lehenagoko munduan eta literaturan. Uste zuen XIX. mendean euskal izatera berezko gauza izan zela, formulazio nazional ez-esklusiboa, ez-eskluyentea, nazionalismoak espresuki formulatu arte. Euskadi beti izan zela nazioa nahi izan zuen pentsatu Mariok, eta Sabino printze urdin okertua izan zela.

Mariok bere proiektu postnazionalistari oinarri historikoa nahi izan zion eman eta horretarako foruzaletasun liberala hautatu zuen, euskal nazionalismoak, oinarri tradizionalistatik zetorrenak, beti errefusatu izan zuena.

Postnazionalismoak foruetan oinarritutako baskismoa bilatzen zuen, idealizatutako foru-memoria, eta ikur amankomunak (foruak, ikurrina, hizkuntza). Baskismo honek euskal nazionalismoaren birkokatze unionista suposatzen zuen; hau lagatzen zuen legezko tradizio gisa eta haren aurreko foruzaletasuna besarkatzen zuen. Euskaltzaletasun postnazionalista honen iturria euskal nazionalismo hondakinezkoa zen, baina baita marxismoaren hondakina ere.

1990ko azkenetan utzi zion euskaldun soila izateari, jada ez zuen pentsatzen euskalduna eta espainola izatea zerbait baztergarria zela, bi kultura oso eta konplementarioak bezala baizik. 1980 inguruan oraindik espero zuen autonomismoaren bidetik euskal abertzaletasunak espainolak erakartzea, euskal eta espainol identitateak elkar hartzea.

EE / PSE biltzearekin, Mariorentzat hau izan zen euskal nazionalismoari molde zibikoak itsasteko azken aukera. Sozialistek identitate nazionala etorkizunari begira egiten zuten, eta ez iraganari, Mariori aiseago egin zitzaien bere euskal nazioaren "ideala" Espainiakoan ezartzea, sektore ezkertiar eta aurrerakoiek baliatzen zutena.

PSE-EEK bere bigarren kongresua egin zuenean, EEren aztarna nabarmenak zeuden batzar honen ebazpenetan. Mariorentzat, konbergentzia euskal sozialismoaren jauzi nagusia izan zen, zeren, bere ustez, sozialismoak euskal egite nazionala onartu zuen.

Jon Juaristik EE eta PSEren arteko konbergentziak Arzalluzen arrazismoa erradikalizatu egin zuela esan zuen. Euskal literatura nazionalistaren topikoetako bat, neskabila inuzentea maketo maltzurak engainatzea, hau da, bere alderdiak gehiengoaren postua galtzea. Beraz, PSE-EEK Sabino Aranaren amesgaizto paranoikoa egia bihurtu zezakeen. Mariok zioen EAJ-PNVren jarrera mingarriak hauteskundeak galtzearen zapuzte handia erakusten zuela.

EE eta PSEren 1993ko batuketaren ostean, lehen hauteskundeetan gorakada handia izan bazuten ere, Mario Gipuzkoako senatari bozkatuena izan zelarik, konbergentziaren sinbolo

gisa, gero Madrilen jakin zen sozialisten inguruko ustelkeria zela eta, botoetan jaitsiz joan zen alderdi berria Euskal Herrian, nahiz eta Bizkaiko sozialista gogorrenak galeraren kulpak konbergentziari eman zioten eta ez euren barne ustelkeriari.

Mariok ez zuen utzia euskal identitate nazionala, baina bai bere abertzale izaera. Urteak ziren erreferente politikoa bihurtu zuela, sektarismo eta oportunismoari gaitzespenak egiten ziena EAJ-PNVren kasuan eta faxismo hutsa eta barbarie fanatikoa, HBren kasuan. Egibarrek eta Arzalluzek nazionalismo espainolera joaniko neofito konbertsoa eta mutantetzat jotzen zuten. Berak zioen, Letamendiari erran bezala, "errealitatea aldatzen saiatzen naiz, eta aldatzen den heinean, ni ere aldatzen naiz". Arzalluzek Rosonekiko harremanak -ETA pm deuseztatze-ko eta bere militanteak birgizarteratzeko- Mariok barik, Luis Mari Retolazak hasi zituela erran zuen. Gezur eta eraso honen aitzinean, Mariok hau esan zuen: "Orain gorrotatzen nauzu, armak utzi ditudanean; baina baliatzen nituenean, orduan ez, orduan heroia nintzen. Orain lortu dugu polimiliek inor ez hiltzea, bakezale bihurtu gara, eta terrorista deitzen gaituzue, baina lehen ez zenuten hori egiten".

Bere buruarekiko fidela izanik, bere aberri kontzeptua aldatzen zuen, Espainiarekiko zabalagoa zena, modu zibiko, aldakorrek baliatuz, abertzale etno-kulturalen aitzinean. Nazioa gauza subjektibotzat jotzen zuen Mariok 1994an, "ni"aren bitartez baino komunikatu ezin zena. Azkenean, nazioa materia pertsonala zen Mariorentzat. Horregatik, umezaroa eta gaztaroari, aberriaren mitoak bereganatu zituen, garrantzia eman zien. Modelo anglosaxoia, zibikoa eta indibidualista zena proposatu zuen, hain kolektibista eta autoritarioa zen aleman edo frantsesaren aitzinean.

Umorea

Hain berea zen umorea baliatzen zuen Mariok nazionalista "benetakoa" harritzeko, hark onartu ezin duena; hain inportantea den "bere aberria" gauza zelebre bat bihurtzen zuen. Abertzaletasunaren estetika sakratuari egurra emateko egokia ikusten zuen umorea, euskaldunentzat etika nazional laikoa eskatuz.

Adibidez, traidoretzat eta damututzat HBkoek EEkoak jo zituztenean, erranez ZEN plaren diruaz ordaintzen zietela EEkoei, eta baita GAL ere EEk sortu izana edo lagundu izana ere, Euskadiko Ezkerrakoek paskinak atera zituzten, gaztelaniazko erranaldi honekin: "Alegres y combativos, ¿habeis vuelto a beber?". Edo Bilboko udaletxeko zinegotzi jeltzale batek bigarren deitura López zuen beste zinegotzi bati hortaz burla egin zionean, EEkoek "Ni be López naiz" izeneko paskinak atera zituzten. ENAM / MLNV, munduko beste edozein komunitate hezigabe, dogmatiko eta fundamentalista bezala, ez zen nabarmentzen bere umore zentzuagatik.

Mariok, beste adibide batean, esan zuen nola da posible euskaldunok hamasei mila urtetan gure berotasun politikoak esnatu gabe bizi izana, hori itauntzen zuen Mariok. Hogeigarren mendearen hastapenetara heldu gara aberriarentzat izenik ukan gabe. Nola ibili izan gara

historian zehar espainol, frantses, nafar edo bizkaitar izanik, hain argi badago euskaldun eta soilik euskaldun garena, itauntzen zuen.

EEk, eta aurretik EIAk, euren boletinetan atal zirikatzaileak sortu zituzten, eta baita komikiak ere, euskal nazionalismoaren mitoetaz trufa eginez. Hordago argitaletxea ere baliatu zuten aldizkariak bultzatzeko, hala nola *Euskadi Sioux*, *Araba Saudita*... Juan Carlos Eguillor eta beste hainbatek izkiriatzen edota marrazten zuten. Barre egiten zuten UCD, EAJ-PNV, HB, gobernu... eta EIA / EEtaz baita ere. Eta euren idazkari orokorraz, Mariotaz! Buruberokeriarentzat barrea kaltegarria da. Adarjotzeak eta umoreak militanteei politika ez-sakratutzat bihurtzen lagundu zien, eta baita euren buruaz barre egiten eta euren abertzaletasunaz ere.

Mario disidentea zen, heterodoxoa. EAJ-PNVk eta ETAk naziotik kanpo kokatzen zuten; euskaldun txarretik, herriaren areriotzat aitaren batean pasatuz. Nahiz eta familia abertzale batean sortua izan, deitura euskaldunak ukan, euskaraduna izan. Ezta Burgosko heroia eta martiria izateak ere ez zuen salbatu. Horrela ikusten zen nazionalismoak identitatea eredu moral subjektiboetatik baliatzen zuela, nahiz eta objektiboak lez aurkeztu.

Garbiak kutsatuetatik bereizten zituen eskusibismo moralarekin Mariok zeukan desadostasunak eraman zuen EErekin batera etortzea lehenengo, gero PCE-EPK eurenaganatzea, eta gero PSRekin batuketa defendatzea.

Lizarra-garazi ituna: EAJ-PNV / EA / ETAk sinatua

Mariok 1994an aztertu zuen gero 1998an, Lizarra-Garazin jazoko zena, gertakizunei aurreratzeko zuen gaitasuna erakutsiaz, beste behin ere. Errealitate ofizialaren ordezkartza euskal abertzaleek zeukatena zen, hau da, proiektu abertzalearen gaitasun eza euskaldunak politikan eta identitatean integratzeko. Lehenago, ETA m eta haren aldekoek Estatutua indarkeriaz deuseztatu gura izateak arduratzen zuen. Orain, 1998an, postnazionalismoaren proiektuarekin, prozesu autonomikoa zuzendu zuen alderdi jeltzalearen identitate eza hiritarrei emateak arduratzen zuen.

ETAk eta EAJ-PNVk nola tratatu zuten ikusiaz, honela laburbildu zuen moral abertzale eta euren diskurtso politikoa: sakralitatea egite nazionalera eramana; bertakotasun xenofoboa, erabat arrazista ez bazen; indarkeria sektarioa giza terrore bitartekari lez; hizkuntzaren fetixismoa; gizabide liberalaren lengoaiaren eskuratzea.

1998an EAJ-PNV eta EA alderdiek itun sekretua sinatu zuten ETA m talde armatuarekin, euskal kontentziosoa euskal gatazka bihurtuz. Ez EAJ-PNVk, ez ETAk ez zuten pertsona eta gizabanakoaren existentzia ikusten, nortasun komunitate homogeneoa baino. Aniztasun politikoa kontu harriagarria zen abertzaletasunarentzat. Horregatik, nahi zuten nortasunaren izenean aniztasuna suntsitu; herriaren izenean, hiritartasuna menderatu; nazioaren izenean, eskubide kolektiboak eskubide indibidualei gaintitu; autodeterminazioaren izenean, pertsona bakoitzaren borondatea deuseztatu; historiaren izenean edozein borondatezko etorkizuna akabatu.

ENAM bihurtu zen ETA m-ren eskudero fidela, identitate aldaezina. Bere postnazionalismoaren arrazoi nagusia hau zen: nazionalismoaren adar biek Euskal Herriko biztanleen erdia markatzen zuten identitate nazionalagatik. Bera euskal nazionalismoa, alderdi politikoetan antolatua, euskal biztanleak nazionalitatea bihurtzeko oztopo nagusia dira, hau da, nazionalitatea autogobernua duen gizartea, ezaugarri objektiboekin hizkuntza kontuan, kultura mailan...

EAJ-PNV eta HB gauza askotan postulatu aurre-konstituzionalei eta aurre autonomikoei loturik dira, ezin zuketena nazionalitate eraikuntza prozesuaren lidergoa izan. Hori, PSE-EEren lana zen, nazionalismoa "patriotismo azañista" batera bihurtuz, zabala, laikoa, tolerantea, pluralista... espainola bezalako nazionalismo zabalago batean integraturik. Horregatik, post-nazionalismo honen iturri teorikoa anglosaxoi abertzaletasun errepublikanoa behar zukeen izan, eta ez alemaniar erromantizismoa, non euskal nazionalismo inspiratzen zen. Horregatik, bai Euskadi, bai Espainiako nazionalak batera izatea zen, modu originalean, Konstituzio espainolak diseinatu.

Azken lau urteetan osasunez gaizki, politikoki baztertua eta mehatxatua: oldartzen / Lizarra-Garazi / politikoak hiltzea

Mariori osasuna makaldu egin zitzaion azken urteetan; bihotzekoa 1998an, eta minbizia 2001ean izan zituelako. Segi zuen betiko zaletasunekin, hala nola, zinema, literatura irakurtzen, idazten eta politikaz ardura hartzen. Umorea, ordea, galdu egin zuen aberriagatik, hain berezkoa zuen baikortasun jitezkoa.

Oldartzen txostena 1994ean sinatu zuten HBko asanbladek. Masen borroka askatasun nazionalaren alde bizkortu behar zen, eta, tiro ezin bazen egin, kale borroka eta presio soziala erakutsi behar zen. Sufrimenduaren sozializazioa hedatuz Euskal Herriaren etsaien kontra. ENAMen arerioa, "espainola" zen. Bidart-en jausi zen zuzendaritza 1992an. Kale borroka, ETAn sartu aurreko prestakuntza-ekitaldi bihurtu zen. Helburua, arerioaren kontra jotzea zen, bereziki sozialisten eta PPren aurka, baina baita Ertzaintzaren, intelektualen, artisten eta kazetarien aurka ere. Denak bihurtu ziren Euskal Herriaren etsai.

Aro gogor eta latz hau hasten da zeozelan Gregorio Ordóñezek hilketarekin, 1995ko urtarrilaren 23an. PPko zinegotzi eta parlamentaria izan zen. Urte horretan ere, ordura arte programa nagusitzat zeukaten KAS Alternatiba alboratu eta bere ordeztatu Alternatiba Demokratikoa sortzen dute. ETA m ondo ulertzen zen EAJ-PNVko Egibar, Ollora eta Gorka Agirrerekin. Mariok zioen ETarentzat demokrazia balego, nazio-identitateari loturik legokeela, eta honek ENAMen alde faxista eta autoritarioa erakutsiko lukeela, eta gehitu zuen bere identitate politikaren ardatza indarkeria zela.

1988an Ajuria Eneako Ituna sinatu bazen, 1993an Gesto por la Paz taldea hasten da bere burua plazan erakusten, lazo urdina baliatzen bahiketen aurka. Mariok EEko militantei Gesto-n sartzea gomendatzen die. Bestalde, EAJ-PNVk ez du Ertzaintza erabiltzen ETArekin kontra, neu-

traltasun jarreran laga zuen. Mariok honen aitzinean erraten du EAJ-PNVren politika oztoporik handiena dela Euskadi nazionalitate moderno bihurtzeko.

Mariok izkiriatu zuen trantsizioa Espainia guztian egin zela, baina Hego Euskal Herrian ez, nazionalismoak onartu ez zuelako besteen ezer: bere programa eta izaera aldatu barik mantendu zituen. Mariok zioenez, Euskal Legebiltzarrean onartu ziren honelako lege garrantzitsuak: Euskararen Legea, Hezkuntza elebidun sistema, osasun sistema... Estatutuaren interpretazio ia bateratua egin zen, pare bat puntu izan ezik. Baina Mariok ikusten zuen EAJ-PNVren eskizofrenia honela: gero eta askatasun gehiago zegoen batetik, baina askatasunak ematen zigun marko juridikoaren kontra egiten zuten jeltzaleek.

Oldartzen martxan zelarik, "Poto" Mujika Herzog erail zuen ETAk 1996-02-06an. Zortzi egun beranduago, Francisco Tomás y Valiente hil zuten. Ortega Lara 1997-07-01an askatu zuen Guardia Zibilak, ETAk 532 egunetan bahiturik izan eta gero, kanporatzean nazien deuseztatze-esparruetatik irtena ematen zuela, itxura fisiko negargarriarekin. EAJ-PNV askatze honen aurrean ez zen poztu, itxaron zitekeen bezala. Mariok EAJ-PNVri gehiago begiratu zion, HBri baino, arduratua baitzegoen Mario demokraten portaera krudelarekin, identitate abertzaleari loturik zeudenean. Miguel Ángel Blanco bahitu zuten, Ortega Lara askatu eta egun gutira. ETAk egun biko tartea eman zion Espainiako gobernuari, presoak askatu zitzaizten, bestela hilko zuten. Baita hala egin ere. Baina bien bitartean, "Ermua Eguna" deitzen zena, hau da protesta orokorra egon zen, Euskadiko hiritar ia denek karriketan protestan ari zirela, Blancoren askatasuna esijituz. Mariok izkiriatu zuen ez zeudela bi komunitate nazionalista, nazionalitate bakarra, plurala, demokratikoa eta tolerantzia baizik. Alde batean demokratik zirela, eta bestean, faxistak.

Mariok bere postnazionalismo-ikuspegia argaldu egin zuen eta ideia zibikoetan oinarritutako aberri ideala jorratzen hasi. Benetako komunitate zibikoa, kulturalagoa zenaren aitzinean. Terrorismoaren biktimen garrantzia topatu zuen. M.A. Blancorena jazo zenean, denborara esan zuen Mariok jendea ez zela bakea eskatzen ari, libertatea baino. Hiritar errebolta gertatu zen. Errukia, elkartasuna, tolerantzia, eta bereziki askatasuna ziren balio nagusiak; biktimei esker ikasitakoak. Mariok izkiriatu zuenez, EAJ-PNVren EBBk ETAk M.A. Blanco erail zuelako egin komunikatuan, honela zioen "el fallecimiento de Miguel Ángel Blanco...".

Osasun arazoak izan zituen 1998an: lehenik, bihotzekoa eduki zuen. Eta handik egun gutira Lizarra-Garazi aurkeztu zen. Baina, honen aurretik EAJ-PNV eta EA alderdiek ETA-rekin itun bat sinatu zuten. Ez HBrekin, ETArekin baino. Honekin, Mariok hogeitau urte aurretik salatutako Eraikuntza Nazionalaren modeloaren prozesu politikoa martxan zen. Mariok EAJ-PNVren erosotasuna ikusi zuen egoera honetan, eta ETaren proiektu nazionalera bildu izana aurpegiratzeko. Honela izkiriatu zuen: "EAJ-PNVk uste izan du Estatutuarekin Espainiarekin loturazko sinboloak oro desagerturik, eta autogobernua orok onartua, denek nazionalista egiten zirela, baina ez da hala izan. Eta Lizarrara joan da". Ermukoaren ostean, EAJ-PNVk Lizarrakoa bilatzen zuen, eta Ollora "bidea" hartu zuen: bortitzekin bildu eta "erabakitze

euskal markoa" lortu, bakearen orde. EH (Euskal Herritarrok) / HBk sinatutako itunean EAJ-PNV eta EAekin ez zuela Estatutuaz deus ere aipatzen zioen Mariok.

"Lizarra"k ETaren beharizan politiko-ideologikoei baino, EAJ-PNVren arazoei erantzuten diela zioen Mariok. EAJ-PNVk demokrazia onartu zuen, baterako metodo eta arau lez, baina Konstituzioaren balioak onartu barik. Horrela, aukera espainolisten normaltzearekin, Ermuko esperientzia zibikoarekin, jeltzaleen sektore muturrekoenak zuzendaritza bereganatu eta Lizarrako Ituna bultzatu zuten. Mariok argi zeukan ETA ez zela gobernu zentralari zuzentzen ari, EAJ-PNVri baino, demokratikoki lortu ezin zituen eskari nazionalistak erdiesteko, ez Konstituzioak hiritarren borondateari oztupoak ipintzen dielako, Nafar eta EAeko hiritarrek ez datozelako bat nazionalisten aldarrikapenekin baino.

Demokratentzat bide bakarra ETA desagertzea zen. Orduan edozein eztabaida EAeko etorkizunaz posible zen, Marioren iritziz, EAJ-PNVk nahi ez zuena. Horregatik, publikoki, Mariok Ajuria Eneako Itunera itzuli zedin eskatu zion. Baina 1999an legealdi-ituna sinatu zuten EA eta EH/HBekin. Hau jotzen zuen Mariok Arzalluzen amets pertsonal handitzat, nazioaren kontzepzio germanikoa komunitate kultural lez, nahiz eta gero eraikitzen dena komunitate nazionala izan. Hau, ETA sortzearekin hautsi zen berrogei urte lehenago, eta "Lizarra"rekin EAJ-PNVko sektore erradikalizatuenak gura zuten ideal hori birsortu, Marioren iritziz.

1999ko irailean ETAk hautsi zuen su-etena. Hala ere, gobernuko alderdiek, EAJ-PNV eta EAk erabaki zuten EHrekin zuten ituna ez apurtzea, nahiz eta EHek ETaren hilketak eta ekintza bortitzak kondenatu ez.

Garai hartan Mariok oraindik proiektu postnazionalista buruan zuen. Nazioaren osagarri politiko eta kulturala gura zituen nahastu: hiria eta tribua. Nazioaren sostengatze modura, XIX. mendeko adiskidetze garaia nazionalismo espainol liberala eta autogobernu foral euskaltzailearen artean. Amets foralista hau ezabatzearen hobena euskal abertzaletasunak ei zeukan, euskaldunen identitate-ikurrak bereganatu gurarik eta komunitate nazionalista sortu nahirik ari zen, eta ez populu bat. Baina Cánovas eta Neguriko kapitalismoari ere errua egotzi zien, identitate erromantikoaren edozein keinu utzita, modernizazio kapitalista bilatu nahirik, anbizio mugagabeaz foruengandik urrun, eta beraz, euskal identitatearen keinuengandik ere. 1876an Cánovasek foruek deuseztatu zituenetik ez da alderdi denek onartutako sistema politikorik egon Hego Euskal Herrian, zioen Mariok.

Euskaldunen arteko adiskidetzea nahi zuen Mariok, nazioa bihurtuz abertzaletasun bikoitza zen postnazionalista proiektu baten bitartez, etorkizunari begira. Baina zibiltate horrek denbora prenazionalista foralean oinarritutako heredentzia erromantikoa behar zuen izan. Nazionalismoak ez du nazioa sortzen, uste zuen Mariok. Berak nazionalismo aurreko nazioa bilatzen zuen, proiektu postnazionalistaren zibiltate eta bakezko elkarbizitzara zuzendua. Arana Goirik ez zuen tradizioa asmatu. Narrazio batzuei beste zentzu bat eman zien, beraz ez zen garrantzitsua izan euskaldunen historian. Aranaren aurretik euskaldunek euren burua

naziotzat zeukaten, Espainiaren barruan zegoena, zioen Mariok. Tradizio liberal espainolari lotua zen, ilustrazioarekin lotua, autogobernuaren instituzioekin. Kultura-kutsuko euskal identitatea nahi izan zuen lotu kutsu politikoko beste espainol batekin.

Baina bere postnazionalismoa aldatzen ari zen. Ermuko gorabeherak hunkitu egin zuten Mario eta gogoeta intelektual sakonean hausnar zebilen, eta gero Lizarrako itunak ekarritako aldaketa zela eta, nazioa gero eta gehiago bihurtzen zuen aberri, komunitate abstraktu bat, non hiritarrak bere eskubide eta libertateak bermatuak dituen. ETak EAJ-PNVri aurpegiratzen zion su-etena apurtu izana eta EAJ-PNVk, alderantziz.

2.000.urteko otsailean Basta Ya! talde bakezalea sortzen da. Manifestazioa antolatzen dute Donostian. Gutxi joanik ere, Mariok zioen ordura arte EAJ-PNV eta HB baino ez zirela gai jendea karriketara ateratzeko.

Buesaren erailketa, atzera-bueltarik ez

Fernando Buesa erail zuen ETak Gasteizen 2000-02-22an. Honek asko markatu zuen Marioren bizitza eta bere nazio-kontzeptua aldatu egin zuen. Astero joaten ziren elkarrekin Bilbora PSE-EEren zuzendaritza batzordera, arratsaldeetan. Mario ez zen joan egun horretan telebista batean liburu berria aurkeztu beharra zuelako. Buesa zen EAJ-PNVrekin oso haserre zena, "Lizarra" aurretik, zinikotzat jotzen zuen, eta ez zen batere moderatu alderdi jeltzalea. Bere ustez, lehenago eten egin behar zuten EAJ-PNVrekin, ez ziren eta sistema demokratikoarekiko fidelak. Sozialistetan, Marioren hitzetan, argien eta garbien esaten zuena Euskadin errebolta sozial demokratikoa behar zela Buesa zen, eta hiritartasuna jaiki, sistema demokratikoa defendatu eta nazionalismoari alternatiba sortu behar zela.

Mariok orain biolentzia ikuspegi etiko eta zibikotik baino ez zuen ikusten. Bizitza da sakratua den gauza bakarra unibertso profanoarentzat, baina bizitza da berez profanoaren zati, objektu politiko absolutuetan. Terrorismoan, erailketa ez zen indarkeriaren karakterizazio zorigaitzkoena, baizik eta hau zelan errepresentatzen zen eta ze eragin sozial sortzen zuen. Ibarretxeren gobernuaren diskurtsoak eta ekintza kolektiboak, Buesaren hilketaren ondoren eta hurrengo hilabeteetan, Mariorentzat erakusten zuten indarkeria terrorista eta Lizarraren Itunetik jaiotako Gobernuaren estrategia politikoaren arteko hodi komunikanteak zirela. Mariorentzat, terrorismoak hiltzen du gatazka dagoela erakusteko, eta "gatazka" diskurtso ofizialera eraman izan zen Lizarrako Itunaren bidez. Eta Gobernuak onartzen zuen figura narratiboa hau, biolentzia zuritzen zuena, itun elektoral mantentzen zuen bitartean.

Arzalluzek atsekabean lagundu zion Buesaren anaia jeltzale bati, hildakoaren alderdikideei kasurik egin gabe, Legebiltzarrean zain zituen arren. Euskal Gobernuak onetsi zuen Donostian presoan aldeko manifestazio bat, Gasteizen egun berean indarkeriaren aurkako kale-agerraldia egiten ari zirenean. EAJ-PNV hasi zen bere jendea mugitzen Gasteizen sozialistek indarkeriaren kontrako agerraldia eueganatu ez zezaten. Mariorentzat, Donostian karlisten jarraitzaileak espainolismoaren kontra manifestatu ziren, hildakoaren ekintza justu-

fikatuz, sufrimenduaren sozializazioa martxan ipiniz. Bestalde, Gasteizen Buesaren familiak eta alderdikideek antolatutako manifestazioa egin zen banderarik gabe, isilik, elkarren artean estu, berotu gurarik. Lantzean-lantzean, kartel txikiak ikusten ziren "Ibarretxe dimisión. Viva la Constitución" goiburuarekin. Honen aurrean beste manifa bat zihoan, Donostiakoaren antzera, ikurrinak, kartelak eta argazkiekin, baina ez presoena, Ibarretxerena baizik. Kanpoko batek pentsatu zezakeen hauek hildakoaren aldeko agerraldiak zirela.

Honek Mario sakonki mindu zuen. Bera kalean zegoen, EAJ-PNVko afiliatuei zarataka. Hauek "Ibarretxe aurrera" zioten. Mario biziki aldatuta zegoen. Eurengana hurbilduaz honela erraten zien: "Ikurrinak San Mamesera eta San Mames ez dago hemen". "Buesa hil dute eta ez Ibarretxe". "Koldar zikinak", "Gora Askatasuna". EAJ-PNVkoek paso egiten zioten, ETaren hilketengatik sufritzen ez zutela erakutsiaz. Egoismo gordina, izkiriatu zuen Mariok. Euforiko zihoazen eta borrokalari, "euren" lehendakaria sostengatzera.

Mariok EAJ-PNVko agintari bati entzun zion hau "ez baduzue hil nahi, negoziatu egin ezazue; baina ez ETarekin bakarrik, ez luke balio izango eta. EAJ-PNVrekin ere egin beharko zenukete, ETak ipinitako hildakoetaz". Terroristek, euren ordezkari (HB) eta nazionalista moderatuei, Lizarrako Itunaren bitartez bildurik, komunitate abertzaleari lengoia konpartitua eskaini zien.

Guzti honek bere aberriarekiko kontzeptua aldatu zion Mariori. Gizartearen erdiak errukia ez zuen sentitzen, Ermukoaren ostean Mario arduratzen zuen balio bakarra. Ez zen HBko % 15. Asko gehiago ziren. Bere ohiko optimismoa lur jota zegoen. Hain modu harroan publikoki uko egitea bertute zibikoei, errukia, askatasuna, elkartasunari... Buesaren hilketaren ondoren, abertzaletasunarekiko harremanean Mario atzera gabeko egoeran zegoen. Beretzat, nazionalismoa sistema demokratikoaren defentsarako berreskurazina zen.

Aldaketa politikoa jo zuen Mariok, jarrera erradikalki zibiletara. Gertatu ziren ondorengo hilketak (E. Lluch, J.M. Jauregi, J.L. López de la Calle...) eta J.R. Rekalderen atentatuak ekarri zuten PSE-EE eta PParen arteko hurbilketa. Masen mugimenduak bakezaletasunetik jauzi egin zuen askatasunen defentsara, Estatutua eta Konstituzioa zirenak, eta Mariok hurreratze hau babesten zuen.

Hilketa bakoitzaren ostean, terroristak dira euskal abertzaleetan logiko eta kontsekuenteenak, zioen Mariok. Euskal nazio independentea nahi izanez gero, hiritarren erdia akabatu beharra dute, euren proiektu nazionalista totalitario eta baztergarria defendatzen dutenek. Euren etsai nagusiak erregimen konstituzionala eta autonomikoa defendatzen dutenak dira. Horregatik, PSE-EE eta PP hurreratzea sostengatu zuen Mariok publikoki, erregimen konstituzionalaren alde zirelako, Lizarrako Itunak areriotzat jotzen zituen arren. 2000.urtean hogeita hiru hilketa egin zituzten eta 2001ean, hamabost. Parte hartu zuen Mariok EAJ-PNV eta EAK EH-HBekin udaletxeetan segitzearen kontrako manifestan. Elkarriketa batean esan zuen Mariok bera ekintza konspiratiboetara eta teorizaziora dedikatzen zela, politikaren alde erakargarrienak beretzat.

Bizkartzainak / Egoera zurrundu

Bizkartzainek babesturik ibiltzen hasi zen 2001. urtean, ETA bere atzetik zebilela Ertzain-tzak jakin zuelako. Eskoltekin ibili beharrak, Buesaren erailketak eta Ermukoak patriotismoa eta nazio ikusmoldea aldatu zion.

Bilboko Artekalen 1969-04-09an atxilotua izan zenean izan zuen heriotza morala berriz bizi izan zuela oraingoan zioen. Ikusezintasun soziala. Izkiriatu zuenez, hilik sentitzen zen Mario, bizirik zeudenek ikusi ezin zuten fantasma bat. Euskal kausaren heroia izanikoa, birritan kondenatua zen orain: gaixotasun morala eta osasun-eritasuna. Konstituzionalismo eta bizi-tzako aberri-heroia zen. Borreroen eta hauek txalotzen zituztenen kontrako errebelia zibikoa erakusten zuen. Jon Juaristik izkiriatu zuen "inor ere ez dut ikusi adore handiagorekin fronte egiten ETArek mehatxuei, batetik eta bestetik, ikuspegi medikotik amaiera garaiz aurrekoa eta saihestezinari, minbiziari". Mariok izkiriatu zuen "Euskadi da munduko toki gutienetarikoa, non Gobernuak bere boterearen iturria deslegitimatzen duen, Autonomia eta Konstituzioa". Legeak ez baliatuz, Euskal Gobernuak ETArek aldeko leku publikoa kontrolatzen uzten zien eta hori leporatzen zien Mariok. Gobernu batek Intifada ez-zuzenki subentzionatzea zen hori Mariorentzat.

Nazionalismoa paranoia zen beretzat. Eta irtetzeko, errealtatearekin tupust egin behar da eta kartzelan paranoikoak errealtate gordina aurkitzen du, bere amets edo fantasietatik urrun. Ez dira ETakoak konbentzitu behar, zioen. Ez; detenitu, atxilotu, juzgatu eta kartzelan sartu. Neurri psikiatriko oinarritzkoa dena. Garzonek ENAMen aurkako ekintza judizialek ekarri zu-ten Askatasunen Aldeko eta Terrorismoaren Aurkako Ituna, 2.000ko abenduan, eta Partiduen Legea 2.002ko ekainean. Europako Giza Eskubide Tribunalak onartu zuena, 2009-06-30ean.

Hiritarren patria

Konstituzioa erreferente etengabekoa zen bere diskurtsoan, eta nazionalismoaren birplan-teamentu intelektuala zekarrena. Konstituzioa harresi gaindiezina zen, nahiz eta hura defen-datzen abertzale fanatikoek hainbat lagun garbitu zuten.

Bide berezia segi zuen bere bizitzan: ETAn militatu zuen; gero, Eleizaren martiriak beza-lakoa bihurtu zen Burgosen; kartzelako zortzi urte eta erdi teoria politikoa ikasi eta euska-raz izkiriatu eta euskarara testuak itzultzen; ETakide batek demokraziarako trantsizioan parte hartzen du, bere alderdia ezker abertzaletik atera eta modelo espainolaren eredu integratua bihurtuz; ikasketarik gabeko politikariak heldutasunean bi doktorego eta lizentziatura biren erdia eginez, literatura eta zineman teorikoa izatez gainera, eta baita ia historiagilea be. Konstituzionalista bat politikan segituz eraila izan zitekeen garaian; esperientzia hauetatik, patriotismo berri bat teorizatu zuen.

Burgosko heroismo garaia ondoen, arrazoi sakratua besarkatuz, patriotismo zibi-koaren mistikara itzuli zen. Ideal patriotikoa hileta tonuan, heriotzaren estigma bikoitza, fisi-

koa eta morala edukiz. Hiltzeak, eta bizitzeak, gauza birengatik merezi du soilik, zioen: patria eta libertateagatik. Errepublikanismo klasikora itzuli zen. Konstituzioa eta Estatutua dira gure babesa terrorismoaren kontra, ze Estatua gu defendatzera behartua dago. Hiltzen banaute, ez dezatela esan euren aberriagatik izan dela, nire patria eta nire demokratiagatik baizik, izkiriatu zuen.

Mariok heroien patria erreibindikatzeko zuen, ororen libertatea defendatzeagatik hiltzeko prest ziren hiritarrena. Bere aberria erabat zibikoa zen, ez zeraman euskal kultura-kutsurik; garai hartan modan zen "patriotismo konstituzionala"z ari zen. 2001eko maiatzeko hauteskundeetan galdu arren, miloi erdi boto eskuratu zituztela zioen. Eta bazegoela kalean boterean zen nazionalismoaren alternatiba eskatzen zuen hiritar mordoa. Buesak errebolta sozial demokratikoa eskatu zuenetik urte eta erdia pasatu zen, hogeita hamar hildakoak gertaturik –euretariko sei, sozialistak–. Zail da Gobernuak nazionalismoak boto gehiago izatea, eta konstituziozaleek ia seiehun mila boto atera zituzten, zioen Mariok.

Patria honi postnazionalista izena kendu zion, eta hiritartasunetik ikusten zuen. 2000ko irailean ehun mila lagun Basta Ya-ren manifestazio batetan batu ziren: "Askatasuna eta bizitzagatik, defenda dezagun batzen gaituena: Estatutua eta Konstituzioa". Mario ere bertan zen. Mariok aurkitu zuen gizarte zibila zela nazioaren sortzaile eta igorleen kanal autonomoa, eta harrezkero historialariak hori kontuan izaten hasi ziren.

Abertzaleen ofizialaren identitate alternatiboa eta elkarbizitza demokratikoa garatzen zuen identitatea defendatzen zuen. Nazioa ulertu nahian, baina ez euskal nazioa, espainola baizik, zeinek euskaldunoi bermatuko lizkigukeen eskubideak eta askatasuna, euren nazionalismoak ukatzen diguna. Ez dugu edozein Espainia nahi, konstituzionala eta demokratikoa baino, herrien autogobernuarekin errespetua duena, izkiriatu zuen Mariok. Eta honek nazionalitate euskalduna hemen sortzeko balio izango diguna, Estatutuak eta Konstituzioak aipatzen dutena. Euskal abertzaletasunean aurkitu ez zuen trokel zibikoa, espainolean aurkitu zuen.

Eta horregatik identitate nazionalen arteko interdependentzia onartua zuen. Nazionala ez zen bere etapa abertzale eta foralean bezalako tradizioa, ezta postnazionalismo garaian ere, errepublikanoa eta liberala, espainola eta europarra baizik. XIX. mendekoko foruetatik, Cadizko Konstituziora pasatu zen, zeinak foruak babestu zituen. Mariok sozialdemokraziaren planteamenduak onartzen ditu, baina ez du bere burua langile mugimenduen segitzaile gisa bakarrik ikusten, baita Iraultza Frantsesarena eta XIX. mendeko liberalismoarena ere.

Tradizio errepublikanoa Mariorentzat, kultura eta tradiziozko nazionalismoaren alternatiba zen. Britainiar kultura eta historia, zeina baitzen ilustratu espainolen modeloa, jotzen zuen Mariok oinarri nagusi bezala. Honen iturri historikoa XVIII. mendeko teatroa zen, tragedia aldaeran. Beldurra eta errukia baliatzen zituen politikaren ingurua entelegatzeko, eta errukia proposatzen zuen konstituzionalistak nazioan biltzeko. Tradizio errepublikanoak euskaldunoi

identitate bat eman zigun, eskubide eta libertateen oinarri, Konstituzioak jarriak. Nazionalismoaren aurrean, Nazioa jarri behar da.

Euskal Konstituzionalismoaren aberria, errukia, pietatea, auzokoarekin identifikatzea da. Patriotismo Errepublikano Liberala baino urrunago doa, bakoitzaren interesa sakrifikatu, ororen libertaterako. Konpromiso zibikoak behar du balore amankomunetan oinarri izan: askatasuna, bakea, justizia, errukia eta memoria. Nazio-kontzeptuak erraten zuen nazionalismoaren desberdina behar zuela izan, mugimendu zibikoan ezarria. Ermuko jardunaldien ondoren zioen euskal arazoa nazionalismoa zela. Orain libertatea defendatzea zen beharrezkoa, hau zelako nazio abertzalearen, baina baita edozein modelo nazionalista etniko espainol unitaristaren alternatiba. Errukiak humanoekin identifikatzen gaitu, baina norbait basko, espainol, frantses ikusten baduzu, ezin duzu errukirik izan.

2003ko otsailaren 8an Joseba Pagazaurtundua, ETA pm taldeko kidea izana, gero EEkoa, eta erail zutenean PSE-EEkoa zen. Eta euskalduna. 1998tik heriotza-mehatxuak izan zituen, hau da, bost urtez. Hil eta astebetera, Marioren arabera, Juan Mari Juaristi “Zeler”, GBBko buruak hau esan zuen: “Basta Ya, HB modukoa da, Oldartzen konstituzionalista bat”. Erruki falta honek euskal nazionalismoaren barruan eraman zuen Mario patriotismo alternatiboa bilatzera.

Eraiketa hau gertatu eta hiru hilabetera, Mariori Premio José Luis López De La Calle eman zioten. Azken publiko-aurreko ekintzetako bat egin zuen hemen Mariok. Ekitaldia, Libertateari omenaldi zibiko hunkigarria izan zen. Bere hitzetan, *Solo ante el peligro* edota *El hombre que mató a Liberty Valance* filmak aipatu zituen: “Politika aurreko eskubide oinarritzkoak daude: libertatea, pluralismoa, segurtasuna... Ez dago libertaterik legerik gabe. Balore batzuk gehiago eta gutiengoen gainetikoa dira: pentsatzeko askatasuna, segurtasuna, pluralitatea. Ermuko ekitaldiak biktimarekiko identifikazioa ekarri zuten, tragedia egon dadin beldurra eta errukia egon behar da. Konstituzioak eta Estatutuak bermatzen dute denon askatasuna. Terrorismo eta hau elikatzen zuen euskal nazionalismoak azken oztopoa ziren nazio euskalduna eraikitzeke, libertateari subordinatua behar lukeena. Libertatea inori beste proiekturik ez ezartzeko, libertatea segurtasuna eta pluralitatea da; libertatea legea da. Ahaleginduko naiz zuek ez dezepzionatzen, hiritar euskalduna izanik Euskadin bizi diren denen libertateaz borrokan ari dena, nahiz eta horrek ideia zonbait kritikatzera eraman, pertsonak errespetatuz”.

Buesa eta Pagazaurtunduaren heriotzen aurrean, erruki eza erakutsi zuten zonbaitek. Esaterako, Ibarretxek Pagazaurtunduaren hilketa jazo eta gutira hau esan zuen: “Utzi Estatutuak ematen digun hiritar baldintza, eta sentimendu bietatik bat hartu (espainol, euskal) Estatu edo estatus berria eraikitzeke”. Mariok zioen “honekin konforme ez geundenok, nazionalista espainolak ginateke, Ibarretxerentzat”.

Gizakion errealitatea Mariorentzat, politika, erlijio edo nazioaren gainetik dago: bizitza eta beste ezer ez. López de la Calle saria jasotzerakoan hau esan zuen: “Inportanteak pertsonak

dira, ideiek pertsonen zerbitzura egon behar dute, eta ez alderantziz. Proiektu batean pertsonak oro sartu behar lirateke, eta ideiak pertsonen zerbitzura egon”.

Bere aberriarekiko ebokazioa bizitzan oinarritzen zen, ez heriotzan. Patria zen norbera bizi den tokia, baina askatasunarekin. Jada ez zion euskal edo espainiar izena jartzen. Konpromiso zibikoa, esperantza eta poztasuna, libertatea eta errespetua, tirania eta injustiziarren kontrakoak, pentsalari ilustratuek pentsatu zuten moduan. Patria delako horregatik jokatu zuen Mariok bere bizitza. Konpromiso hori hartu zuen ehunka erailketa zirenean, hain gaizki egonik fisikoki minbiziarengatik, dena utzi eta harreman intimoen eta pertsonaletan zentratu zitekeen, baina borroka egin zuen askatasunaren alde.

Omenaldia egin ziotenean zendu eta egun gutira Gasteizko Plaza Españan, bere esaldi maitatuenetako bat zegoen eskenatokiaren gainean ipinita: “La nacion no es una etnia que exista antes de la política, como piensan los nacionalismos. La nación son los ciudadanos con leyes que les permiten serlo”. [Nazioa ez da politika sortu aurretik hor dagoen etnia, nazionalismoek pentsatzen duten bezala. Nazioa hiritarrak dira, legeekin, hori izan daitezen ahalbidetzen diena].

Euskaltzaletasuna politikan

Mariok esaten zuen euskarak sekula ez zuela izan 1980tik aurrera izan zuen babes botere publikoengandik, Joana III de Albreten garaitik hasita. Joana de Albret Nafarroako erregina izan zen Behe Nafarroan 1555etik aitzina, eta kalbinismoa bultzatzeko 1571n Joanes de Leizarragari eskatu zion *Itun Berria* euskarara itzuli egin zezala, eta hura izan zen euskarazko lehen itzulpena izan zuena Itun edo Testamentu Berriak. Mariok zioen Euskal Legebiltzarra eta Gobernua sortu zirenean euskarak 1980an 0 pezeta izatetik, hogeitaz, 50.000 milioi pezeta izatera pasatu zela.

Mariok hasierako Legebiltzarrean, euskarazko idazleentzat eta AEKrentzat laguntasun ekonomikoak proposatu eta bideratu zituen laurogeigarren hamarkadan. Geroago, *Egunkaria* periodikoarentzat. Sarritan esaten zuen Autonomia Estatutuaren hurrengo lege garrantzitsuenak Euskararen Legea eta Eskola Publikoarena zirela.

Bere euskararekiko pentsakera ezagutzeko, esaldi hau baliagarria izan daiteke, izkiriaturik honela laga zuen: “HABEri dirua eman behar bazitzaion, ez zedila izan AEKri kenduta, Guggenheim Museoari baino”.

PSE-EE gobernura heltzekotan bi milagarrengo hastapenetan, guti ezagutzen den Plana zuen: Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntza Politikaren Idazkaritza elkartu; Unibertsitatean sail soziolinguistikoa sortu administrazioaren eremu guztiak aztertzeko; HABE, Hezkuntza sailean sartu; EITB autonomia egin; Administrazioa euskaldundu instituzio zientifikoaren arabera; Euskaltzaindiarekin harremanak argitu; Eusko Ikaskuntza, eztabaida kulturalerako tokia bihurtu eta baita Iparralde, Nafarroa eta EAEko Unibertsitateen topaleku gisa baliatu ere.

Literatura

Euskaltzaletasuna

Etxean beti euskaraz mintzo ziren, Mariok zioenez “gurean sekula ez da erdaraz egin”. Marioren aitak berbeta erreza, dotorea, graziaz betetakoa zuen, Gizaburuagako hiztegi zabala eta aditzak ondo josiak erabiltzen zuen Jakindak. Hiztun aparta zen. Inguruko herrietan ere (Amoroto, Aulestia, Nabarniz) euskara ederra eta polita baliatzen dute. Aitak zuzentzen zituen seme-alaben akatsak, Marioren arabera. Onaindiatarretan berbetarako etorriz beteriko jendea dago, eta gure aurreko lehengusu-lehengusinetan eta familia zabalean ere hola da, baina Gizaburuagako adarra bereziena dela uste dut, eta bost neba-arrebetan, bera Jakinda eta Angelita –gure ama– izan dira gauzak adierazteko aparteko erraztasuna izan dutenak. Gizaburuagan apaiz gisa Xabier Amuriza egon zen orain urte dezente. Egun, bertako alaba batekin ezkondua dago –eta Lariz Oletako auzokorik hurbilenekoa, Errekanekoa–. Amurizak esan zidan harriturik geratu zela gure amaren euskara entzunik. Gaineratu nahi nuke biek, Jakindak eta Angelitak, kontzientzia ere bazutela hizkuntzarekiko.

Lekeition Guardia Zibilen seme-alabek euskara egiten zuten, karrikan ez baitzen besterik mintzatzen. Eibarrera joanik, sei urtera arte Mariok ez zuen euskara baizik egiten. Erosketak egitera joan zen batean, erreala falta zuen ordaintzeko, eta etxerako bidean hura errepikatzen itzuli zen, ahantzi ez zekion. Dotrinan, ostera, ongi moldatzen zen. Baina eskolan deus ez zuen ulertzen hasieran. Ezkondutakoan, Mariok zioen Eibarren lekeitiarrez eta gizaburutarrez mintzo zirela, baina Gazteizen eibartarrez eta plentxiarrez.

Mariok izkiriatu zuenez, aitak euskara gurtzen erakutsi zion. *Zeruko Argia* aldizkariarekin argitaratzen zen *Pin Pan* koloreko zortzi orrialdeko komikia jasotzen zuten etxean, euskara hutsezko zen bakarra. Erdaraz eginez gero, ez zuten astesari edo sakelerako dirurik izaten. Kalean erdaraz eta etxean euskara hutsez egiten zutela zioen. Mariok hizkera desberdinak zituen belarrietan: Lekeitioko txaputxerua –bere amak egiten zuena, dendari eta tabernariena–, arrantzaleena –lagunei ikasitakoa–, Gizaburuagakoa –aitarena–, Eibarkoa –bertako bizkaieraren azpieuskalkia–, eta Eibarren entzuten zituen batzuk gipuzkeraz. Honak guztiak “euskalkiekiko zaletasunak ikerketara bultzatu ninduen” izkiriatu zuen. Galizian hiru urtez edota kartzelako zortzi urte eta erdian berbetari bere kabuz eusten ahalegindu zen. Lekeitioko eskolan bere lehen maistra izeko Angelita ukan zuen. Honen ustez, mutiko zintzoa eta langilea zen.

Eibarren bost eta hamaika urte bitartean bizi izan zen, eta gero Lekeitiora itzuli zen urte bitan Mertzedarioen apaiztegira eta gero Galiziara joan zen hiru urtez. Eta han euskara ez ahazten ahalegindu zen. Literatura maisu ona izan ei zuen Galiziako Sarrian. Klasikoak, antzerkia, poemak... ikasi zituen. Klasea libre izan arren, bera joan egiten zen. Euskarazko liburu banakaren bat izan zuen esku artean. Galizian asko irakurri zuen, poemak idatzi zituen gaztelaniaz, literatura formakuntza jaso zuen. Baina, euskara galtzeko beldur ere bazen.

Eibarrera itzulita, bankuan lanean hasi zenean, lankide gipuzkoarrekin *kiputx* mintzatzen hasi zen. Era berean Bilbora joaten hasi zen zonbat izkiriataileekin bilduz. Euren artean, Gabriel Aresti.

Literatura

Kartzelan sakondu zuen euskara, zeren lehen hiru urtez euskara hutsez irakurri zuen. Berak zioenez, klasiko guztiak irakurri zituen, Etxeparetik hasi eta 1936ko gerra zibilera artekoa.

Hizkuntza idatziari ematen zion garrantzia Mariok, berez eta baita haren aurrerakuntzarako ere hedatu zedin. Gainera, ondo hitz egitea asko estimatzen zuen eta berak ere letretan ahozko hainbat ekarpen aintzat zituen, baina paperean zegoenak zuen balioa berarentzat. Egun batez, kexu zen euskara gaiztoa entzun ziolako eskritore bati hizketan telebistan. Hau da, hizkuntza menderatu gabe ezin da izkiriatu, zioen.

Hogei urte inguru zituenetik, literatura, hau da, gauza pertsonalak, ametsak, fantasiak, norberak sorturiko mundua, euskaraz izkiriaturako zuela bazekien, hala erabakita. Kartzelako zortzi urtean irakurtzeko astia sobera izan zuen eta ahal izan zuen guztia irakurri ere bai. Jasotzen zuen dena, gero euskaraz kontatzeko erabiliko zuela sentitzen zuen, bere erabakia betetzeko. Beste hizkuntzetako hainbat esamolde euskaraz zelan ipini edo antzekoa bilatzen saiatzen zen.

Caceresen eta Kordoban egin zuen kartzelaldi luzeena. Lehenengo urtean, ikasi eta irakurri, euskal historia eta literatura, eta euskara bera, jo eta su egin zuen. Euskara gero eta gehiago interesatzen zitzaion. Ez ikastea, hobetzea baino. Baita itzultzea ere. 1973an pentsatu zuen literatura idaztea eta euskara literatura-hizkuntza bihurtzea. Urte horietan, euskal filologiako eta euskarazko literaturazko lan denak sistematikoki irakurtzen jardun zuen. Horrela, euskal idazleak ezagutu zituen, lapurteraz idazten zutenak bereziki, XVI. eta XVII. mendeetakoak.

Klasikoekin hasi zen, autorez autore, irakurri eta bakoitzaren gramatika aztertzen. Batez ere Axular, Leizarraga, Etxepare, Etxeberri Sarakoa, Mogel eta Tartas. Apunte bikainak eta ikusgarriak egin zituen bakoitzaren sintaxiarenak. Eskuz, argi eta garbi jarrita, hiru koloretan, bere hizki txiki eta politaz. Esan daiteke, Lapurtera-Behe Nafarrera, Zuberera eta Bizkaieraren klasiko nagusien jostera azken detailera arte aztertu zuela.

Klasikoen jostera edo sintaxia aberasgarritzat jotzen zuen. Eta beharbada, euskal literaturaren joera intimistetatik ihes egiteko bide egokia. Hauek guztiak interesgarritzat eta egokitzat jotzen zituen Mariok itzulpenetarako. Euskara nahi izan zuen ikertu. Latinaren indarra eta solemnitatea zuela zioen. Klasikoen hizkuntza erabiltzeak, berez, merezi zuela uste zuen. Klasikoen jostera baliagarriagoa eta egokiagoa zen Mariorentzat handik urteetara hartu ziren erabakiena baino. Batua, oinarritzat hartuz, gehiago behar da ikertu esaten zidan. "*Elurtzan...*" nobelan nabaria zen jostera klasikoaren eragina, baina gaurko

literaturan beharrezkoa da jendeari interesatzen zaizkion gaiak ukitzea, eta forma aldetik irakurgarriagoa izatea.

1936ra arte euskaraz idatzitako guztia irakurria zuela esaten zuen. Ikasketa literario nagusia, batez ere, 1971 eta 1974 bitartean egin zuen, Caceresen zenbait testu euskarara itzuli zituen. Klasikoetara jo beharraz konturatu zen, Leizarraga eta Axularren ekarpen handiena beraien sintaxia zelako. Hiztegi aldetik ere bazuten garrantzia. Ez zuen ulertzen gaurko hainbat idazlek klasikoetara ez jotzeko duten aurreiritziaz.

Beretzat naturalena euskaraz idaztea zela esaten zuen. Erantsiko nioke, naturalena, barruan zeramalako, berezkoa zuelako. Baina gehitu behar da euskara sakon ikasi zuela. Batez ere, kartzelan. Gero, segitu zion irakurtzeari eta izkiriartzeari, baina oinarria kartzelan hartu zuen. Hemen aipatu behar dira Koldo Mitxelena eta Juanito San Martin eibartarraren laguntza. Familiarentzat euskarazko edozein liburu, klasikoak batez ere eta argitaratzen ziren gauza gehienak lortzen zituzten. Eta baita hizkuntzari buruzkoak ere. Hala irakurri zituen, aipatutakoez gain, Añibarro, Oihenart, Lapeyre, Joannateguy, Manezaundi, Ubillos, Juan Bautista Agirre, J.P. Arbelbide, Campión, Azkue, Altube, Larzabal, Lafitte, Mitxelena (*Fonética Histórica Vasca* eta *Textos Arcaicos Vascos*).

Aldizkarietan, RIEV ia osoa, eta *Euskera* delakoaren ale asko, *Fontes Linguae Vasconum, Egan...* Anabitarteren "Don Kijote"ren atal euskaratua, Umandiren bizkaierazko aditzari buruzko lana (*Formas verbales vizcainas*). Biblia euskaraz ere hiru egunetan irentsi zuen –gutun batean dioenez–, ez dakit noren itzulpena, baina.

Literatura-hizkuntza lez euskara hautatu zuen eta gaztelania politikarako laga zuen. Uste zuen politikaren berbetan ehuneko hamarra baino ezin izango zuela azaldu, baina literaturan historia ikuspegi desberdinetatik atondu zezakeen eta gauzen sakonera jo. Mariok zioen narratibazko beste formulen bitartez bakarrik gainditu zezakeela Euskal Herriaren arazoaren politika-hausnarketa. Bide batez, euskal literaturaren testu klasiko guztiak aztertzerakoan, eurretan nazio kontzientziaren aztarnak aurkitu nahirik ibili zen Arana Goiri anaiek baino ehundaka urte lehenagoko autoreetan.

Kartzelan zelarik, Mariok nobela bi izkiriatu zituen: *Elurtzan datzaten zuhaitz enborrak*, 1973an karrikaratua *Jon Lariz* izengoitiaarekin, non Kafkaren ildotik gura izan zuen bideratu lan hau. Eta bigarren nobela *Ez gaztanberak hezurrik* izenekoa. Joyceren joeretan nahi izan zuen bere idazkera murgildu. Nobela hau Bilboko aurrezki kutxa baten sariketara aurkeztu zuen kartzelatik irten eta gero, eta ez dakigu hartaz beste ezer, nahiz eta ibili nintzen han galdezka. Agian, kopia bat Euskaltzaindiara ere igortzen zutenez kutxakoek, han agertu daiteke noizbait.

Hamar itzulpen egin zituen Mariok Caceresen eta Kordoban. Eurotan, lau Karl Marxenak izan ziren eta denetatik argitaratu zen bakarra kartzelan zelarik: *Bonaparteren "Burmaire"aren hamazortzia*, 1973, Lur argitaletxean. Beste lan bat Althusserrena; A. Vachet kanadiarrarena beste bat; Bertoldt Brechten teatroa; Erns Fisher austriarra, eurokomunismoaren aitaponteko nagu-

sienetako baten lan bat; G. Stiehler-en bat. Medikuntza liberalaren kontra beste lan bat. Ikusi lan honen giblean den Anexoa, Marioren euskarazko liburuekila. Lan hauen originalak Lur zenean egon ziren, gero Hordago-n eta azkenik, gurasoen Eibarko Amañako etxeko ganberan. Euskarari buruzko lanekin, historia gehi ekonomia, eskuz eginiko euskal hiztegiak eta sintaxiaz lan arras interesgarria. Mario hil eta gero karrikaratuak izan dira gehienak Hiria argitaletxea zenean.

Kartzelan zegoelarik, Lur argitaletxeko arduraduna zen Enrike Villar zenarekin harreman estua izan zuen Mariok. Izan ere, kartzelatik irtetzerakoan Marioren asmoa Lur argitaletxearen ardura hartzea zen, Villar nekatuta zegoelako, baina ElAko buru hautatu zutenean, asmo hori bertan behera geratu zen. Dena dela, kartzelan zelarik zituen asmo batzuk aitzinera eraman zituen karrikaratzean. Hala nola, aldizkari bat sortzea, *Ere* izanzen zena eta baita argitaletxea ere, Hordago izenarekin. Kaleratutakoan, *Zeruko Argiarako* astero izkiriatzen hasi zen, sinatu gabeko ekonomia eta lan munduko lanetan.

Literatura borborka buruan zebilkion irudimena menderatzeko eta erakusteko modua zuen, eta baita hizkuntza berri bat sortzeko modua ere, kartzelan sakonki irakurritako klasikoen sintaxian eta hiztegian oinarritutako nobelak eraikitzeko. Bereziki, lapurtera eta behe nafarrerak funts gisa zuen euskara batu berria. Gaiari dagokionez, askatasunaren egarria errepikatzen da bere lanetan, emakumearena, presoarena, etorkinarena, fraidearena. Liburu batetik bestera, gai desberdinak baliatu zituen, teknikak aldatu egiten zituen eta hizkuntza maila desberdinak jorratzen saiatzen zen.

Laurogeigarren hamarkadan, bost nobela eta ipuin liburu bat argitaratu zituen garaian, hitzaldiak han hor hemen eman zituen literaturaz eta hizkuntzaz. Mundu osoko literaturaren ezagutza zabalak ikuspegi zorrotza eman zion, euskararentzat mesedegarria zena. Europako korranteetan kokatu nahi izaten zuen gure literatura, aurrekoa eta egungoa. Gai hauetaz berrari entzun nizkion zenbait gauzatan bi azpimarratuko nituzke: Iparraldeko literaturari garrantzi handia ematen zion behin eta berriz, haien klasikoak irakurri eta ikasi behar zirela beti errepikatzen zuen eta baita lortu ere egin zuen Hordago argitaletxeak hainbat klasiko karrikaratzea. Bestea, euskara batuak beste euskalkiak ezagutzeko eta ulertzeko balio izan digula.

Euskararen arazoak, Mariok zioenez, hauek ziren: batetik, hizkuntza aurre-indoeuroparra da, kultura-testuinguru indoeuroparrean. Eta bestetik, hizkuntzaren barne arazoa, bospasei euskalkietan zatikatua dagoelako. Dialektoen batasuna 1968an hasi zen, arau amankomunekin, Mariok zioenez, emaitza da euskara estandarra –literarioa gaizki deitzen dioguna, alde-rantzizkoa baita, zioenez– eta zera ekarri zuen, idazle izan gura zuen belaunaldi oso batek lana egin duela arauok bete nahirik eta, gainera, modu sortzaile batean.

Hizkuntzaren Batasunaz

Mario Caceresko kartzelan zegoelarik klasikoak irakurri zituen eta gero nobelak izkiriatzen eta itzultzen hasi zen. Baina baita euskara ikertzen eta euskara batuari buruz teorizatzen ere 1972 / 3an. Hona hemen bere teorien laburpen handia eginez, bere hitzak:

XVI. mendetik XIX.aren amaierara arte erlijio liburuk baino ez zituzten izkiriatu eta argitaratu, euskararen arazoaz hizkuntzarekiko kontzientzia eza zutelako, hau da euskarari buruz erdaraz argitaratzen zuten. Klasikoek –batez ere Leizarragak– euskal jøskera berri bat kreatu zuten, euskara egokituz zer nahi eskribatzeko euskaraz, euskara kulturaren, literaturaren eta zientziaren lanabez bilatuz. Eta sintaxi berri honek ez du “jatorra” ukatzen. Gainditze bat egiten dute.

Garbikeria euskaraz jabetu zen dagino eskritore guztiek edo inportanteenak erabili zituztela Leizarraga / Axular jarraitu eta ez Astarloa. Euskara aurreratuenak, egokiena, gaiena hartu. Astarloak klasikoen kontrako boikota: idatzi, mintzatu bezala egin behar da. Ez daude sintaxis bi, jatorra eta bestea “alienigena”. Biek elkar osatzen dira. Euskara landu beharko da, sintaxis korapilotsuago bat behar da, esaldi eta arrazonamendu korapilotsuagoak egiteko baina oraingoa, mintzatua, baztertu gabe.

Hego Euskal Herrian Larramenditik beti gaizki ibili gara. Gatazka politikan egin beharrean, euskararen etimologian eta etorkia aztertzen eta eztabaidatzen nahi izan dugu egin. Nik ez dut iraultzarik proposatzen hizkuntza kontuetan, baina aitzitik, mende honen (XX) hasieran egin zen etendura euskarari alde batera utz dezagun proposatzen dut. Iraultza horretaz uko egin dezagun eta lotu beti eskribatu den euskarari, Etxeparek, Leizarragak, Axularrek, Etxeberri biek erabili zuten euskara har dezagun eta ez beste berri bat asmatu.

Euskarari kalte gehien egin diona, debekuak eta pertsegizio ofizialez geroztik, horrelako jende mota izan da, garbizaleek. Autoreak dira inportanteak, ez dute euskalki baten idazten, nahastu egiten dute. Eskritore zaharrek, klasikoek hurbiltzen gaituzte eta bateratu. Euskalkiak, elkar bereizi eta separatu, hesiak dira. Mogel eta Leizarraga hurbilagoak dira beren euskalkiak baino.

Euskara bateratzeko, klasikoen bidea iriki behar da. Ez gara hurbilduko, bat eginen baizik. Prolema, euskara literarioa sortzea da, ez dialektoak hurbiltzea. Euskara bateratu eta gainera, euskara hizkuntza literarioa bihurtu. Hegoaldean, duela larøgei urte [1890 inguruan] etena klasikoengandik ematen da. Ifarraldean, zorionez, gertatu ez zena.

Herriaren prolemari zehatz erantzungo dion literatura, nobela, saioa, filosofia, erlijio lanak... Euskal literatura ez da altxako, honi erantzuna ematen ez badiogu. Bi problema:

- Euskera literarioa egiteko, euskal literatura egin behar da eta ez gramatikak eta hiztegiak.
- Literatura herrikoia izateko, herriak egun dituen problemei ihardetsi behar die.

Euskal Herrian, euskal literaturak izan dituen gorabehera guztietan, mugimendu politiko eta sozial bati elkaturik izan dira. Leizarragak euskara erabili zuen, euskaldunak kalbinista bihurtzeko. Axular eta Tartasek, Trentoko Kontzilioaren ondoko literatura egin zuten, katolikoak bezala. Euskararen korrante literarioak beti egon

dira loturik mugimendu sozialei. Lehen aldiz, euskarazko hitz eta orazio-mota guztietaz baliatzen dira, batez ere, Leizarraga.

Hauek guztiak, gainerako eskritore guztiak baino literatura gehiago ekoizten dute, eta hizkuntza mintzatu batek literario egiten dituen problema guztiak soluzionatu. Geroago, ez dute euskara erabiltzen ideologia eta kultura bat kreatzen, baina euskara bihurtzen dute ideologia eta bere balio ideologikoa baizik ez dute ikusten.

Bigarren prozesu hau aldeaz kaltegarri, eta aldeaz onuragarri izan da euskararentzat. Larramendi, Astarloa, Novia Salcedo, Arana Goiri, Orixe, Lizardi etab. etab. Baina hegoaldez, denaz bezanbatean, balio politiko honek, bere balio linguistikoa gaingiditzen du, jan egiten du, eta garai batetan mintzatzeko eta eskribatzeko ez deus bihurtzeko arriskuan jarri zuen.

Gure aurretiko iraultza guztiak arbuiaitu behar ditugu, zeren bestela iraultza baten korrontean jarraitzen kausitzen dugu. Euskarak mende honen (XX) hasieran iraultza jasan zuelako, Arana eta Azkue gidari zituelako.

Batak: euskaratik, Larramendi, Astarloa, Novia Salcedo eta abarretik zetorren korronte bati jarraituz, erdal kutsu zituzten hitz guztiak zokoratu zituen. Besteak, korronte berari darraikiola, baina moderatuagoa izanik, hitzekin orobat egiten ez bazen ausartu, orobat egin zuen orazioekin, "alienigenatzat kondenatuz". Euskara literarioa ez da sartzen erreka zuloetako baserrietako hizkuntzekin, baina frantsesa eta espainolarekin, hau da, gainontzeko hizkuntza literarioekin.

Zer eskribatu zuen Azkuek euskaraz, zer euskarari buruz? Euskaraz deus guti eta gehiena herriaren ahotik hartu eta berak apainduta. Euskarari buruz? Gehiegi, larregi. S. Aranak bestalde, bere garaiko eta handiagoak egin zituen; hain garbitu eta xahutu zuen euzkera, non ezin baitzen balia beretaz euzkaldunei zein zen bere aberria erakusteko, tituluak eta erakundeen slogan eta izenak jartzeko baizen ez zuen balio haren eskutan. Eta hori ezin bestez zen, itzulpiderik gabeko karrikan sartu zuelako bere burua, eta ez garai hartan euskara karrikan jendartearen kausitzen zen egoera eta mailaren kariatz.

1950 aldian prestatzen da lehen aldiz euskararen bateratzea klasikoak jarraile eta iruditatzat harturik egin behar dela. 1960 hamarkadan, mugimendu politikaria goraka ari denean, "batasuna" euskararen hitz entzutetsuan bilakatuz doa. 1968a da gaurdagino prozesu bi hauen tontorra. "Batasunaren Kutxa". Bultzada izugarri honen ondoan arriskutan gaude bat bedera bere euskalkian gelditzeko, duela hamar urte baino hurbilago baina gipuzkera, bizkaiera etab. izaten diraun hizkuntza batetan. Orain urrats egiten dugu, klasikoak izan ziren bezala onartzera eramaten gaituen urrats bat, ala behin betirako gelditzen gara egungo egoera honetan.

Gomutatu nahi dut Mariok hau 1972 / 3 inguruan izkiriatu zuela.

Idazleen ardurak 60. eta 70.eko hamarkadetan hizkuntzaren normalizazioa da; lehenengo gramatikak eta gero, lengoaiaren ariketa praktikoak diren nobelak idatziz. Gramati-

kariak dena arautu nahi izan zuten, eta horrek literatura lar lotu egiten du. Eta Akademia garai batean eztabaidan aritzen zen berak Mariok aurretik erabaki eta konponduta zituen gauzetaz, batez ere sintaxi erakoak –mendekoen kasua–. Berak klasikoei jarraitzen zien, Mariok zioenez.

Batua ikasleen argota izan zitekeen, narratiban ofizio edo lan bakoitzeko berezko hizkera topatu beharko litzateke, zioen Mariok, euskara literarioa erabili arrantzaleen, laborarien edo hiriko pertsonaien argota erakusteko, eta hori menderatzeak herri honen historiaren benetako egoera ezagutzera eramango gintuela.

Hasieran, zioen Mariok, euskarazko literatura gauza guztiz aseptikoa zela, andereñoen berbeta, eta apurtu egin behar zela. Apalak izan behar genuela, egiten duguna agian ez da oraindik literatura. Mariok Saizarbitoria aipatzen zuen. Honen arabera, Kafkaren antzeko bat jaiotzeko ehundaka lagun behar da formularioak euskaraz betetzen gogaituta, aseguu etxe edo udaletxeetan.

Mariok esaten zuenez, Arestik eta bere taldeak batasunaren eta dibulgazioaren gogoia izan zuten. Berak esaten zuenez, euskarazko literaturan harroegiak ginela, edo egundoko obra galanta egin, edo batere ez. Lar puristak, horretan ere. Berak zioen hirurogei urterekin eginen zuela berak *Kixote* moduko lana, eta bien bitartean hizkuntza, gaiak, egiturak eta abar menderatuko lituzkeela. Baina asko emandakoa eta oraindik asko ematekoa zena gazterik joan zitzaigun.

Euskal literatura guztiz intimista izan da, zioen –adibidez, *100 metro*–. Errealitatea, erdaraz egiten da. 1970-1985 tartean egin den literatura, intimista izan da. Euskara pulpitoetan, tabernan eskatzeko, euskaraz eta euskal literaturaz hitz egiteko erabili izan da; baina errealtatea, kanpoko, erdaraz zela guztia.

Nobela intimista subjektibotik objektibora bilakaera egon behar da, Faulknerren bidetik. Gure aitona-amonen literatura ezaren bila. Euskal literatura nerabeen gauza izan da, intimista, hizkuntzaren egoera erakusten duena, pentsatzeko erabiltzen dena, baina ez adierazteko zena. Hizkuntza egungo Euskal Herriko errealtate historikora egokitu behar da, edo gauza historikoak egin, nobela historikora jo.

Proust, Kafka eta Joycek objektiboa eta subjektiboa batu egin zituzten, narrazio berean, eta horrela kontzientzia indibiduala eta errealtatea, gauza bera dira zioen Mariok. Ez dago istorio neutrorik, denek nahi dute politika edo ideologia bat legitimatu.

Euskal literaturak, hirurogeiko hamarkadatik, berrikuntza guztiak nahi izan zituen bereganatu –Camus zenetik, *nouveau roman* zenera, Lezama Limatik García Márquezera– eta hizkuntzagatik, intimismora jo du, barne bakarriketara. Horregatik jo zuen Mariok Erdi Aroa, agertoki neutralera, lapurtera klasikoa egokia eta normala izan zitekeen garaira.

Euskarazko sorkuntzak duen garrantzia ez zela ikusten esaten zuen. Hizkuntzak aurrera egin dezan, ehunka lan eta zinema gidoi idatzi behar dira. Ez da nahikoa nobelak eta gidioak

itzultzea. Euskal literaturarik ez badago, ez dago euskal zinemarik, eta zinemaren arazo nagusia ez da bere egiturarena, aurretiko oinarri literario ezarena baino.

Gaelikoak Irlandan ofizialtasuna lortu zuen, baina ez zegoen sorkuntzarik. Latina eta grekoa bezala, funtzionarioek ikasi behar zuten zeozer zen. Eta horrela ez da berbeta bizirik lortzen.

Euskara gaztelaniaren mailan jarri behar zela, alor guztietan, zioen. Literaturan lortuko balitz, euskararen eta Euskal Herriaren arrakastarako izango litzateke. Literatura, hizkuntz politikatik desberdindu egin behar da eta premia politikotik bereiztu. Literatura politikaren mende balego, politikaren kalterako, eta gainera politikak kaltea eragin diezaioke literaturari.

Honen ostean, euskal literaturak aldaketa izan du azken urteotan, lehen gramatikarien idazkera zen euskara batua, eta normalizazioaren ardura zeukaten. Hauen erreleboa, euskara hizkuntza literarioa legez darabilten idazleak dira. Gramatika aldetik, batua sortu zen. Orain, apurtu egin behar da, hizkuntza literarioa ateratzeko.

Bere idazkeran horrekin apurtu nahi zuen. Mariori euskara klasikoa interesatzen zitzaion bere bi adierako elementuak direla eta, iradokitzen duenagatik. Euskalkietan bezala. Idazten zuen edukiak berak dialekto bat edo bertzea erabiltzera zeraman. Aseptikoa zeritzon batua, horregatik klasikoa eta ahozkoa sartzea nahi izaten zuen.

Bere nobeletan antzeko gaiak zerabiltzan beti, askatasuna edo instituzio edo indarraren aurkako borroka, askatasuna lortzeko. Hala nola:

- *Elurtzan datzaten zuhaitz enborrak*: preso baten askatzeaz ari da.
- *Grand Placen...*: neska baten liberazioa, bere buruaren jabe izatera heltzen dena, bera itotzen duten instituzioekin etenez. Aberriarekiko sentimendu kontraesankorra nahi zuen erakutsi. Sentimendu antagonikoa, gure nazionalitatea "sendotu" eta maitasuna / gorroto sentimenduak erakutsi, Joycek Irlandarekiko bezala.
- *Gilen...batxilera*: argi eta garbi, iniziatikoa. Gizon baten izaera nola garatzen den, maitasunari esker.
- *DelRinconen motorra*, etorkin bat marjinaziotik irten nahirik.
- *Olagarroa*: preso baten ihesa.
- *Gela debekatua*: emazte batek senarraren munduaren mendetik irtetzeko asmoa.

Zertarako errepikatzen zuen galdetuta, hobeto egiteko, esaten zuen. Esperimentalismotik urrun, osoki literarioa. Jakinik euskaraz ez dagoela literatur hizkuntza bakarra, material linguistiko guztiaren egokitze partikularra –klasikoak, euskalkiak– egiten ahalegintzen zen.

Gero eta hobeto eginez, hasieran nahi zuen nobelatik urruntzen zen. Bide luzeagoa beharko zuen. Euskal literaturak galdutako garai kultural bat berreskuratu nahi zuen. Literatura unibertsalak eman zituen pausoak eman behar dira, zioen.

Euskarazko literaturari tradizioa eta kritika falta zaizkio. Eta baita idazle eta kritikoen arteko hartuemana ere. Ez dugula europar korrante historiko literarioetan ia ordezkariarik. Hau

da, ez dugula tradizioz gure hizkuntzan, euskaran. Baina tradizio literario eza edozein idazleren problema da, ze literatura guztietan tradizio eta kritika eza hein batean ia beti gertatzen da, eta idazleek konpondu beharreko lana da, beste hizkuntzetako idazleekin harremanak izanik.

Laurogeiko hamarkadan nahiko hitzaldi eman zituen euskal literaturaz, bakarka edo beste batzuekin, baita mahai inguruetan parte hartuz ere. UEUn ere izan zen, politikaz mintzatzen (marxismoaz, zehazki). *Egunkarian* ere artikuluak plazaratu zituen 1992tik 1999ra eta eurotatik hogeita hiru, *Astejorran* izeneko sailean: orri osoko kolaborazioak egiten zituen, 1994ko urtarriletik 1996ko ekainera. Eta *Oh! Euzkadi* izeneko pentsamendu eta eztabaida aldizkari kulturean ere kaleratu zuen lan luze bat.

Hizkuntzari dagokionez, eta nahiz eta gehienetan politikaz aritu izan, Euskadi Irratiko mahai inguru batean ere parte hartzen zuen, astero. Hori urte betez edo izan zen, laurogeiko hamarkadaren azken aldera, 1988. urtearen inguruan.

Idazlea eta Irakurlea

Mariorentzat ekintza politikoa ekintza intelektualaren zatia da: Soziologia, Ekonomia, Filosofia, Historia, Literatura... Literatura, mundu politikoa ikusteko beste modu bat da. Literatura eta politika, kulturarekin bat eginda ikusten zituen. Eta orokorrean, mentalitateen historiarekin eta gauzak aldatzeko bideekin. Gauzak idazten hamasei urterekin hasi zen, "mundu guziak egiten duen legez" eta hogeirekin, bizitza politikoa argi zeukan. Kartzelan, mundu kulturalaz arduratzen hasi zen eta 1973an *Elurtzan datzaten zuhaitz enborrak* idatzi zuen.

Gauzak kontatzea bere zaletasun zaharrena zen. Eta begiak zabal-zabalik behar zituela eduki gauzen aurrean, gero besteei ikusitakoa –bizitzan edo filmetan– kontatzeko. Gertakarien lekuko izan behar zuen, gero kontatzeko. Bertan egon, kontatzeko, idazteko. Beti izan zuen sentsazio hori, berak zioenez. Hamasei-hamazazpi urterekin, berriro Eibarren, kezka berriak, irakurtzea, izkiriatzea, kulturzaletasuna. Cultural Arraten bizimodu kultural sakona ei zuten.

Bere obsesioetako bat astia aprobeitatzeko izan zen. Ikastea zen bere pasio nagusia. Hamazazpi urterekin ikasi nahi zuen egin, baina etxean ez zegoen dirurik. Bankuan lanean zebilela, hizkuntzak ikasten hasi zen. Bilbora hemezortzi urte zituela etortzen zen, Gabriel Aresti, Luciano Rincón, Agustín Ibarrola eta abarren tertuliara.

Kartzela ikasteko aukera izan zela beretzat, zioenez. Klasikoekin liluraturik zegoen. Batetik denbora galduko zuela bazekien, baina bestetik, jakituria hartuko zuela. Goizeko zazpietatik goizaldeko ordu biak arte, irakurri eta irakurri ibiltzen zen.

Unibertsitatean matrikulatu nahi izan zuen, baina oztopo asko jartzen zizkieten. Salaman-cako Unibertsitatean, gero Cacereskoan, baita Kordobakoan ere egin izan zituen ahaleginak, baina, ezin. Azkenean, lortu zuen, UNEDen, Filologia Hispanikoan. Linguistikarako joera eta afizioa zuen, ez euskaragatik soilik, gizartea ezagutzeko paradigma zena ikertzeko erabili-

tako zientzia zelako baino, eta komunikazioak zituen berezko zailtasunak zirela eta. Urtebetez ikasi zuen filologia, baina azterketa Bruselan –kanporaturik zegoela– egin zuen.

Bere literatura-liburuek bi iturburu dituzte, hizkuntza literarioa euskaraz sortu nahia, eta bizitza eta literaturatik ikasitakoaren adierazpena. Irakurleengan sentimenduak esnatzea interesatzen zitzaion, eta, horretarako, nahitaezkoa da norberak sentimendu horiek bizitzea.

Gauza asko bizi izan zituen aurretik jakinik horretaz idatziko zuela. Gauzak gertatu ahala, idazteko zer joko ematen duten begira egoten zen, eta gauzak asmatu egiten zituen. Txikitatik izan zuen joera hori. Istoriok asmatzen zituen –autoan, edozein tokitan– edota egoerak bizi, gero hartaz idazteko. Idazten hastea pentsatzen denetik gauzak beste modu batera egiten dira, arreta ipini, gero idazteko. Ez zuen literatura kontsideratzen gauza bakarra bezala. Beste gauza batzuk ere, literaturarekin batera egiten zituen. Beti egin zuen nahi izan zuena. Horregatik gustatzen zitzaizkion amerikar idazleak, gerra garaian Europara etorri zirenak. Ikusitakoaz idatzi zuten. Ikusitakoaz izkiriatzea zaila izaten da, eta asmatzea, gehiago.

Idazlea izateak bizitzeko era bat dakar, Marioren ustez. Egoera askori edo sentimenduei ez zien besterik barik ihes egiten uzten. Gero idazteko aprobeixatu egin behar direlako. Baina, kontatzen jakin behar da.

Bidaia asko, toki askotara egin zituen, lagun asko ezagutu, eta mundu askotakoak. Euskarazko idazle mordoa ezagutu zuela esango nuke eta puntan ibilitako dezente euren artean. Gazte gaztetatik Gabriel Aresti ezagutu bazuen ere, kartzelatik atera eta haren inguruan –eta Enrike Villarrek zuzentzen zuen Lur argitaletxearen hurrean– ibilitako idazleekin izan zuen harreman sakonik: Ramon Saizarbitoria, Arantxa Urretabizkaia, Ibon Sarasola, Luis Haranburu Altuna, Xabier Kintana, Xabier Gereño.

Edo hauen aurreko belaunaldiko batzuk, hala nola, Juan San Martin, Federiko Krutwig, Txillardeggi. Edo Anjel Lertxundi. Baita Pott Banda izan zenaren partaideak ere, Jon Juaristi, Bernardo Atxaga, Joxemari “Jimu” Iturralde (Jimurekin eta Juaristirekin Desclée de Brouwerrek atera zuen gazte literatur sortan itzultzaile ibili zen Mario, eta liburu bana Durangon aurkeztea tokatu zitzaion: *Pic Nic zuen arbasoekin*, eta *Del Rinconen motorra*), eta Manu Ertzilla –*Grand Placen aurkituko gara* aurkeztu ziona Bilboko Herriak liburu-dendan–.

Hurrengo edota ia belaunaldi bereko batzuek aipatzeagatik, Felipe Juaristi, Patziku Perurena, Jon Kortazar, Mikel Hernández Abaitua, Tere Irastorza... edo gazteagoetan, Iván Igartua. Hemen batzuk baino ez ditut aipatu. Berak literatur munduari zion estimua eta ematen zion garrantzia erakusteko.

Espainiako literaturgileekin ere izan zuen ezaupidea. Bat aipatzekotan, Juan Benetek –gaztelaniazko literaturaren berritzaile nagusienetakoa zenak– idatzitako *Herrumbrosas Lanzas* saileko hirugarren liburua Mariok aurkeztu zion Madrilen 1986an. Edo Javier Marías, Soledad Puértolas, Juan García Hortelano, Luis Mateo Díez, Álvaro Pombo... Literatura galegoko Manuel Rivas, Suso del Toro, Antón Granderekin ere izan zuen hartuemanik, eta katala-

nak –Montserrat Roig, Valentín Puig– eta asturiarrak ere ezagutu zituen Verinesen egiten ziren topaketetan.

Astean lau liburu irakurtzen zituen, batez beste. Baina gogoan dut aldi batean, nola komentatu zidan egunean liburu bat irakurtzen zuela. Uste dut, 1985 eta 1988 bitartean izango zela, Idazkari Nagusi izateari utzi zionean. Berezko erraztasunari eta zaletasunari gehitu behar zaio azkar irakurtzeko metodo-liburua irakurri zuela kartzelan, eta horrek ere lagundu zion. Lo gutxi egitekoa izatez aparte. Egunean bost bat ordu egiten zuen lo. Eta gava heltzen zenean –beste Onaindia asko legez–, ez zuen logurarik izaten. Galizian, horregatik, esaten zioten deitura “Onain-dia” izan beharrean, “Onai-noche” izan beharko lukeela.

Nobela bat idazteko zuen modua honela zen: gai bati buruz irakurri ahal zuen guztia, hilabetetan. Gero, jo eta su idazten zuen nobela, egunean hamar eta berrogei orrialde tartean eginik. Eta gero, orraztu. Aldi batean pentsatu, eta idazten hasi, ahalik eta arinen. Kolpean, gero zuzendu eta leundu. Ezin zuen egunean orrialde bi idatzi.

Hizkuntzekiko interes handia zuen. Kartzelan, hamabi hizkuntza inguru estudiatzen eta aztertzen saiatu zen: euskara, ingelesa, gaztelania, frantsesa, alemana, grekoa, hungariera, latina, okzitaniera, galego / portugesa, italiera...

Zer idatzi nahi zuen jakin bazekien, literatur ideiak argi zituen, argi azaltzen ditu sortutako munduen pentsaera eta azalpena, buruan argi zuen gura zuena eta ezaugarri birekin idazten zuen: kutsu zaharkitua eman lanei, klasikoak izan zituelako maisu, eta narratibagintzako hutsuneen kezka betetzen saiatu. Sintaxia ondo menderatzen zuen eta kontatzen bazekiela esango nuke.

Caceresen isolaturik zeuden Mario, Teo Uriarte eta Jose Luis Zalvide. Barruan bizi zuten egoerak ez zuen kanpokoarekin zer ikusi handirik. Horregatik, Kafka ikusten zuen Mariok arazoak planteatzeko autore egokitizat, problematikagatik eta hizkuntza klasikoagatik, aleman klasikoz idazten zuelako. Barruan zeuden ezkertiarrentzako arazoa zen aitarekin –jeltzale alderdiarekin– nola eten, baina tradizioa ukatu barik. Egoera kafkiar hartan nortasun arazoa zuten, errealitatea nola enfokatu modu objektiboan.

Narratiba berriaz, ukitu esperimentalaz, kortserik bakoaz ere pentsatzen zuen, bere fantasiekin beteriko mundu literarioa eraiki nahirik, literaturaz maitemindurik zegoelako, beste gauza gehiagorekin batera.

Idazlearentzako, estiloa planteatzea, traizio kulturala planteatzea da, esaten zuen Mariok. Irakurlearen konplizitatea bilatu behar du erkide diren erreferentzia kulturalekin. Baina literatura denbora-pasatzat jotzen zuen, idatziz betetzen den afizioa. Sakontasunaren eta esentziaren transzendentzia eman nahia ekintza literarioaren mugetatik irtetea zela esaten zekian.

Autoreetaz mintzatzerakoan, kontuan hartu behar da asko eta denetarik irakurri zuela. Cacereseko zuzendariak senideei aitortu zien bisita baten harriturik zegoela hirurek irakurriko guziarekin. Hiru mila liburutik gora bost urteetan.

Idazle bat irakurtzeko bere modua totala zen. Hau da, lan bat irakurri eta gustatzen bazitzaion, Mariok bere lan guztiak irakurtzen zituen, eta baita hartaz zegoen guztia ere.

Itzulpena

Itzulpenak garrantzia handia zuen Mariorentzat. Bazekien katalanek hamar urtetan literatura unibertsaleko autore nagusiak itzuli zituztela eta bera ere itzultzen hasi zen. Ikasten zituen autoreek, euren joskeran malgutasuna eta dotoretasuna erabiltzen zutenek ziren, bazuten hizkuntz komunitate baten partaide izatearen kontzientzia argia. Gainera, Arana Goiriren eragina euskarazko kulturari tipiagoa eta negatiboagoa zen, Axular edo Leizarragaren aldean, izkiriatu zuen Mariok. Garrantzitsuenaren zen klasikoetan ideologia desberdinetakoek (kalbinista, katoliko edota Salamancako neoeskolastikoek) euskara baliatu izana euren ideiak elkarri adierazteko. Leizarraga eta Axularrek hizkuntzarekiko maitasunagatik izkiriatu zuten, baina ez horregatik soilik, baita euskaldunak euren doktrinetara erakartzeko ere.

Sintaxi eta hiztegi arazoak konponduak zituen Mariok. Baina lexikoarena, ez. Hiztegiak egin zituen izkiritzaile klasikoetaz. Autore-hiztegiak. Aski aitzinatuak zituenean, jakin zuen Villasantek Axularri buruz eta Arestik Leizarragaz eginak zituztela. Kartzelan egoteak zekarren informazio guti baliatzeak... Bere hiztegi mailako lanak gidatzeko, Lur zenara igorri zituen bere iritziak. Eurek, Gabriel Arestiri bidali zizkioten. Eta Arestik, hamabi orrialdeko gutuna igorri zion Mariori. Han esaten zion hizkuntzaren batasuna centro-sinistra eta misinoren arteko borroka zela. Hau zen, italiar adibidea erabilita, ezker-ertainekoen eta faxisten (MSI) arteko gatazka. Lehenak, argitaletxeak ziren, Lur-ekoek, alegia eta besteak H-aren arerioak zein Txillardegi. Dena dela, Leioan egin ziren hizkuntzari buruzko jardunaldi batzuetan, Mitxelena ihesi ari zitzaioela uste izan zuen. Txillardegi, osterara, berarengana joan, eskua eman eta hizketan aritu zen.

Beraz, gaztelaniaz lan politikokoak izkiriatu zituen, zortzi liburu, eta, liburu kolektiboetan, parte hartu zuen lan luzeagoak eginez. Liburuetan, bere oroitzapenen biga liburu eta lan zinematografiko gehienak. Salbuespen gisa, bi ipuin gaztelaniaz, bata *El País Semanal* delakoan argitaratua eta bestea, *El Halcón Eibarrés* izenekoa José Luis Borauk zuzendutako ipuin bilduma batean (*Cuentos de Cine*. Alfaguara, 1996); teatro lan tipia, *Gora Kaperu!* izenekoa eta, lehen erran bezala, gaztetako poemak.

Euskaraz zazpi nobela, ipuin liburu bat, komiki baten gidoia izkiriatu zituen. Bestalde, hamalau itzulpen egin zituen: Karl Marx, Althusser, Ideologia Liberalaz, Medikuntzaz, Hegeletaz, Judith Kerr, Sakiren ipuinak, Brechten teatro-lanak eta komiki bi. Ikusi lan honen azkenean datorren anexoa. Euskal Klasikoen Sintaxiaz lan izigarri interesgarria egin zuen. Guzti hauek Euskaltzaindiaren eskuetan daude.

Zinemaz aparte, literaturaz ere eman zituen klaseak Mariok, Ziklo Arturikoaz eta narratziogintzaz. Eskolak Madrilan, eta Gasteizko Unibertsitatean (EHU-UPV) eman zituen.

Zinema

Gaztetatik izan zuen zinemarako zaletasuna. Lekeition sarri joan ohi zen eta Eibarren, ganbera zegoen tokira sartzen zen eta handik film mordoa ikusi zituen. Ni ere, mutikoa nintzela, joan nintzen behin hara gora berarekin, eta ganbera edo kamera toki hartatik, filmak ikusi genuen.

Filmak Mariok gidoiaren egituratik ikertzen zituen. Amerikar zine klasikoaren arau narratzaile eta dramatikoak estudiatu zituen. Estrukturalismotik abiatutik, hizkera doktrina eta analisi sistema lez harturik, kriterio estrukturalista horiek film bati aplikatu nahi zizkion. Lehen, ehun gidoitaz asko idazten zen, baina Mariok kriterio estrukturalistak ikertu eta aplikatu zituen. Lan asko egin zuen Wilder, Hawks, Houston, Hitchcocken hogeita hamalau filmetaz. European, honen antzeko lanik ez da egin, berak zioenez.

Literaturaren printzipioak nahi izan zizkion gidoiei aplikatu, bere berezko teoriaz. Zinemak Mariorentzat oinarri aristotelikoa du. Gidoi klasikoak ikuslearen identifikazioa protagonistarekin sortu nahi du, eta bi modutara egin daiteke, fokalizazioaz: ikusleak eta protagonistak informazio berbera izan dezaten, edo egiturak errepikatu gidoian eta anbiguitasunak deuseztatu, eta horrela ikusleari askatasuna kendu. Beharrezkoa izanen da literatura eta zinea konparatzen dituztenentzat, baita gidoiak idazteko ere, edota filmen azterketa egiteko.

Elementu batzuk errepikatu egiten dira: metaforak, metonimiak, sinbolismoa eta figura estilistikoak, baina ez da inoiz seriozki aztertu. Zinea ezaguera teorikotik atera eta literatura analizatzen den bezala egin behar da. Beti egon da bien arteko lotura estua. Inoiz, literaturaren fama aprobetxatu egin du zineak.

Nobelak idaztea psikiatrarengana joatea bezalakoa zela esaten zuen. Teatroa, oso konplikatu iruditzen zitzaion, nahiz eta asko gustatu. Gidoiak idaztea prozesu oso betea da, zehazturik dagoena, pauso batzuk segitu behar dira. Disziplina asko eskatzen du. Ia, ia sonettoa idaztea legez da, berak zioenez.

Belgikan kurtsoa egin zuen, gidoiak ikuspegi teorikotik ikusiz. Nobela idazteko gaitasunak zinemari aplikatu zizkion. Frank Daniel, zuzendari eta gidoilari txekiarrak –Mariok 1988ko Donostiako Zinemaldian ezagutu zuena– eskolak eman zizkion Ostenden, Bruselan, Bartzelonan, Dreikirchen eta Berlinen. Lubitsch edo Wilderren filmak nola analizatzen zituen ikusteak liluratuta zeukan. Mundu berri bat aurkitu zuen. Gehien estudiatu zituenak: Hitchcock, Hawks, Houston, Ford, Wilder eta Lubitsch. Euren film guztiak ikusiak zituen, behin baino gehiagotan, eta gero eta gehiago gustatzen zitzaizkion.

1987an hasi zen dena. Mariok eta Fernando López del Castillok idatzitako “Puede que viva eternamente” izeneko gidoiak Flandriako FEMlren saria jaso zuen, ehunka lanen artean. FEMlik europar zinemaren maila nahi du jaso. Frank Daniel Pragako Zinema Eskolaren zuzendaria izan zen, 1968an, gaitasuna, Frank Danielekin bi urtez lan egin ondoren lortu zuen Mariok.

Gero, tesia egin zuenean Ingeles Filologian, aurretik pentsaturik zeukan gaia, *Sir Gawain eta Zaldun Berdea* laga egin zuen eta hau egin zuen: *Lengoaia filmikoa garai klasikoan: Billy*

Wilder. *Cum laude* guztien adostasunez eman zioten. Viridiana Fundazioak ateratzen zuen aldizkarian 1991tik 1998ra film kritikak argitaratu zituen. Gaztelaniaz. Eta aurretik ere, Bilboko *Arbola* eta *Pergola* izeneko aldizkarietan atera zuen kritikarik.

Madrilera joan zen bizitzera, eta Storyboard izeneko ekoizle-etxea sortu zuten berak, Jorge Martínez Revertek eta beste batzuek. Hainbat lan egin zituen dokumentalen munduan. Hala nola, "Terrorismoaren azkena European-El ocaso del terrorismo en Europa"; "Lea Artibai"ri buruzko dokumentala egin zuen TVEk eskualdeei eskainitako serie baten barruan; "La habitación prohibida" ETBk eskaturik; "Crónica Amarga"; "El impuesto revolucionario", besteak beste.

Film luze baterako gidoia ere idatzi zuen: *Cómo levantar mil kilos*. Estreinatu egin zen zine areto batzuetan, baina banaketa arazoak eduki zituen. Komedia, entretenigarria eta alaia zen. Beste film luze baterako gidoia badut, berak bidali zidana, *El Hijo del Pastor*. Estatu Batuetako euskaldun batzuk agertzen dira, eta intrigazko filma da.

Espainian antolatu zen lehen zinema gidoiak izkiriatzeko Master kurtsoan, Mariok gidoi klaseak Madrilako Autonomoan eman zituen, José Luis Borau eta Carlos Saurarekin batera.

Viridiana Fundazioa sortu zen, gidoiak ikertzeko eta baloratzeko. Honen bitartez, Madrilako Unibertsitate Autonomoan bederatzi hilabeteko masterra ematen zuen Mariok, gidoia film baten egitura nagusi bezala kontsideratuz. Europar zinemaren krisiaren arrazoietako bat gidoi onak ez egitea eta zuzendariak filmak egiteko duten modu hain berezia zela esaten zuen. Masterra, Mariok berak, José Luis Borauk, Mario Camúsek eta Carlos Saurak zinema-zuzendariak eman zuten. Mariok berak esanik dakit, bere ikasleetan Angeles González-Sinde zinema-zuzendaria eta ministro izandakoa eta Tricicle-ko Paco Mir izan zituela, beste askoren artean. Paco Mir-ekin behin mintzatu nintzen, Tricicle-ren emanaldi baten ostean, Arriagan bizpahiru minutuz, eta esan zidan bera oinez joaten zela Master kurtsoetara eta Mariok sarri jaso zuela bere autoan eta Fakultatera eroan.

Teatroa

Galizian fraidegai zegoela, teatroarekin izan zuela harremana esan dut. Obra asko taularatu zituztela esango nuke, eta garrantzi handia ematen zitzaiola antzerkiari, han. Eta Mario bera ere, asko zaletu zela. *Grand Placen aurkituko gara* izeneko Marioren nobela Durangoko Geroa taldeak antzeztu zuen.

Paco Obregónek egokitu zuen testua eta lana zuzendu egin zuen 1986 eta 1987an. Hasierako ideia *Gilen... batxilera* egokitzeak asmoa zeukaten. Baina, *Grand Place* belaunaldi baten manifestu gisa ikusi zuten. Askatasunaren aldeko lana, politikatik urrun eta emakume baten ikuspegitik egina. Bestetik, sekula nobela bat antzerkira egokitu gabe zeuden, eta autore garaikidea gura zuten.

Mario joaten zen entseguetara eta aportazio batzuk egin zizkien. Libertate osoa eman zien. Egokipen berritzailea egin zuten. Agertokia elipsean zegoen, argiek behetik ematen zuten

argi eta publikoa oso gertu zegoen aktore-aktoreseengandik. Hauek izan ziren: Izaskun Asua, Javier Alday, Iolanda Begiristain, Juan Luis Escudero, Kepa Gallego, Juan Carlos Garaizabal eta Manuel Moreno.

Lana, euskaraz eta gaztelaniazko bertsioetan eman zuten. Baita Madrilen ere, euskarazko saio birekin, Círculo de Bellas Artesen. Bilbon, Ayala Teatroan eman zuten. Ez da aiantzi behar kartzelan Mariok Bertoldt Brechten hiru lan itzuli zituela. Eta bere doktorego tesia Ilustrazioaz eginikoa (*La tragedia de la Ilustración española*), orduko garaietan egiten zen teatroan oinarritzen dela, orduko ilustratuek antzerkia erabili baitzuten ideiak zabaltzeko.

Hil baino urte bete lehenago, gaztelaniaz antzerki lan laburra, fartsa moduko bat, idatzi zuen: *Gora Kaperu!*

Komikia

Umetatik zaletasuna zuen. Eta gero, *Sugea Kantari* izeneko komikirako, Jose Ibarrolak marraztua, gidoia egin zuen Mariok Jon Juaristirekin. Ernesto Santolaya editorea ezagutu ostean, afizioa berriro zitzaiola esango nuke, ze liburuez gain, komikiak argitaratzen ditu lkusager argitaletxean. Komiki bi euskarara itzuli zituen Mariok: *Atea Zabaldu* (*Euskal Panpako Kronikak*) eta *Lope Agirre*. Eta Marioren semeak, Jonen (1993an jaioa), mutikoa zenean, marrazteko trebezia aparta zuen. Jonen marrazki bat da *El canto de la tripulación* liburuaren azalean agertzen dena. Esan behar Mariok kartzelan margolan asko pintatu zituela, baina ezin izan zituen kalera atera. Bat izan ezik.

BIBLIOGRAFIA

FERNÁNDEZ SOLDEVILLA, Gaizka: *Héroes, heterodoxos y traidores. Historia de Euskadiko Ezkerra (1974-1994)*. Madril: Tecnos, 2013.

– , eta HIDALGO GARCÍA DE ORELLÁN, Sara: *La unión de la izquierda vasca. La convergencia del PSE-EE*. Madril: Catarata, 2018.

– , eta HIDALGO GARCÍA DE ORELLÁN, Sara (koord.): *Héroes de la retirada. La disolución de ETA político-militar*. Madril: Tecnos, 2022.

GOJENOLA ONAINDIA, Manu: *Mario Onaindia Natxiondo. Askatasunaren alde, borrokan, idazten, umorez. 1948-2003*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurilaritza, 2012.

–: *Mariorenak*. Donostia: Hiria, 2013.

HH. EE.: *Mario Onaindia. Jornadas de homenaje. Ezkertoki de Zarautz (2004-2005) [i. e., 2004-2008]*. Zarautz: Mario Onaindia Fundazioa, 2009.

MOLINA APARICIO, Fernando: *Mario Onaindia (1948-2003). Biografía patria*. Madril: Biblioteca Nueva, 2012.

ONAINDIA NATXIONDO, Mario, *La lucha de clases en Euskadi, 1939-1980*. Donostia: Hordago, 1979 [i.e., 1981].

–: *Carta abierta sobre los perjuicios que acarrearán los prejuicios nacionalistas*. Madril: Península, 1995.

–: *Guía para orientarse en el laberinto vasco*. Madril: Temas de hoy, 2000; eta 2. ed. (gainbegiratu eta hedatua), 2003.

–: *El precio de la libertad. Memorias (1948-1977)*. Madril: Espasa, 2001; eta 3. ed. (hedatua), 2001.

–: *El aventurero cuerdo. Memorias (1977-1981)*. Madril: Ediciones B, 2004.

–: *Testigo privilegiado. Artículos periodísticos (1979-2003)*. Madril: Ediciones B, 2004.

URQUIJO, Mikel: “Onaindia Natxiondo, Mario”, AGIRREAZKUENAGA, Joseba (zuz.); URQUIJO, Mikel (zuz.), eta VILLA, María José (ed.): *Diccionario biográfico de los diputados y diputadas del Parlamento Vasco (1980-1984)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 2021. 2. bol. 829-848. or.

ITURRIAK

GOJENOLA ONAINDIA, Manu, LANDA MONTENEGRO, Carmelo, y ARANES USANDIZAGA, José Ignacio: *Catálogo de la obra publicada de Mario Onaindia (1970-2020)*. Dokumentazio ikerketa lana (aribidean).

MARIO ONAINDIA FUNDAZIOA: Agiri eta argitalpen fondoak, Mario Onaindiarenak eta berataz dihardutenak, baita EIA eta Euskadiko Ezkerra erakunde politikoetaz ere. Zarautz.

I. ERANSKINA:

MARIO ONAINDIAREN LIBURUAK [EUSKARAZ]

1. *Elurtzan datzaten zuhaitz enborrak*. Bilbo: Gero, 1977 (Jon Larizen izengoitapean); eta Donostia: Hiria, 2006. **Nobela**
2. *Ez gaztanberak hezurrik* (argitaragabea). **Nobela**
3. *Grand Placen aurkituko gara*. Donostia: Haranburu, 1983; eta Donostia: Hiria, 2006. **Nobela**
4. *Gau ipuiak*. Donostia: Haranburu, 1983; eta Donostia: Hiria, 2006. **Ipuinak / Cuentos**
5. *Gilen Garateako batxilera*. Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Munizipala, 1984. (Irun Hiria Literatur Saria 1983an); eta Donostia: Hiria, 2006. **Nobela**
6. *“Delrincon” en motorra*. Donostia: Erein, 1985; eta Donostia: Hiria, 2006. **Nobela**
7. *Olagarroa*. Donostia: Elkar, 1987. (Azkue saria 1986an); eta Donostia: Hiria, 2007. **Nobela**
8. *Gela debekatua*. Donostia: Erein, 1988; eta Donostia: Hiria, 2007. **Nobela**
9. *Saioak* (artikulu bilduma eta beste). Donostia: Hiria, 2006. **Saiakera: artikuluak / Ensayo: artículos**

10. *Saioak 2. Donostia: Hiria, 2013. Saiakera: artikulak / Ensayo: artículos*
11. *Saioak 3 (argitaragabea). Saiakera: denetarik / Ensayo: de todo*
12. *Sugea kantari. Habeko Mik, 12. zkia. (berezia), 1990. Komiki honen gidoia, Mario Onaindia eta Jon Juaristirena. Marrazkiak: Jose Ibarrola. Komikia / Cómic*

ITZULPENAK (TRADUCCIONES)

13. KERR, Judith: *Hitlerrek untxe arrosa lapurtu zuenean*. Madril / Bilbo: Alfaguara / Desclée de Brouwer, 1988; eta Donostia: Hiria, 2012. **Nobela**
14. SAKI [Hector Hugh Munro]: *Bakerako jostailuak eta beste istorioak*. Madril / Bilbo: Alfaguara / Desclée de Brouwer, 1989; eta Donostia: Hiria, 2012. **Ipuinak / Cuentos**
15. HERNÁNDEZ CAVA, Felipe, eta BRECCIA, Enrique: *Lope Agirrekoa*. Vitoria-Gasteiz: Ikusager, 1989. **Komikia / Cómic**
16. SASTURAIN RONCO, Juan: *Ateak zabalduta (Euskal Panpako kronikak)*. Vitoria-Gasteiz: Ikusager, 1990. **Komikia / Cómic**
17. MARX, Karl: *Louis Bonaparteren Brumaireren hamazortzia*. Donostia: Lur, 1973; eta Donostia: Hiria, 2012. **Saiakera / Ensayo**
18. ALTHUSSER, Louis: *Marxen Iraultza Teorikoa*. Donostia: Hiria, 2007. **Saiakera / Ensayo**
19. MARX, Karl: *Frantziako gerra zibila*. Donostia: Hiria, 2007. **Saiakera / Ensayo**
20. MARX, Karl: *Frantziako klase gatazkak eta 1848ko ekaineko egunak*. Donostia: Hiria, 2007. **Saiakera / Ensayo**
21. VACHET, André: *Ideologia liberala*. Donostia: Hiria, 2009. **Saiakera / Ensayo**
22. BRECHT, Bertold: *Bertoldt Brechten Teatro hautatua*. Donostia: Hiria, 2009. **Antzerkia / Teatro**
23. FISHER, Erns: *Artista eta bere garaia*. Donostia: Hiria, 2009. **Saiakera / Ensayo**
24. COMITÉ D'ACTION DE SANTÉ: *Isilik Medikuntza!* Donostia: Hiria, 2013. **Saiakera / Ensayo**
25. MARX, Karl: *Kapitala. Merkantzien Teoria*. (Argitaragabea). **Saiakera / Ensayo**
26. STIELHER, Gottfried: *Hegel eta Dialektikaren hastapenak*. (Argitaragabea). **Saiakera / Ensayo**

II. ERANSKINA:

MARIO ONAINDIAK IDATZITAKO LIBURUAK [GAZTELANIAZ]

ANEXO II: LIBROS ESCRITOS POR MARIO ONAINDIA [CASTELLANO]

1. *La lucha de clases en Euskadi (1939-1980)*. Donostia: Hordago, 1979. [i.e., 1981]
2. *Carta abierta sobre los perjuicios que acarrearán los prejuicios nacionalistas*. Madrid: Península, 1995.

3. *El guión clásico de Hollywood*. Barcelona: Paidós, 1996.
4. *Guía para orientarse en el laberinto vasco*. Madrid: Temas de hoy, 2000; eta 2.ed. (revisado y ampliado), 2003.
5. *El precio de la libertad. Memorias (1948-1977)*. Madrid: Espasa, 2001; eta 3. ed. (ampliado), 2001.
6. *La construcción de la nación española. Republicanismo y nacionalismo en la Ilustración*. Barcelona: Ediciones B, 2002.
7. *¿Es democrático el Plan Ibarretxe? Visión Oteiziana de Euskal Herria*. Vitoria-Gasteiz: Ikusager, 2003. En colaboración con Emilio Guevara.
8. *El aventurero Cuervo. Memorias (1977-1981)*. Madrid: Espasa, 2004.
9. *Testigo privilegiado. Artículos periodísticos (1979-2003)*. Madrid: Ediciones B, 2004.

MARIO ONAINDIAREN EUSKARAZKO LIBURUEN ITZULPENAK

TRADUCCIONES AL CASTELLANO DE LIBROS ESCRITOS EN EUSKERA POR MARIO:

1. *Grand Place*. Madrid: Akal, 1985. Traducción / Itzulpena: Jon Juaristi.
2. *La tau y el caldero*. Grijalbo, 1985. Traducción / Itzulpena: Jon Juaristi.
3. *Cuando canta la serpiente*. Vitoria-Gasteiz: Ikusager, 1989. Cómic con guión de Mario y Jon Juaristi, y dibujos de Jose Ibarrola.
4. *Cuentos nocturnos*. Barcelona: Edhasa, 1991. Traducción / Itzulpena: Mario Onaindia.

MARIO: VEINTE AÑOS Y UN DÍA

FERNANDO MOLINA APARICIO

Llevo un tiempo sintiendo que el *paisito* (como llama a esto que tiene tantos nombres mi compañero Txema Portillo) se me antoja cada vez más un remedo de ese baile de fin de año que las hermanas Kate y Julia Morkan organizaban y que nos contó James Joyce en su bellissimo cuento, en el que la convidada sorpresa era la muerte. Una muerte cuya presencia animaba a los invitados a evocar un pasado por lógica ya extinguido. Un pasado carnal, hecho de personas que habían ido desapareciendo o estaban en trance de desaparecer como los copos de nieve en los que enfocaba la lente John Huston en la inolvidable película que adaptó este cuento. Mario falleció hace ya veinte años, y en estos últimos años siento que cada vez van quedando menos miembros de esa comunidad de lectores compuesta por quienes mejor leyeron lo que pasó y lo que algunos y algunas escribimos sobre eso que pasó. No lo llamo tragedia porque no le quiero conferir poesía a lo que, en el fondo, fue una vulgar carnicería. Y si no lo llamo tragedia, menos lo voy a llamar “conflicto” y menos aún “vasco”, pues lo que pasó nada tiene de particular respecto de lo que pasó en otros sitios o sigue pasando. Los

tiros en la nuca son iguales en todos los lugares, entran por el mismo sitio, afectan los mismos órganos, generan la misma pérdida de tejidos, líquidos y sangre. Lo mismo los efectos de una bomba en los bajos de un coche. Lo mismo el silencio con el que los condenados a muerte vivían su suerte, en esas calles en donde las ventanas permanecían “cerradas”, como apunta la metáfora evocada por Luis Castells, que sirve para definir toda una época. Esas calles que luego tan bulliciosas estaban cuando de comer y beber se trataba. Lo cuenta Lourdes Oñederra en un libro que edité con Luis el año pasado: “*Se han cargado a otro. ¡Joder! ¿Qué va a ser? ¿Otra caña, Pako? No, un zurito, que por la tarde tengo curro’. Se han cargado. No, han matado*”. A otro, sin nombre, pronombre, tercera persona. *Joder*, ¡qué mal!, está mal, te parecía mal, ¿te daba pena? Bueno... fastidiaba, algo o más que algo, pero la pena no llegaba desde luego a hacer que se te indigestara el pincho, que se te cerrara el estómago, que no pudieras pedir otra croqueta, que por la tarde no pudieras trabajar. Había que seguir viviendo, decíamos, y lo podíamos hacer, manteniéndonos al margen.

Nada de particular pasó en “pintxolandia”. Eso es lo terrible y lo que tantos se niegan a aceptar inventando términos rimbombantes (“el problema vasco”, “el contencioso vasco”, “el conflicto vasco”, todo muy y mucho vasco, que diría un conocido dirigente del PP que llegó a ser presidente del Gobierno). Términos que causan sensación en los comunicadores sociales y que todo el mundo se apunta a utilizar porque algo muy serio, muy profundo, muy “histórico” (muy “vasco”) tuvo que pasar para que pasaran esas cosas. Y con ese pensamiento se quedan tranquilos mientras otros, desde la academia, se dedican a penetrar, con el instrumental romántico a falta del científico, en esas profundidades insondables que comunica ese adjetivo tan potente: “conflicto vasco”, “violencia vasca”....

Vuelvo a Joyce, escritor tan querido por Mario, porque la muerte de la que hablo no es la muerte que se multiplicó por estas tierras, que dejó viudas y huérfanos, que exilió a miles de ciudadanos, que hirió en el cuerpo y en el alma a otros miles más. En primer lugar, porque en puridad no hubo “muerte”, hubo muertos. Y estos muertos no fueron provocados por ningún “conflicto”, ni mucho menos fueron víctimas de este. Tuvieron ejecutores y multitud de personas que colaboraron con ellos. Por aquí andan unos y otros. Los unos concediendo entrevistas y dejándose querer por los *media*; los otros olvidadizos y ambicionando conquistar, por fin, el poder local que, en el fondo, explica la maquinaria que pusieron en marcha. Y, en segundo lugar, porque me refiero a otra muerte, a la desaparición de personas que formaron parte de una comunidad de lectores privilegiada

de la que el propio Mario formó parte. Me refiero a Mikel Azurmendi, Patxo Unzueta, Jose María Calleja, Joseba Arregui, Andoni Unzueta y otros que, seguramente, mi mala cabeza ahora no trae a la memoria. Y, con ellos, la muerte de una generación de lectores que tanto han aportado, con sus reflexiones sobre los libros que leían y las historias que vivían, sus interpretaciones y análisis, a lo que aquí pasó. Les añadiría otros nombres no necesariamente vascos, dado que nunca lo que aquí pasó tuvo necesidad de “vascos” o “vascas” para ser leído y comprendido. Me refiero, por ejemplo, a Santos Juliá o a Javier Pradera. Y uno de los primeros en irse fue Mario. Uno de los primeros, pero no el primero, antes que él hubo otros (*obvio*, que diríamos en argentino), recordemos a Julio Caro Baroja o Luciano Rincón. O recordemos a Francisco Tomás y Valiente, que no desapareció, sino que lo *hicieron desaparecer*. En todo caso, en lo que respecta a este siglo, él fue el primero.

En el periódico *Deia* lo retrataban hace años, con ocasión de la biografía que hice de él: “Su biografía patria (...) retrata bastante fielmente (aunque con un sesgo evidente) a quien fue ferviente nacionalista vasco, fervoroso seminarista con vocación misionera, militante del PNV, militante de ETA, marxista-leninista, abertzale, internacionalista, defensor de la lucha armada, fundador de EIA y Euskadiko Ezkerra, anticonstitucionalista, padre del *Que se vayan*, descreído, cuasipacifista, posnacionalista, fuerista, admirador de Juan Carlos I, padre del patriotismo constitucional español, inspirador, militante y cargo de la integración PSE-EE, luego de Foro Ermua y Basta Ya, muñidor

de la coalición Mayor Oreja-Redondo Terremos, unionista, apologista de la Constitución, avalista de la Ley de Partidos y las ilegalizaciones, héroe de la lucha contra ETA”.

Toda esta evolución que el periodista de Sabin Etxea relataba, fundada en topicazos que el propio Mario no dudó en ocasiones en atribuirse, causaba horror entre la parroquia abertzale. Mario resultó ser un incorrido para quienes gestionaban el poder en “pintxolandia” y lo sigue siendo, veinte años después. Eso que se llama “el poder” se ejerce desde muchos espacios y estratos en estos tiempos posmodernos. Lo ejercen los secretarios y subsecretarios de las consejerías del Gobierno Vasco, lo ejercen los diputados forales y sus secretarios y subsecretarios. Lo ejercen las empresas que, sabiamente guiadas por conseguidores, acceden a contratas con esas administraciones. Lo ejercen, claro, los conseguidores que las guían. Lo ejercen todos aquellos que trabajan en la gigantesca industria de la identidad construida en estas cuatro décadas de autogobierno en torno al mito de la identidad perdida o robada (profesores, comunicadores, traductores, editores...). El “poder” lo ejerce mucha gente, y muchos de ellos, sin embargo, se tipifican como “antisistema” y se emplazan fuera del poder que ejercen, porque la mentira es un valor fundamental de cualquier sociedad nacionalista. Agradezco, en ese sentido, que Martín Alonso me haya puesto recientemente en la pista del concepto de “autoritarismo” como un territorio a explorar en lo que pasó en estas tierras en el pasado reciente. Habrá que perseguirlo de la mano de los escritos de Karen Stenner, Norbert Elias, Henri Tajfel y Mary Douglas.

En su trayectoria biográfica, Mario pasó de la legitimación o, cuanto menos, comprensión de la violencia política a criticar esta y reivindicar el fundamento civil y moral que debe tener cualquier proyecto de nación. En su madurez, para escándalo de la ortodoxia abertzale, defendió, de hecho, que desde premisas de moralidad cívica no encontraba posible sostener la incompatibilidad entre una idea de nación vasca y España: “el problema de Euskadi no es el enfrentamiento entre dos naciones, vascos y españoles, sino entre dos ideas de nación o nacionalidad (...). Para una, la nacionalista, Euskadi y España resultan incompatibles (...). Para la otra, en cambio, en la medida en que la patria es la ley, la lealtad hacia el Estatuto y el desarrollo de todas sus potencialidades se puede compaginar con la lealtad a la Constitución española”.

Luciano Rincón, uno de los primeros lectores en desaparecer a los que he aludido, señaló, hace treinta años: “Se puede ser y dejar de ser vasco cada cuatro años por opción política, e incluso puede un ciudadano levantarse vasco y acostarse extranjero, según los enfrentamientos de la jornada. Se puede y, de hecho, así sucede. Y se deambula por las señas de identidad con la fragilidad del funámbulo en la cuerda floja. Para alguien, para algún grupo, para algún sector de algún grupo, la condición de vasco se pierde con suma facilidad. Basta una crítica. Basta una ausencia en una ‘fervorosa adhesión pública’. Basta un comentario. (...). Pero también hay que decir que, si la vasquidad se pierde con la misma facilidad que la virginidad, en cambio, y a diferencia de ésta, también se puede recuperar fácilmente”.

La experiencia de Mario fue la de una pérdida creciente de esa vasquidad a medida que se permitió pensar y sentir con cada vez más libertad de cánones ideológicos o nacionales. Desde mediados de los ochenta comenzó a decir cosas escandalosas para el canon abertzale, como las había dicho unos años antes en referencia a la ilegitimidad de la violencia terrorista como cauce de expresión de la identidad nacional o al hecho de que la ikurriña había acabado encubriendo tanto fascismo, el de ETA, como había encubierto la rojigualda en el pasado, al vincularse al régimen de Franco.

En los años noventa este discurso suyo sobre la patria, tan provocador para el abertzale de bien, llegó a su apogeo. De la mano de este cambio en su concepción de la nación, Mario revisó su biografía y encontró que prácticamente nunca había sido un buen vasco a ojos de una porción importante de los demás vascos. Ni siquiera cuando había militado en el PNV o, incluso, en ETA. Siempre le había faltado “algo”, un algo que luego, una vez se pasó al otro “lado”, al de los llamados “nacionalistas españoles” (no es que él se considerara eso, es que así sería catalogado una y otra vez por el PNV o HB, no en vano todo nacionalista cree que todo el mundo es nacionalista, de ahí que hubiera un subdelegado del Gobierno Vasco que se dedicara a cortar tulipanes rojigualdos en Vitoria hace unos años, pues los nacionalistas creen que hasta las plantas nacen con atribución de nacionalidad).

En un ensayo biográfico sobre la nación evocó, por ejemplo, todos los momentos en que había sido tratado como un “mal vas-

co” pese a cumplir con todos los parámetros para lo contrario. “No seré vasco en la vida –sentenció en ese ensayo de 1993, con ecos de Luciano Rincón– [porque] la ascesis abertzale no tiene fin. Como nos cuentan los numerosos libros de ascesis barroca a los que tan aficionados fueron nuestros antepasados tras el Concilio tridentino, basta un mal pensamiento a última hora para que la virginidad de mi vasquismo se desgarré por cualquier tentación. Pero, querido nacionalista, esto no es algo que me ocurra sólo a mí. Ni siquiera es manía persecutoria, escrúpulos patrióticos que me persiguen a lo largo de toda mi vida, Es la esencia metafísica, fundamental y fundacional del nacionalismo vasco. La razón de ser última y primera, el alfa y omega del ser nacionalista en Euskadi. Si desapareciera ese poder que otorga en Euskadi el ser nacionalista para descubrir quiénes tienen la señal de la Bestia en su frente y no lo saben (...), el lóbulo hebreo pegado al rostro, en fin, todos esos signos que muestran bien a las claras que a vosotros no os la dan con queso, la mayoría de las peluqueras, tasqueros, empleados de Caja de Ahorros, curas, profesores de gimnasia, frailes y un largo etcétera, que forman el batallón de choque del nacionalismo, si se os privara de juzgar sobre vidas (ajenas) os sentiríais completamente defraudados (...). Existe, debe existir, una raya que diferencia a los habitantes de Euskadi entre los que son vascos y los que no. Y sólo los nacionalistas tenéis la facultad de trazarla”.

De su revisión biográfica, continuada diez años después en forma de dos libros de memorias y un ensayo sobre lo que llamó el “laberinto vasco”, sacó la conclusión de

que el nacionalismo vasco representaba la identidad vasca desde pautas morales que presentaba como objetivas y que vinculaba a su universo de valores, mitos y ritos, pero que no dejaban de ser subjetivas, como subjetivo (en el sentido de construido, en buena medida inventado, y desde luego no perteneciente a tradición milenaria alguna) era ese universo de valores, mitos y ritos patrióticos. Por ello se podía pasar de *dentro* de la nación a *fuera*, de ser de *nosotros* a ser de *ellos*. Y es que esta concepción de la identidad estaba orientada a la exclusión de unos vascos como garantía de prestigio de los demás, reunidos en la fiel ortodoxia que marcaba el canon abertzale. Su análisis era cristalino: es necesario que haya vascos traidores, “fascistas” y “españoles”, esta es la forma de responder al *miedo* que genera el que los demás no son (ni quieran ser) como los abertzales dicen que deben ser

Horrek klandestinitatea suposatuko du laster eta, oro har, talde terrorista batean sartzeak dakarren balore-iraulketa osoa. Horrela kontatzen du Josuk: "Bakartatea. Klandestinitateko bakartate jasan ezina, komunikaziorik eza (...). Gizartean positibotzat hartzen diren baloreak hemen negatiboak dira. Ez duzu deus ere esan behar, ezin zara maitekor izan, ez duzu atentziorik eduki behar. Adiskide batek, bueno, bere etxean noizean behin edukitzen nauen batek haur bat edukiko du, baina ez dakit nola hartuko duen erregalu bat egitea, hain da hotza, nerekin behintzat, non ez bait naiz ausartu ere egiten entregatzera" (58). Eta noski, armak erabiltzen ikastea, eta finean, besteen heriotz-zigorran parte hartzea eta, agian, norbere heriotz-zigorra ere aurkitzea.

6. Aberriaren erlijioa. Eta gero, zalantzak eta zalantzak. Beste ETAkide batez ari delarik, Josuren gogoeta: "Zein jaungoikok, zein misterioak edo kausak merezi du horrelako ofrendarik egin zezan. Soldadu merkea. Fededun merkea apaiz nahiz teologo gabea. Zein soldadu eta fededun ona, Jauna, kapitain on bat edo kausa on bat edukiez gero (...). Eta egoera hartan, Jainkorik eta aberriarik gabe, egia bila, langile klasearen kausa besarkatu zuen" (192).

Erljio-transferentzia. Pentsalari askok (Antonio Elorza, Jon Juaristi, Juan Aranzadi, Izaskun Sáenz de la Fuente, eta abarrek) azpimarratu duten ideia da hori: batez ere ezker abertzalearen eskutik garatutako Elizatik Aberrira igarotako sakralitate zentzua, erlijioak zekarren transzendentzia eta eragiten zuen batasun sozial eta politikoaren hutsunea betetzeko. Aberriaren edo nazioaren erlijioak, erlijio zaharrak bezala, sinesmen eta erritual sistema itxi bat eskaintzen zuen, bere apaiz eta fededun itsuekin. Salbazio grina hori Josu berak ere azpimarratzen du (pasarte autobiografiko ugari horietako batean): "Eta sentimendu hori bera zegoen duda gabe, agian ez hainbeste kalean ginela, baina bai gartzelan bereziki Burgosen ginean: ez genuen Euskal Herria bakarrik salbatu nahi, behar egiteko hori tikia bailitz, baina bai eta mundu guztiko langileria guztia" (100). Teo Uriarte berak ere hainbat aldiz azpimarratu duen ideia da: Burgosko judizioaren muinean ez zegoela hainbeste marxismo-leninismoa, "inmolazio erlijiosoa" baino.

Grand Placen eserita dagoen Josu, ordea, dagoeneko fedea kolokan jartzen hasia da: “la hamar urte iragan dira gau hartatik, soldaduska egitera joan nintzenetik, eta lehen egunean baino gaizkiago oraindik. Inongo segurtasunik gabe. Seguritate bakarra ezer ez dakidala denean...” (187). Ohartzen da “errealitatea bera ezkutatze eta hartaz gure burua engainatzeko betaurreko dotoreak” erabili dituela, erabiltzen dituztela guztiek. Nola egin aurre, ordea, “betaurreko dotore” edo betaurreko traszendente, zentzu-emaile, horiei?

Bruselan, presoak hara askatu eta gutxira, prentsaurrekoa eman behar dute. Ondoren, KASekoak etortzen zaizkio hizketara. “Preanbulorik gabe. Elekzioetara joan ala ez”. 1977ko ekainean Gorteetarako lehenengo hauteskundeak ospatuko dira eta zer egin erabaki behar dute. Josuk zalantzarik gabe baietz erantzuten die. Horrek sistema legitimatuko duela? Agian bai, baina –argudiatzen du– “jendeak ez du inola ere ikusiko berdin frankismoaren peko gure egintza eta orain sistema demokratiko honetan”, azken finean “jendeak Euskadin ez baitu burukatu sozialismoaren alde, demokraziaren alde baizik” (86).

KASekoak ez daude ados, noski. Zer pentsatuko dute biolentziaz?, galdetzen dio Josuk bere buruari: “Independentzia lortu arte beharrezkoa dela? Nola pentsatuko dute demokrazia batetan ere posible dela harmekin jarraitzea. Nola pentsatuko dute horrela euskaldunok iragan mendean bezala karlistadetan paper erreakzionari hori jokatzeko. Demokrazia apur bat dagoenean, euskaldunok etorri eta izorratu” (94).

7. Biolentzia. Biktimak eta erasotzaileak, hilak eta hiltzaileak. Hil aditza bitxia da euskaraz, aktiboa eta pasiboa aldi berean. “Hil da” eta “hil dut/ hil dute” oso antzekoak dirudite semantikoki, baina amildegia bat dago tartean. Nobelako protagonistek ez dute ETAk ordurako eragin zituen biktimez gogoeta zuzenik egiten. Beraiek edo beren ingurukoek jasan zituzten torturak eta sufrikarioak kontatzen dituzte, xehetasunez, ez “erakundearen” biktimek jasadakoak. Josuk, ETAn sartu eta pistola edukitzearen inimizazio-errituala kontatzen duenean, zera azaltzen du: “Badakizu ez duzula dispartuko, nahiago duzula hiltzera utzi zuk hiltzea baino. Hierarkia arazoa ere balitzateke. Buruzagiak pistola badu, polizia bere bila dabilelako, besteok ere harmaren bat behar dugula. Edo agian berek ere jakin dezaten gu harmaturik gabiltzala. Esaten duguna ez dela txantxetako. Gu ez garelako gura arbasoak bezalakoak. Ez dugula etsiko. Egiatzko gudariak” (175).

Behin baino ez dela egon pertsona bati bizitzea kentzeko zorian, adierazten du, “baina airtortu beharra dago gure joku hark egoera hartara eramaten ninduela” (170). Igande arratsalde aspergarri batean gertatu zen Gasteizen. Disko-denda baten eskaparatearen aurrean zegoen gizona Donostiako Amarako bulegoan pasaporteak ematen zituen polizia bera zela ohartu zen. Berehala Josuk jakaren poltsikora eramaten du eskua eta han daraman pistolaren burdin hotza sentitzen du. “Egia ote da diskei begira dagoela. (...) Ez al da ari disimulatzen, agian inguraturik nago (...). Keinu bat egiten badu, lepoa higituz gero dispartu egin beharko nioke (...). Memento hartan, segundu batez traje gris hari dispartuko nioke, duda gabe, traje gris bati tiro bat jotzea ez zen hain zaila. Bera ala ni. Bi animalia oihanean bide batetan aurkitzen direnean bezala:

gorroto izpirik gabe. Pertsona ez, gauza". "Gortina batean daga sartzea" bezala, "hiltzeko go-
goak baino areago norberaren barne problemen gorapiloak mozteko desirak eraginda" (170).

Beldurak nola funtzionatzen duen, bai, baina batez ere gorrotoak eta amorrak eta ideo-
logiek nola funtzionatzen duten, zein itsutasun selektibo eragiten duten edota zein betaurre-
ko jartzen duten begi sentikorren aurrean. Begi errukitsuen aurrean ere. Bada pasarte bat,
Onaindiak berak bizitakoa kartzelan, eta bere memorietan ere kontatzen duena, interesgarria
iruditzen zaidana kontrasterako. Hemen Josuren oroitzapenetan agertzen da eta juxtu goian
gogoratutako Gasteizko eszena horren aurretik kontatzen du.

Presoek debekatuta zuten animaliak edukitzea beren gelatan. Baina preso komun batek txo-
ritxo bat zuen eta behin, guztiak formatu zituztenean patioan eguzkitan, zerbitzuko burua pasa
eta, txoritxo gordeta zuela ikustean, hura lurrera bota eta zapaldu zezan agindu zion. Presoa,
gorputz guztia dardarez, erreguka hasi zitzaion, negarretan. Nagusiak, ordea, txoria hartu,
lurrera bota eta "militar botak burua zanpatu zion". Ankerkeria hura zela eta preso komun guz-
tiak motin bat burutu zuten (garita batera igo eta handik jaitsi gabe hamasei ordu egon ziren,
txoria edukitzeko baimenaren eske), Josu eta gainontzeko ETAkideen harridurarako. "Gizonaren
misterio miresgarri miraritsua. Mirestekoa benetan. Kalean atsoei boltsak lapurtu, atrakoak egin,
norbaitek are atrakoren batean bankuko kajariari bi tiro jo zizkioten haik, gero gartzelamenduko
bakartatean xori ttiki haietaz maitemindurik, bere animaliak defendatzeko motin bat burura era-
maten" (168). Pasartearen balorazioa, kasu horretan, garbi dauka Josuk: "Sadismoa behar da
hain merkeki gizonari agintzeko bere animalia kutunak odol hotzakin asesinatzea" (169).

8. Bestearen "gizatasunean norbere gizatasuna aurkitu": Santi etorkinaren historia. Bes-
teen ispilua beharrezkoa da norbere burua ere ezagutzera iristeko, eta nobela hamaika pertso-
na/pertsonaien ispiluez josita dago. Horien artean gogoangarrietako bat Santi etorkinarena.
Hamalau urterekin heldu zen Palentziatik Beasainera, eta bertan integratzeko ahaleginak eta
bi eginda ere, alferrik. "Beste edozein herritan problema administratibo soil bat izan behar
zuen, gure herrian arazoa metafisikoa zen. Euskaldun izan nahi izatea. Eta nola lortzen da
hori, zein leihatilan eskaintzen dute horrelako zertifikatua. Egun on, euskaldun izan nahi dut.
Santu, astronauta, jakintsua, Nobel sariduna, ofizio lort errazagoak Palentziatik datorren batek
euskaldungoa lortzea baino" (134).

Santi denetik egiten saiatu zen, euskara ikasi eta beste hamaika gauza. Baina halako ba-
tean "txibato salatari" bat zela zapaldu zen herrian. Bere izena garbitzeko, herriko alkate
"faszistaren" etxeari su emateko ekintzan hartu zuen parte. Alferrik hura ere, ezkutuan man-
tendu baitzen. Azkenean kartzelan bukatu zuen: "Sisifo gaisoa, zenbat lan euskaldun izatera
ailegatzeko. Ez zitzaion izan aski euskaraz ikastea, haurrak ikastolara bidaltzea, gartzelan
egotea, euskaldunen aberriaren alde burrukatzea (...). Agian gure bizitzea ez da Santirena
baino hobea. Paulok bere gizatasuna Pedroren gizatasunean baizen ezin dezake ezagut. Nik
ere nere abertzale izateko nahia Santiren historian ezagutzeko baizen ez nintzen gauza. Zen-
bat jira guk ere abertzale izateko gure modu bat aurkitu arte" (159).

Idea bera berriz azaltzen du nobelaren bukaera aldera, indarra emanez: “Paulok Pedroren gizontasunean ezagutzen eta aitortzen du bere gizontasuna. Gizon bat ezin da ohartu gizon denik harik eta beste pertsona bat –eta pertsona hitza hortik letorke– bera bezalakoa dela onartu arteraino (...). Zein diferentzia legoke, izan ere, Santi eta bion artean. Gudari merkeak, soldatarik gabeko soldaduak” (186).

9. Askatasun sentimendua. Josuk hiru egun daramatza kartzelatik kanpo. Libreki mugi daiteke Bruselan, jendearen joan-etorriari so geratu, zerbezak dastatu. Mugimendu-askatasuna berreskuratu du, noski, baina zerbait gehiago ere. Bizarra uztea erabakitzen du: “Bizarrena ere ziklikoa dela ematen du. Aitona bizardun, aita bizar gabe eta iloba bizardun, gure semeek ja ez dute bizarrik utziko. Neretzat libre egoteko eta are izateko sinbolo eta ezagugarri da. Zein putasemeak funtzionari haiek, zer axola zaien presook bizarra eduki ala ez, baina zitalkeria soilagatik moztu egin behar (...) humilagarria zen moztu behar izatea. Orduan erabaki nuen, behin libre egonez gero ez nuela gehiago bizarrik moztuko. Arestik ere bazuen horrelako kanturen bat. Euskara libre ikusi arte ez dut moztuko bizarra. Libre ez, beste zerbait zen, Salbu, bai, euskara salbu ikusi arte ez dut moztuko bizarra. Zer ote da euskara salbu ikustea” (28).

Bere gogoeta sustatzen duen sentipena, azken finean, hauxe da: “Baina libertatea gauza tikiez, tartika niminoez lortzen da. Hemen Bruselasko puntan garagardo bat eguzkitan edatea, bizarra uzteko posibilitatea eta eskubidea” (28). Joneren gutunek ere nolabaiteko askapen eta garapen pertsonal baten bilaketa xehetzen dute, baina egiatan “libre”, senarra azkenean askatzen dutenean sentitzen dela adierazten du (199). Bere bizitzaren narrazioa neurri handi batean gizonezkoek astindutako mugimendu abertzaleen eta gizonezkoek gidatutako politika autoritarioaren gorabeherak egituratu du. Baina askatasuna esperantza ere bada: bizimodu berri baterako esperantza, posibilitateez borborka.

10. Grand Placeren metafora. Nobela Grand Place eta bertan dagoen udaletxearen deskribapen arkitektoniko eta historikoarekin abiatzen da, eta modu beretsuan amaitzen, zirkulua itxiz. Zergatik, ordea? “Plaza honetan zortzi mendeko historia etendurarik eta hausterik gabe dago, dena naturaren desarroilo eta bilakaera baketsu bat bailitz, halako moldez non ni bezala, kanpotik datorren pertsona batentzat, plaza osoa arkitekto batek eta egun berean egina dagoela pentsatuko bait lu”. Plazaren “gauzarik estimagarriena bere batasuna daiteke. Hemendik zehar zazpi ehun urtez iragan da historia eta belaunaldi batek bestearen obra suntsitu eta harria harri gainean uzteke larga beharrean, estilo eta nortasun bat mantenitzen dutelarik egin du bere aportapena jende guztiak, bestela ez baitago belaunaldi batek bakarrik egiterik honelako plaza bat” (201).

El Paíseko elkarrizketan, Onaindiak euskaldunen etenduren historiarekin kontrastean jarri nahi duen sinboloa dela argudiatzen du Grand Place hori. Nobelan, Bruselako plazak *segur-tasuna, ahalmen sortzailea, elkargunea* adierazten duela. Ez da, ez, izenburu makala Mario Onaindia Fundazioaren aldizkarirako...

NOTAK

¹ Manu Gojenola Onaindiak ederki jasotzen ditu Onaindia-poliedroaren alde anitz eta aberatsak bere *Mario Onaindia. Askatasunaren alde, borrokan, idazten, umorez (1948-2003)*, "Bidegileak" saileko lanean (Eusko Jauriaritza, 2012).

² Onaindiari egindako bi elkarrizketa erabiliko ditut. Biak ere 1983ko maiatzean eginak, *Grand Place* nobela kaleratu zenean, eta online aurki daitezkeenak. Bata, euskaraz, Josu Landa eta Mikel Antzarekin izandako elkarrizketa da, *Argian*; bestea, gaztelaniaz, José Luis Barberíarekin, *El País* egunkarian.

³ Ondoren datozen nobelaren aipu guztiak Luis Haranburuk argitaratutako 1983ko ediziotik. Parentesi artean, edizio horretako orrialde-zenbakiak.

⁴ Noiz arte horrela, ordea? Joneren gutunean, zama hori haien alabari ere –belaunaldi berriei ere– pasa behar ote dien galdetzen du. Eta erregutzen: "gure alabarengan ere pentsa dezagun, ia traumarik eta eginbide estrainorik gabe bizitzeko gauza delarik hezitzen dugun. Bere bizia bizitzeko eskubidea bait du. Herri osoak du (...) lasaiki bizitzeko eskubidea" (148).



© 2004 J. J. J. J. J.

EUSKADIKO EZKERRA. MENTURAZALE ZENTZUDUNAK

GAIZKA FERNÁNDEZ SOLDEVILLA

Historia orok du hasiera bat. Euskadiko Ezkerraren (EE) jatorria 1974. urtearen amaieran izan zen; Rolando kafetegiko sarraskiaren ondoren, ETAk bere haustura handia jasan zuen. Sektore nagusiak, ETA politiko-militarra deituak, terrorismoa “masa-borrokarekin” uztartzen jarraitu nahi izan zuen. Hondamendia. 1975eko udan, Mikel Lejarza “Lobo” infiltratuaren ekintzen ondorioz, taldea ia erabat desegin zen. Handik gutxira, azaroan, Francisco Franco diktadorearen heriotzak, Juan Carlos erregea tronura igotzeak eta Espainiaren demokratizazioak eszenatoki berria marraztu zuten.

Eduardo Moreno Bergaretxe (Pertur) polimilien lider ideologikoak ETArri lotutako euskal nazionalismo erradikalaren berrikuntza bultzatu zuen. Alde batetik, masa-organismoak sustatu zituen, eta boltxebike-kutsuko partidu bat gehitu behar zitzaizela aldarrikatu zuen. Azken helburuak lortzeko, Euskadi independente eta klaserik gabea, “ezker abertzale” osoaren abangoardia buruzagi gisa jokatu beharko luke “demokrazia burgesa” instrumentalizatzeko, ezker muturrarekin aliantza bat eginez. Bestalde, ETA pm indar politiko berriaren menpeko atzeko guardia bihurtzea proposatu zuen.


1976ko amaiera eta 1977ko hasiera bitartean, Pertur desagertu bazen ere, ETA pm-k eta bere ingurukoek Euskal Iraultzarako Alderdia (EIA) sortu zuten, eta 1977ko apirilaren 3an aurkeztu zen jendaurrean, Gallartan. ETA m-ren eta bere ingurukoek abstentzio-presioa gorabehera, alderdiak 1977ko hauteskundeetan parte hartzea erabaki zuen. Zerrenda bat osatu zuen Euskadiko Mugimendu Komunistarekin (EMK) eta pertsona independente batzuekin batera, Eusko Sozialistak eta Euskal Komunistak taldeen babesarekin. Taldeko kideak legez kanpokoak direnez, Euskadiko Ezkerra hautagaitza gisa erregistratu zen. 64.039 boto lortu zituen Euskal Herrian, eta horrek diputatu bat, Francisco Letamendia, eta senatari bat, Juan Mari Bandres, ekarri zizkion. Nafarroan atzeko zerrenda bat egon zen, Unión Navarra de Izquierdas (UNAI), 24.489 boto lortu zituen, baina ez zuen ordezkaritarik izan Parlamentuan.

EIAk ezker muturrarekin zuen ententeak 1978ko otsailera arte iraun zuen, EMK-k eta Ezker Komunistaren Erakundeak (OIC) AEB utzi zuten arte. Ordutik aurrera, EIAren

hauteskunde-marka baino ez zen izan, nahiz eta diskurtso epelagoa eduki, batzuetan pertsona ezagunen edo beste alderdi txiki batzuen babes batzen zuena, hala nola Eusko Abertzale Ekintza (ANV) historikoa, Euskadiko Sozialistak Elkartze Indarra (ESEI) edo Espainiako Lanaren Alderdia (PTE).

1977ko hauteskundeek ezker abertzalearen zatiketa areagotu zuten. Jatorri etakidea izan arren, EEK Gorteetan, Euskal Kontseilu Nagusian, Autonomia Estatutua prestatzen eta 1979ko urriaren 25eko erreferendumean haren aldeko kanpainen parte hartu zuen. Haren protagonismoak ETA militarreko buruzagitza kezkatu zuen, terrorismoaren bidezko trantsizio demokratikoaren aurka baitzegoen. Taldeak Herri Batasuna (HB) koalizioaren alde egitea erabaki zuen. Lehenengo independentea izan zen, baina laster utzi zuten ETA m-ren hauteskunde-beso gisa.

Bi sektoreak, posibilista eta intransigentea, etakide ondarea lortzeko lehiatu ziren, eta azkenean ETA m-ren ingurukoek bereganatu zuten (LAB sindikatua, *Egin* egunkaria, *Punto y Hora de Euskal Herria* astekaria, Gudari Eguna eta abar). HBren hauteskunde-emaitzak ere AEB-enak baino hobeak izan ziren, gutxi hazi baitzen: 1979ko hauteskunde orokorretan 80.098 boto lortu zituen Euskadin, eta 21.305 (Euzko Abertzaleak, EAJ, ESEI eta PTERekin batera) Nafarroan. 1980ko euskal autonomikoetan, EEK 89.953 boto-paper eta sei parlamentari bildu zituen.



Nolabait ere, Mario Onaindiak, “ezker abertzalearen” ordezkari nagusiak, bai bere gaitasun teorikoagatik bai Burgosko prozesuan izandako paperagatik, Perturren desageretzeak utzitako lidergo-hutsunea bete zuen. Bere zuzendaritzapean, EIAko idazkari nagusi gisa (1977ko urritik), eta eta Bandres senataria bezalako intelektual eta politikarien babes garrantzitsuarekin, EEk trantsizio bat bizi izan zuen Trantsizioaren barruan: marxismo-leninismotik sozialismora eboluzionatu zuen, independentismotik autonomismora eta terrorismoaren babesetik bera kondenatzera. Laburbilduz, demokratizatu egin zen. Sekularizazio-prozesu horri esker, 1982ko martxoan EIAk bat egin zuen Roberto Lertxundi buru zuen Euskadiko Alderdi Komunistaren (EPK) joera euskaltzalearekin, eta Euskadiko Ezkerra berria sortu zen, euskal nazionalismo heterodoxoa gorpuztu zuen alderdia: ez aranista, autonomista, aurrerakoia eta integratzailea.

Ibilbide horrek ETA pm-rekin zuen interdependentzia-harremanetik urrundu zuen EIA, eta, ondorioz, baita AEB ere. Erakunde horrek hogei bat hildako eragin zituen. Agerian geratu zen logika parlamentarioa eta terrorismoarena bateraezinak zirela, baina ez zen kontraesan horri aurre egin, harik eta 1980ko amaieran polimilik UCDko bi militante hil zituzten arte. Mario Onaindia buru zela, indarkeriaren amaieraren aldekoek ekimena hartu zuten. 1981eko otsailan, EIAren eskaera formal baten ondoren, ETA pm-k su-eten mugagabea aldarrikatu zuen. Onaindiak eta Bandresek ezkutuko amnistia bat negoziatu zuten Juan José Rosonekin, Adolfo Suarezren Gobernuko Barne ministroarekin.

1982. urtearen hasieran, ETA pm zatitu egin zen. Adar batek, zazpikienak hain zuzen, jardunean jarraitu nahi izan zuen. Hala ere, Alberto Martín Barrios farmaziako kapitaina hil ondoren (1983ko urria), marjinaltasunera eraman zuen gainbehera geldiezina jasan zuen. ETA m-k taldearen hondarrak hartu zituen, Onaindia-Rosón akordioa onartzeari ere uko egin baitzion.

Beste fakzioa, zazpikiena, 1982an desegin zen, birgizarteratze kolektiboaren aurreko urrats gisa (1982-1985). Atxilotuta zeudenei (epaiketaren zain zeudenei) fidantzapeko behin-behineko askatasuna eman zitzaien. Ondoren, absolbitu egin zituzten, edo haien kausa artxibatu. Zigorra kartzelan betetzen ari zirenei indultua eman zieten. “Erbesteratuak” AEBko abokatuen autoetan eraman zituzten Frantziatik Madrilera. Behin Auzitegi Nazionaleko epailearen aurrean, inputatuta zeuden kargu guztiengatik errugabe jotzen ziren eta auzi judizialak artxibatu egiten ziren. Ezkutuko amnistia izan zen, indarkeriari uko egitearen ordain bakarra-ekin.

ETA pm-ren desagerpenak nabarmen murriztu zituen Trantsizioko Espainia asaldatuan indarkeria eta sumindura politikoaren mailak. Gogoratu behar da 1976tik 1982ra bitartean terrorismoak 498 hildako eta 450 zauritu eragin zituela, herrialdea amildegiaren ertzean jarritz eta, jakina, otsailaren 23an kolpistek erabili zituzten argudioak emanez. Birgizarteratzeak demokrazia parlamentarioa eta euskal autonomia sendotzen lagundu zuen, eta, beraz, EIA-EEk, oro har, eta Mario Onaindiak, bereziki, arrakasta handia izan zutela ulertu behar da. Menturazale zuhurraren kemenik gabe, ezinezkoa izango zen horrelako zerbait.

Hala ere, itzalak ere izan ziren. Terrorismoaren biktimen ikuspegitik, prozesua biktimagileen zigorgabetasunarekin amaitu zen: ez zen egon ez memoriarik, ez justiziarik, ez erreparaziorik, ez egiarik.

EEK hauteskunde-etekin eskasa lortu zuen bere moderazioagatik, EPKrekiko konbergentziagatik eta ETA pm-ren amaieragatik. 1982ko hauteskunde orokorretan 91.927 boto-paper izan ziren EAEn eta 8.399 Nafarroan. PSOEn gehiengo osoak eta Euskadiko EAJren nagusitasunak mugatuta, EE gelditu egin zen. 1984ko EAEko hauteskundeetan 85.671 boto jaso zituen, sei legebiltzarkide lortuz. Hurrengo urtean, Onaindiak idazkaritza nagusiari uko egin zion, eta Kepa Aulestiak ordezkatu zuen, alderdia modernizatzen eta profesionalizatzen saiatu baitzen.

Bien bitartean, Onaindiak eta bere taldeak kontakizun abertzalearen oinarriak zalantzan jartzean hasitako heterodoxian sakontzen jarraitu zuen. ETAko kide gisa beren iraganagatik legitimatuak, ikonoklasta, irakurketak eta prestakuntza akademikoa (edo autodidakta) zituzten. Hala ere, ez zuten bakarrik egin. Aberriaren sekularizazio-prozesu hori Jon Juaristi, Juan Aranzadi eta Patxo Unzueta bezalako AEBetako unibertsitate irakasle eta intelektualen obran eta gidan oinarritzen zen. Jakina, alderdiaren bilakaerak gainerako nazionalismoaren erasoak eragin zituen, eta horietako batzuek traizio-salaketak egin zituzten.

EAJren zismak markatutako testuinguruan, EEk hazkunde azkarra izan zuen. 1986ko EAEko hauteskundeetan 124.423 boto eta bederatzi legebiltzarkide lortu zituen. Eusko Jaurlaritza transbertsala eta aurrerakoa eratzeko asmoz, negoziazioak hasi ziren PSEren, EEren eta Eusko Alkartasunaren (EA) artean. Dena den, akordioa ezinezkoa izan zen eta PSEk EAJrekin ituna egin zuen.


Aukera hori galdu arren, EEk ekarpen politiko handiak egiten jarraitu zuen. Horietako bat izan zen Kepa Aulestiak "Euskadi baketzeko eta normalizatzeko akordioa" bultzatu izana, Ajuria Eneko Ituna bezala ezagunagoa, 1988ko urtarrilaren 12an euskal alderdi demokratiko guztiek sinatu zutena (EAJ, PSE, EA, EE, AP eta CDS). Ondoren, UA, EuE eta EB/IU alderdiek sinatu zuten. Testuak terrorismoaren ilegimititatea ezartzen zuen agenda politikoa finkatzeko, Gernikako Estatutua balioztatzen zuen eta inflexio-puntua izan zen Euskadiren historian. Ohiko identitate edo klase banaketak gaindituz, testuak demokratik batzeko balio izan zuen, azkenean modu koordinatuan jardun zezaketenak biolentoek inposatu nahi zuten proiektu totalitarioaren aurrean.

Era berean, AEBko militante ugari zeuden talde bakezaleak bultzatzen, hala nola Denon Artean eta Bakearen Aldeko Koordinakundea, hilketa bakoitzaren ondoren isilean manifestatzen zirenak, baita erakundeak bahitutako pertsonen askatasuna eskatzeko ere, hala nola Julio Iglesias Zamora, José María Aldaia edo Cosme Delclaux.

Aulestiak aldaketa garrantzitsua bultzatu zuen AEBko aliantza politikan. III. Kongresuan (1988ko maiatza), alderdiak EAJrekin koalizio-kabinetea eratzeko helburua ezarri zuen,

ordura arte kritikatu eta boteretik aldentzen saiatu ziren alderdia. Era berean, EEK “sozialismo demokratikoa” onartu zuen, PSE Euskadiko erreferentzia aurrerakoi gisa ordezkatzeko.

Urte horretan bertan, EEK “zalantzarik gabeko baiezkoa” eman zion Konstituzioari. Erabakia koherentea zen bere bilakaera heterodoxoarekiko, baina aukeratutako uneak nolabaiteko oportunismoa ematen zuen aditzera PSOren oinarri soziologikoari men egiteko, 1988ko abenduaren 14ko greba orokorra baino egun batzuk lehenago hartu baitzen, non Felipe Gonzalezen Gobernuaren eta UGTren arteko tentsioak nabarmenak izan ziren. Hala ere, PSEk ere EEren kontura hedatu nahi zuen, eta buruzagi historiko batzuk, Eduardo Uriarte (Teo) kasu, sozialisten esku geratu ziren.



EEren apustu sozialdemokrata eta konstituzionalista bat etorri zen nolabaiteko norabide nazionalistarekin, EAJrekin eta EArekin hauteskunde-koalizio bat babestean (1989) eta Eusko Legebiltzarrean autodeterminazio-eskubidearen alde bozkatzean (1990). Kontraesan horrek AEBko hautesleak nahastu zituen eta militante eta buruzagien arteko harremanak tenkatu zituen. Auletiko alderdian bi korrante izan ziren aurrez aurre: Añamendi, abertzaleagoa, Gipuzkoan kokatua eta EAri begira zegoena; eta Berrikuntza Demokratikoa, Onaindiak eta Bandresen babestua, sozialistagoa, Bizkaian eta Araban indartsua eta PSErekin aliantza bat proposatzen zuena.

1990eko hauteskunde autonomikoetan, EEK botoen herena galdu zuen. 79.105ekin osatu zen, beraz, 9 legebiltzarkide izatetik 6 izatera igaro zen. Hala eta guztiz ere, PSE Eusko Jaur-laritzan EAJren bazkide izatea lortu zuen.

Aulestiak kargua utzi zuen. Boterearen aldeko borroka hasi zen, alderdiaren bi "arimen" (abertzalea eta sozialista) arteko doktrina-desadostasunekin, koalizio-kabineteko (EA edo PSE) hirugarren bazkidea nor izan behar zen eztabaidatzearekin, lurraldeen arteko tentsioekin eta desadostasun pertsonalekin nahastu zena. AEBko IV. Kongresuan (1991) Berrikuntza Demokratikoko ponentzia gailendu zen: alderdiak joera euskaltzalea hartu zuen nazionalista baino gehiago, eta PSEra hurbiltzearen alde egin zuen. Jon Larrinaga izendatu zuten idazkari nagusi.

PSE inhibititu egin zenez, EAJk eta EEk programa autonomista zuen Eusko Jaurlaritzan sartu zuten EA. Hala ere, Garaikoetxearen alderdiak udal mailan egindako mozio independentisten ondorioz, Jose Antonio Ardanza lehendakariak berehala hartu zuen haren lekua. AEBko krisia bere fase terminalean sartu zen: Añamendi korrantea, EAren bazterketaren aurkakoa, Euskal Ezkerra (EuE) iragankorra osatzeko banandu zen. Azken batean, nazionalisten eta ez-nazionalisten arteko elkarbizitza ezinezkoa izan zen alderdi berean.

Gernikako Estatutua babesten jarraitu zuen arren, EuEk EEk baino diskurtso nazionalistagoa hartu zuen eta EAekin koalizioa osatu zuen 1993ko ekaineko hauteskunde orokorretan. EA-EuEren emaitzak 1989an Garaikoetxearen prestakuntzak bakarka lortutakoak baino okerragoak izan ziren. EA saiatu zen EuE xurgatzen, baina haren buruzagiek uko egin zioten, nahiago baitzuten aliantza egonkor bat ezarri. 1994ko martxoan EuE-k desegitea onartu zuen.

Ezkerrera eginez, EEk eremu abertzalea utzi zuen PSEekin bateratze organikoa ahalbidetzeko. Zentzu batean, 1982an EIAren eta EPKren bat-egitearekin hasitako bideari ekin nahi zitzaion berriro. Beren proiekturako, AEBetako eta PSEko buruzagiek Kataluniako PSC hartu zuten eredutzat. Asmoa zen alderdi sozialista euskaltzale berri bat osatzea, PSOEren barruan autonomia zabala izango zuena. EEren eta PSEren botoen batuketa aritmetikoak aukera ematen zuen alderdi berria ordura arte hegemonikoa zen EAJren alternatiba izateko.

EEren VI. Kongresuak (1993) PSEekin bat egitea onartu zuen. Hilabete geroago sortu zen egungo PSE-EE. Alderdi berriak autonomismo aurreratua defendatu zuen, Espainiaren balizko federalizazioari atea irekitzen ziona. Hala ere, kongresuetako ebazpenak alde batera utzita, PSE-EE berria PSE zaharra baino ez zen, beste sigla batzuekin. Ez zen bat-egiterik gertatu, Jauregiren eraketak Larrinaga eta Onaindiarenari fagozitua baizik. Nahikoa da egiaztatzea PSEtik zetozen militanteen gehiengo handia zegoela zuzendaritza-organoetan. Ramón Jáuregui PSE-EEko idazkari nagusia izan zen, José María (Txiki) Benegas presidentea eta Onaindia lehendakariordea. Nafarroan ez zen konbergentziarik izan, baina AEBko militanteak PSNra pasatu ziren. Proiektu sozialista berriaren giltzarria postnazionalismoaren teoria zen: mugimendu nazionalistaren eskaera historikoak garapen autonomikoarekin asetutak izan ziren, eta, beraz, lurralde-nortasunari buruzko eztabaida agortzeaz zegoen. Jürgen Habermasengandik edanda, Jon Juaristi izan zen ideia Euskadin sartu zuena eta, ondorioz, Ramon Jauregiri eta Onaindiari helarazi ziena. Sintomatikoa da Xabier Arzalluz bezalako EAJko buruzagiengan ezinegon sakona eragitea. Eta, itxuraz, urduri jartzeko arrazoiak zituen.

1993ko hauteskunde orokorretan PSE-EEK 293.442 boto lortu zituen Euskadin. AEBko botoen herena gordetzeaz gain, EAEko lehen indarra bihurtu zen, EAJren nagusitasun instituzionala mehatxatuz (287.908). Garaipen haren zein konbergentziaren ikur nagusia Mario Onaindia zen, Gipuzkoako senataririk bozkatuena bihurtu zena (84.806).

Hala ere, 1994ko hauteskunde autonomikoetan EAJk lehen postua berreskuratu zuen 304.346 boto eskuratuta, eta PSE-EEK, oso urrun, 174.682 baino ez zituen bildu. Hauteskunde osteko ikerketek agerian utzi dute Felipe Gonzalezen Gobernuaren izen txarrari erantzuten zio- la porrot horrek, ustelkeria eskandaluek jazarrita, baina buruzagi sozialista batzuek AEBrekin bateratzeari egotzi zioten errua, haren ondarea lausotzen joan baitzen.

Hala ere, ez da desagertu. Alde batetik, PSE-EEko militante ohiek erantzukizuneko karguak izan dituzte, bai PSE-EEen, bai erakundeetan, maila guztietan. Bestetik, Euskadiko Ezkerraren eta bere buruzagi ezagunenaren espiritu heterodoxoa Mario Onaindia Fundazioan gorpuztu da.

BIBLIOGRAFIA

DE LA GRANJA, José Luis (1998): "El nacionalismo heterodoxo en el siglo XX", *Cuadernos de Alzate*, 19. zk., 155-156 or.

- (2008): *Nacionalismo y II República en el País Vasco. Estatutos de autonomía, partidos y elecciones. Historia de Acción Nacionalista Vasca: 1930-1936*. Madrid: Siglo XXI. (2. ed.: 1986).

- (2009): *El nacionalismo vasco. Claves de su historia*. Madrid: Anaya.

ESCRIVÁ, María Ángeles (1998): *El camino de vuelta. La larga marcha de los reinsertados en ETA*. Madrid: El País Aguilar.

FERNÁNDEZ SOLDEVILLA, Gaizka (2013): *Héroes, heterodoxos y traidores. Historia de Euskadiko Ezkerra (1974-1994)*. Madrid: Tecnos.

FERNÁNDEZ SOLDEVILLA, Gaizka eta HIDALGO GARCÍA DE ORELLÁN, Sara (2018): *La unión de la izquierda vasca. La convergencia del PSE-EE*. Madrid: Los Libros de la Catarata.

FERNÁNDEZ SOLDEVILLA, Gaizka e HIDALGO GARCÍA DE ORELLÁN, Sara (koord.) (2022): *Héroes de la retirada. La disolución de ETA político-militar*. Madrid: Tecnos.

FERNÁNDEZ SOLDEVILLA, Gaizka y JIMÉNEZ RAMOS, María (coords.) (2020): *1980. El terrorismo contra la Transición*. Madrid: Tecnos.

HIDALGO GARCÍA DE ORELLÁN, Sara (2018): *Los resistentes. Relato socialista sobre la violencia de ETA, 1984-2011*. Madrid: Los Libros de la Catarata.

- (2020): "El socialismo guipuzcoano y el terrorismo de ETA en los inicios de la democracia. Historia y Memoria. 1977-1984", *Pasado y Memoria*, 21. zk., 249-268 or.

LEONISIO, Rafael y FERNÁNDEZ SOLDEVILLA, Gaizka (2013): "El espejismo vasquista. La convergencia del PSE-EE, 1992-1994", *Historia del presente*, 22. zk., 123-138 or.

LÓPEZ ROMO, Raúl (2015): *Informe Foronda: los efectos del terrorismo en la sociedad vasca (1968-2010)*. Madrid: Los Libros de la Catarata.

MICCICHÈ, Andrea (2009): *Euskadi socialista: el PSE-PSOE y la Transición en el País Vasco (1976-1980)*. Madrid: Fundación Pablo Iglesias.

MOLINA, Fernando (2012): *Mario Onaindia (1948-2003). Biografía patria*. Madrid: Biblioteca Nueva.

ONAINDIA, Mario (2001): *El precio de la libertad (1948-1977)*. Madrid: Espasa.

- (2004): *El aventurero cuerdo. Memorias (1977-1981)*. Madrid: Espasa.

PABLO, Santiago de (2017): *Creadores de sombras. ETA y el nacionalismo vasco a través del cine*. Madrid: Tecnos.

PARRA, Eduardo (2013): "Los que volvieron a casa: el fin de ETA político militar y la reinserción de sus miembros", *Historia Actual Online*, 32. zk., 31-41 or.

- (2021): "Las 'otras amnistías' de la Transición española: extrañados y amnistía a presos sociales. Historias de éxito y fracaso", *Clio & Crimen*, 18. zk., 137-154 or.

PÉREZ PÉREZ, José Antonio (coord.) (2021-2023): *Historia y memoria del terrorismo en el País Vasco*. Almería: Confluencias, 3 liburuki.

PORTILLO, José María (2018): *Entre tiros e historia: la constitución de la autonomía vasca (1976-1979)*. Barcelona: Galaxia Gutenberg.

ROSÓN, Juan José (1984): "Reflexiones sobre Euskadi", en REINARES, Fernando (ed.): *Violencia y política en Euskadi*. Bilbao: Desclée de Brouwer, 99-115 or.

RUBIO POBES, Coro (dir.) (2021): *El laberinto de la representación: partidos y culturas políticas en el País Vasco y Navarra (1875-2020)*. Madrid: Tecnos.

SORDO, Luis Miguel (2017): *Promesas y Mentiras. Las negociaciones entre ETA y los Gobiernos de España (1976-2006)*. Madrid: Tecnos.

URIARTE, Eduardo (2005): *Mirando atrás. Del proceso de Burgos a la amenaza permanente*. Barcelona: Ediciones B.

- (2010): "El proceso de liquidación de ETA pm", *VI Jornadas Internacionales sobre Terrorismo*. Zaragoza: Fundación Giménez Abad, http://www.fundacionmgimenezabad.es/images/Documentos/2010/20101116_et_uriarte_e_es_o.pdf

VV. AA. (2007): *Luces y Sombras de la disolución de ETA político-militar*. Vitoria: Fundación Fernando Buesa eta Aldaketa.

MARIO ONAINDIA, EUSKARAZKO IZKIRIATZAILEA

MANU GOJENOLA ONAINDIA.

Mario lehengusuak, eta lagunak, inteligentziaz betetako buru aparta zuen. Buruargitasunari gehitzen zion gertatuko zenaren susmoa aise, erraz harrapatzeko trebezia; bazekien jazoko zenari aitzineratzen. Begitazinoduna edo, nahiz eta berak esan EEko Ikerketa Zerbitzuko buru zela eta beti huts egiten zuela. Eta cultura-berniza, likurta goitik behera zuen. Politikara dedikatu zen intelektuala. Eta dibertigarria izatez gain, originala zen, zenbat aldiz harritzen ninduen, sarri zurtzen gintuen gu oro. Bere esaldietan bat, hau zen: “Bakarrik uzten nauzue, Tourmaleta igoten”. Eta aurten hogeitau urte betetzen dira utzi gintuenetik. Luzeak benetan, enetako bederen.

Euskara eta literatura zer ziren Marioentzat

Mario, euskal izkiriatailea zen, idazlea. Gaztelaniaz zortzi liburu karrikaratu zituen, eta euskaraz hogeita hiru. Bai, hogeita hiru. Bederatzi, sorkuntzazkoak; eta hamalau itzulpen. Itzulpenak inoren libururenak izan ziren, ez berarenak, ez bere gaztelaniazko liburuenak. Euskaltzaletasuna ume-umetatik ukan zuen. Eta hizkuntzaren erregistro desberdinen kontzientzia argia ere izan zuen mutikotatik. Aita hizlari aparta zuen, bere arreba Angelita legez (gure ama). Neba-arrebetan eta lehengusu-lehengusinetan antzekorik ez zutela. Erakargarritasuna zabaltzen zuten inguruan adierazkortasun harekin, aditzak ongi josiak eta hiztegi zabala eta egokia baliatuz. Mariok ukan zuen arreba non ipini euskara kontuetan, aitarengan, ahozkoetan. Eta gero, maite zituen autoreak, prefosta. Frankismoaren urte gogorretan, bere adineko beste askoren antzera, sortu zen Kultura-mugimenduan ipini zituen begiak eta belarriak. Hamazortzi urterekila Bilbora etortzen zen lagun batekin motorrean, *Café Concordiako* bileretara, Gabriel Aresti eta beste hainbat erdal idazleen bileretara. Euskarari emana egon zen Cáceresko kartzelan, lehenengo hiru urtetan euskarazko liburu ia denak irakurri zituelarik, Etxeparengandik hasirik eta 1936 ingurura arte, berak zioenez. Liburuak, Koldo Mitxelenak eta Juanito San Martinek lortzen zizkieten eta familiari eman. Marioren lehen lana sintaxia-kaierria sortzea zen. Euskaltzaindiaren eskuetan dago orain –bere euskarazko obra guztiarekin (jogeita hiru liburu)–, Mariok hainbeste estimatzen zuen Euskararen Akademian. Pozik zegokeen gaurko ekitaldia hemen dela baleki. Jose Luis Lizundiak kontatu zidan bera harriturik zela Mariok

Euskaltzaindiaz zenbat zekien ikusirik, hura Akademiako idazkaria zelarik. Eta New Yorken paseoa zirela, Lizundiak politikaz nahi izan zuela berba egin, baina Mariok euskarari buruz eta euskarazko kulturaz. Eta esan dezaket nolako estimua zion Mariok Euskaltzaindiari. Sinetsi ezindakoa, ikaragarria!

Klasikoekin hasi zen, autorez autore, irakurri eta bakoitzaren gramatika aztertu. Batez ere Axular, Leizarraga, Etxepare, Etxeberri Sarakoa, Mogel eta Tartas. Apunte bikainak eta ikusgarriak egin zituen bakoitzarenak. Eskuz, argi eta garbi jarrita, hiru koloretan, bere hizki txiki eta politaz. Esan daiteke, lapurtera (biga behe-nafarrerren eraginekin), bizkaiera eta zuberorearen klasiko nagusien joserik azken detailera arte aztertu zuela. Hemen Euskaltzaindiako liburutegian dago sintaxia-kaier hori, erran bezala. Sintaxiarekin batera hiztegi bi hasi zen egiten, Axularrena eta Leizarragarena. Baina jakin zuenean, *Lur* argitaletxearen bitartez, Villasante eta Aresti ere horretan ari zirela, laga egin behar izan zuen. Urteak geroago, kartzelatik ikiltzean, 1977ko maiatzean Bruselara igorria, *Lur* argitaletxearen ardura hartzekoa zen, baina EIAko buru hautatu zuten 1977ko irailean. Eta gero, Euskadiko Ezkerrarena, 1982an.

Hogei urte inguru zituenetik, literatura euskaraz izkiriaturik zuela erabaki zuen. Jasotzen zuen dena, gero euskaraz kontatzeko erabiliko zuela sentitzen zuen, harturiko erabakia betetzeko. Beste hizkuntzetako hainbat esamolde, euskaraz zelan ipini edo antzekoa bilatzen saiatzen zen. Cáceresen eta Córdoban egin zuen kartzelaldi luzeena. Lehenengoan, ikasi eta irakurri, euskal historia eta literatura, eta euskara bera egin zuen, jo eta su. Euskara gero eta gehiago interesatzen zitzaion. Ez ikastea, hobetzea baino. Baita itzultzea ere. 1973an pentsatu zuen literatura izkiriitzea eta euskara literatur hizkuntza bihurtzea. Euskal filologiazko eta literaturako lan denak sistematikoki irakurtzen jardun zuen. Horrela, euskal idazleak ezagutu zituen, lapurteraz idazten zutenek bereziki, XVI eta XVII. mendetan: Etxepare, Axular, Leizarraga eta beste. Haien estiloa birsortuz egiten zuela pentsatzen zuen. Beste hainbaten artean, hauek ere irakurri zituen Añibarro, Oihenart, Lapeyre, Joannateguy, Manezaundi, Ubillos, Juan Bautista Agirre, J.P. Arbelbide, Campion, Azkue, Altube, Larzabal, Lafitte, Mitxelena (*Fonética Histórica Vasca* eta *Textos Arcaicos Vascos*)...

Hizkuntza literarioa sortzea zuen helburu. Horretarako, itzulpena garrantzitsutzat jota, hamar liburu euskarara itzuli zituen kartzelan. Eta bidean, nobela bi izkiriatu zituen. Klasikoen sintaxia aberasgarritzat jotzen zuen. Gainera, euskal literaturaren joera intimistetatik ihes egiteko bide egokia. Guzti hauek interesgarritzat eta egokitutaz jotzen zituen Mariok itzulpenetarako. Adibidez, Sebero Altuberen joserik ona zela zioen, baina berba egiteko, narratibarako ez, izugarritzako akatsak zituelako. Filologia Erromaniko eta Ingelesean doktoregoak egin zituen, lehenean XVIII. mendeko teatroa aztertuz, ilustrazioaren eragina eta errepublikanismoaren oinarriak ikertuz, kontrapisuz osaturiko sistema politiko bat lagun bakoitzaren autonomia bermatuko lukeena eta bigarreanean, zinema amerikar klasikoaren gidoiak ikusiz. Filosofia Hutsa delakoaren lehen zikloa egin zuen. Euskal Filologia amaitzeko sei-zazpi ikasgai zituela joan zitzaigun. Behin baino sarriagotan itaundu nion ea tesirako gairik edo pentsatua

ote zuen... Klasikoen joskera egokiagoa zen, Mariorentzat, handik urtetara hartu ziren erabakiena baino. Batua, oinarritzat hartuz, behar zen gehiago ikertu, esaten zidan. *Elurtzan...* nobelan nabaria zen joskera klasikoaren eragina, baina gaurko literaturan beharrezkoa zen jendeari interesatzen zaizkion gaiak ukitzea, eta forma aldetik irakurgarriagoa izatea. Ikasketa literario nagusia, batez ere, 1971 eta 1974 bitartean egin zuen, zenbait testu euskarara itzuli zituenean. Klasikoetara jo beharraz konturatu zen, Leizarraga eta Axularren ekarpen handiena beraien sintaxia zelako. Hiztegi aldetik ere bazuten garrantzia. Ez zuen ulertzen gaurko hainbat idazlek klasikoetara ez jotzeko duten aurreiritzia.

Euskararen arazoak, berak zioenez, hauek ziren egun: batetik, hizkuntza indoeuropar aurrekoa da, testuinguru kultural indoeuroparrean. Eta bestetik, hizkuntzaren barne arazoa, bospasei euskalkietan zatikatua dagoelako. Dialektoen batasuna 1964-1968an hasi zen, arau amankomunekin. Mariok zioenez, emaitza da euskara estandarra eta zera ekarri zuen, idazle izan nahi duen belaunaldi oso batek lana egin duela arauok bete nahirik eta, gainera, modu sortzaile batean. Idazleen ardurak 60. eta 70.eko hamarkadetan hizkuntzaren normalizazioa da; lehenengo gramatikak eta gero, lengoaiaren ariketa praktikokoak diren nobelak. Gramatikoek dena arautu nahi izan zuten egin, eta horrek literatura lar lotu egiten du. Eta Akademia garai batean eztabaidan aritzen zen berak Mariok aurretik erabaki eta konponduta zituen gauzetaz, batez ere sintaxi erakoak, bere arabera. Berak klasikoei jarraitzen zien, zioenez.

Hizkuntza bera ikusten zuen oztopo, eta baita euskal literaturan eskolak ez izatea, esaten zuen Mariok. Klasikoak baditugu, baina ez dira klasikoak estudiatzen. Beti esaten zuen gauza bat: beharrezkoa zela euskal idazle klasikoak ikastea eta aztertzea. Hasieran, zioen Mariok, euskarazko literatura gauza guztiz aseptikoa zela, hotza, lehorra, andereñoen berbeta zena, eta apurtu egin behar zela. Apalak izan behar genuela, egiten duguna agian ez da oraindik literatura. Mariok Saizarbitoria aipatzen zuen, eredu gisa. Mariok esaten zuenez, Arestik eta bere taldeak batasunaren eta dibulgazioaren gogoia izan zuten.

Gauza bi nabarmenduko nituzke, berak berbaldi batean esanak: batua bakoitzak beste euskalkiak ezagutzeko balio izan zuela eta iparraldeko idazle klasikoekiko zuen lilura. Euskal literatura nerabe eta barne mundurako egiten zela esaten zuen. Baina beste mundu bat ere eraikitzeke baliatu behar zela literatura euskaraz. Horretarako, Mariok itzulpena oso lagungarria zekusan, adjektiboak lantzeko, adibidez. Berak esaten zuenez, euskarazko literaturan harroegiak ginela, edo egundoko obra galanta egin nahia, edo bat ere ez. Lar puristak, horretan ere. Berak zioen hirurogei urterekin egingen zuela berak *Kixote* moduko lana, eta bien bitartean hizkuntza, gaiak, egiturak eta abar menperatuko lituzkeela. Baina, asko emandakoa eta oraindik asko ematekoa zena gazterik joan zitzaigun, 55 urterekin.

Euskal literatura guztiz intimista izan da, zioen. Errealitatea, erdaraz egiten da. 1970-1985 tartean egin zen literatura, intimista izan da. Euskara pulpitoetan, tabernan eskatzeko, euskaraz eta euskal literaturaz hitz egiteko erabili izan da; baina errealitatea, kanpoko, erdaraz zela guztia, zioen Mariok. Nobela intimista subjektibotik objektibora bilakatu behar da, Faulk-

nerren bidetik. Gure aitona-amonen literatura ezaren bila. Euskal literatura nerabeen gauza izan da, intimista, hizkuntzaren egoera erakusten duena, pentsatzeko erabiltzen dena, baina ez adierazteko zena. Hizkuntza egungo Euskal Herriko errealitate historikora egokitu behar da, edo gauza historikoak egin, nobela historikora jo. Proust, Kafka eta Joycek objektiboa eta subjektiboa batu egin zituzten, narrazio berean, eta horrela kontzientzia indibiduala eta errealitatea, gauza bera dira. Ez dago istorio neutrorik, denek nahi dute politika edo ideologia bat legitimatu, zioen (*La lucha de clases en Euskadi, 1939-1980*, 11. orrialdean, Hordago, 1980).

Euskal literaturak, hirurogeiko hamarkadatik, berrikuntza guztiak nahi izan ditu bereganatu –Camus, *nouveau roman*, Lezama Limatik García Márquezera– eta hizkuntzagatik, intimismo-ra jo du, barne bakarriketara. Horregatik jo zuen Mariok Erdi Arora, eszenario neutralera, lapurtera klasikoa egokia eta normala izan zitekeen garaira. Euskarazko sorkuntzak duen garrantzia ez zela ikusten esaten zuen. Hizkuntzak aurrera egin dezan, ehunka lan eta zinemagidoi idatzi behar dira. Ez da nahikoa nobelak eta gidoiak itzultzea. Euskal literaturarik ez badago, ez dago euskal zinemarik, eta zinemaren arazo nagusia ez da bere egiturarena, aurretiko oinarri literario ezarena baino. Gaelikoak Irlandan ofizialtasuna lortu zuen, baina ez zegoen sorkuntzarik. Latina eta grekoa bezala, funtzionarioek ikasi behar zuten zeozker zen. Eta horrela ez da berbeta bizirik ukaiten.

Euskara gaztelaniaren mailan jarri behar zela, alor guztietan, zioen Mariok. Literaturan lortuko balitz, euskararen eta Euskal Herriaren arrakastarako izango litzateke. Literatura, hizkuntz politikatik desberdindu egin behar da eta premia politikotik bereizi. Literatura politikaren mende balego, politikaren kalterako litzateke, eta gainera politikak kaltea eragin diezaioke literaturari. Honen ostean, euskal literaturak aldaketa izan du azken urteotan, lehen gramatikoen idazkera zen euskara batua, eta normalizazioaren ardura zeukaten. Hauen erreleboa, euskara hizkuntza literarioa legez darabilten idazleak dira. Gramatika aldetik, batua sortu zen. Orain, apurtu egin behar da, hizkuntza literarioa ateratzeko, zioen. Bere idazkeran horrekin apurtu nahi izan zuen. Mariori euskara klasikoa interesatzen zitzaion bere bi adierako elementuak direla eta, iradokitzen duenagatik. Euskalkietan bezala. Idazten zuen edukiak berak, dialekto bat edo bestea erabiltzera zeraman. Aseptikoa zeritzon batua, horregatik klasikoa eta ahozkoa sartzea nahi izaten zuen.

Marioren obra euskaraz

Garai bi bereizi behar lirateke Marioren euskarazko lanei dagokienez, kartzelako urteak 1969-1977, baina bereziki 1973-1977 eta gero, bigarren sasoa laurogeiko hamarkadan, 1983-1990.

A) 1973-1977. Hamar itzulpen egin zituen kartzelan: lau, Marxenak; bat, Althusserrena; bat, Brechten teatroa; beste bat Vachet autore kanadarraren *Ideologia Liberala*, zeinarekin kontaktatu nuen liburu honen ediziorako eta hitzaurre labur moduko bat egin zuen bat ere uste barik, Mariok Itzuli eta 30 urtera, Mario joanda gurela. Stiehlarren Hegeli buruzko liburua;

Fisher austriarra eta geroago eurokomunismoaren aitabitxi-edo izanen zenaren *Artista eta bere garaia*. Frantzia medikuntza egin zen lan bat ere euskaratu zuen. Joera heterodoxoarekin hautatu zituela itzulpenok erranen nuke.

Eta nobela bi, baita giltzapean ere: *Elurtzan datzaten zuhaitz enborrak* izeneko lehena eta Aurrezki Kutxa bateko sari batera aurkeztu ostean galdu zen bigarrena, *Ez gaztanberak hezurrik* izeneko. Bide batez, erran dezadan Jean-Michel Bedaxagar kantari xiberotarra eta laguna dudaren arabera khantore horretako hitzak gaizki direla, "Ez kanaberak hezurri" behar lukeela. Ibili nintzen Aurrezki Kutxa horretan bila, baina esan zidaten uriola, uholdeekin beheko sotoan zeukaten guzia hondatu egin zitzaizela. Urteak geroago, Andres Urrutiak esan zidan sari literarioetatik kopia bat Euskaltzaindiara igortzea zela aski normala eta katalogazio-lanetan dihardutela eta izan daiteke agertzea noizbait.

B) 1983-1990. Kalera irteerako politikaz izkiriatu zuen, bereziki 1977tik 1983ra, hau da bere Idazkari Nagusi urteetan. Gero, bost nobela eta ipuin liburua izkiriatu zituen Mariok, laurogeiko hamarkadan, 1983tik 1990ra. Baita komiki gidoi bat, Jon Juaristirekin batera. Eta itzulpenak ere egin zituen sasoi honetan, gazteentzako lau lan: komiki bi, nobela bat eta ipuin liburua.

Bere nobeletan antzeko gaiak zerabiltzaten beti, pertsona edo gizakiaren askatasuna edo instituzio edo indarraren aurkako borroka, askatasuna lortzeko. Hala nola:

- *Elurtzan datzaten zuhaitz enborrak*: preso baten askatzeaz ari da.
- *Grand Placen aurkituko gara*: neska baten liberazioa, bere buruaren jabe izatera heltzen dena, bera itotzen duten instituzioekin etenaz.
- *Gilen...batxilera*: argi eta garbi, iniziatikoa. Gizon baten izaera nola garatzen den, maitasunari esker.
- *DelRinconen motorra*, etorkin bat marjinaziotik irten nahirik.
- *Olagarroa*: preso baten ihesa.
- *Gela debekatua*: emazte batek senarraren munduaren menpetik irtetzeko asmoa erakusten du.

Ipuin liburua, *Gau ipuiak* deitzen da. Bost ipuin surrealista egina, ametsak edo errealtatea diren argi ez dagoelarik.

Aipatutako garai honetako azken lau itzulpenak, hauek dira: Judith Kerren *Eta Hitlerrek untxi arrosa lapurtu zuenean*, non autoreak bere umetako bizia, autobiografia, kontatzen duen naziengandik ihes. Eta Saki autore ingelesaren ipuinak itzuli zituen, *Bakerako jostailuak eta beste istorioak*. Itzulitako komikiak *Lope Agirrekoa* bata eta bestea *Ateak zabalduta* (*Euskal Panpako kronikak*). Bietan, euskaldunak Ameriketara nola dabiltzaten kontatzen da.

1990tik aitzinera, Zinema kontuetan egin zuena lan Mariok bereziki. Esan behar da Frank Daniels izeneko txekiar zinema zuzendaria eta gidoigilea segitu zuela Europaren zehar, bere

hitzaldiak eta kurtsoak jarraikiz. Honen ondorioz, Madrileko Unibertsitate Autonomoan hasi zen Mario Gidoigintza eskolak ematen. Espainian lehen aldiz antolatu zen honelako ikastaldia. Mariorekin batera Jose Luis Borau aritu zen irakasle gisa, eta baita geroago nahiz eta ez hain sarri Mario Camus eta Carlos Saura. Zinema Gidoigintzari lotutako Fundazioa sortu zuten, Viridiana izenekoa. Aldizkari bat ere argitaratu zuten eta han makina bat zine kritika karrikaratu zituen Mariok. Baita bateren bat hemen Euskal Herrian, eta euskaraz. Honetaz landa, Gasteizko Unibertsitatean Literatura klaseak Ziklo Arturikoaz eman zituen.

Baina, edozein sasoian zela, sekula ez zuen politikaz izkiriatzeari utzi prentsari. Eta kolaborazioak liburuetan (hitzaurreak, zatiak...) hainbat egin zituen.

Bere bizian idatzi zituen 250 artikulua ingurutik, % 15 izan zen euskaraz, eta eurotatik, hogeita hamaika *Egunkarian* argitaratu zituen. Liburuetan, gaztelaniaz zortzi, eta euskaraz hogeita hiru liburu izkiriatu zituen, esan legez.

Literatura-ikuspegiak, ezagututako autoreak

Bere literatur liburuek bi iturburu dituzte, hizkuntza literarioa euskaraz sortu nahia, eta bizitza eta literaturatik ikasitakoaren adierazpena. Irakurleengan sentimenduak esnatzea intentsatzen zitzaion, eta horretarako, nahitaezkoa da norberak sentimendu horiek bizitzea.

Gauza asko bizi izan zituen aurretik jakinik horretaz idatziko zuela. Gauzak gertatu ahala, idazteko zer joko ematen duten begira egoten zen, eta gauzak asmatu egiten zituen. Txikitatik izan zuen joera hori. Istorioak asmatzen zituen –kotxean, edozein tokitan– edota situazioak bizi, gero hartaz idazteko. Izkiriitzen hastea pentsatzen denetik gauzak beste modu batera egiten dira, arreta ipini, gero idazteko. Ez zuen literatura kontsideratzen gauza bakarra bezala. Beste gauza batzuk ere, literaturarekin batera egiten zituen. Beti egin zuen nahi izan zuena.

Horregatik gustatzen zitzaizkion amerikar idazleak, gerra garaian Europara etorri zirenak. Ikusitakoaz idatzi zuten. Ikusitakoaz idaztea zaila izaten da, eta asmatzea, gehiago. Idazlea izateak bizitzeko era bat dakar, Marioren ustez. Egoera askori edo sentimenduei ez zien besterik barik ihes egiten uzten. Gero idazteko aprobeitatu egin behar direlako. Baina, narratzen jakin behar da, zioen.

Bidaia asko, toki askotara egin zituen, lagun asko ezagutu, eta mundu askotakoak. Euskarazko idazle mordoa ezagutu zuela esango nuke eta puntan ibilitako dezente euren artean. Gazte gaztetatik Gabriel Aresti ezagutu bazuen ere, kartzelatik atera eta haren inguruan –eta Enrike Villarrek zuzentzen zuen *Lur* argitaletxearen hurrean– ibilitako idazleekin izan zuen harreman sakonik: Ramon Saizarbitoria, Arantxa Urretabizkaia, Ibon Sarasola, Luis Haranburu Altuna, Xabier Kintana, Xabier Gereño.

Edo hauen aurreko belaunaldiko batzuk, hala nola, Juan San Martin, Federiko Krutwig, Txillardeggi. Edo Anjel Lertxundi. Baita *Pott Banda* izan zenaren partaideak ere, Jon Juaristi, Bernardo Atxaga, Joxemari Jimu Iturralde, eta Manu Ertzila –*Grand Placen aurkituko gara aur-*

keztu ziona Bilboko *Herriak* liburu-dendan-. Hurrengoko edota ia belaunaldi bereko batzuek aipatzeagatik, Felipe Juaristi, Patziku Perurena, Mikel Hernández Abaitua, Tere Irastorza... edo gazteagoetan, Iván Igartua. Hemen batzuk baino ez ditut aipatu, berak literatur munduari zion estimua eta ematen zion garrantzia erakusteko.

Espainiako literaturgileekin ere izan zuen ezagupidea. Bat aipatzekotan, Juan Benetek –gaztelaniazko literaturaren berritzaile nagusienetakoa zenak– idatzitako “Herrumbrosas Lanzas” saileko hirugarren liburua Mariok aurkeztu zion Madrilén 1986an. Edo Javier Marías, Soledad Puértolas, Juan García Hortelano, Luis Mateo Díez, Álvaro Pombo... Literatura galegoko Manuel Rivas, Suso del Toro, Antón Granderekin ere izan zuen hartuemanik, eta katalanak –Montserrat Roig, Valentín Puig...– eta asturiarrak ere ezagutu zituen Verinesen egiten ziren topaketetan.

Teknika izkiriatzera koan

Astean lau liburu irakurtzen zituen, batez beste, zioen. Baina gogoan dut aldi batean, nola komentatu zidan egunean liburu bat irakurtzen zuela. Uste dut, 1985 eta 1988 bitartean izango zela, Idazkari Nagusi izateari utzi zionean. Berezko erraztasunari eta zaletasunari gehitu behar zaio azkar irakurtzeko liburu irakurri zuela kartzelan, eta horrek ere lagunduko zion. Lo gutxi egitekoa izatez aparte. Egunean bost bat ordu egiten zuen lo. Eta gava heltzen zenean –beste Onaindia asko legez-, ez zuen logurarik izaten. Galizian, horregatik, esaten zioten deitura *Onain-dia* izan beharrean, *Ona-noche* izan beharko lukeela.

Nobela bat izkiriatzeko zuen modua honela zen: gai bati buruz irakurri ahal zuen guztia, hilabetetan. Gero, jo eta su idazten zuen nobela, egunean hamar edo bwerrogei orrialde egini. Eta gero, orraztu. Ezin zuen egunean orrialde bi idatzi.

Hizkuntzekiko interes handia zuen. Kartzelan, hamabi hizkuntza inguru estudiatzen eta aztertzen saiatu zen: euskara, ingelesa, gaztelania, frantsesa, alemana, grekoa, hungariera, latina, okzitania, galego / portugesa, italiera... Zer idatzi nahi zuen jakin bazekien, literatur ideiak argi zituen, argi azaltzen ditu sortutako munduen pentsaera eta azalpena, buruan argi zuen gura zuena eta ezaugarri birekin idazten zuen: kutsu zaharkitua eman lanei, klasikoak izan zituelako maisu, eta narratibagintzako hutsuneen kezka betetzen saiatu. Sintaxia ondo menderatzen zuen eta narratzen bazekien.

Cáceresen isolaturik zeuden Mario, Teo Uriarte eta Jose Luis Zalbide. Barruan bizi zuten egoerak ez zuen kanpokoarekin zerikusi handirik. Horregatik, Kafka ikusten zuen Mariok arazoak planteatzeko autore egokitzat problematikagatik eta hizkuntza klasikoagatik, aleman klasiko idazten zuelako. Narratiba berriaz, ukitu esperimentalaz, kortserik bakoaz ere pentsatzen zuen, bere fantasiekin beteriko mundu literarioa eraiki nahirik, literaturaz maitemendurik zegoelako, beste gauza gehiagorekin batera. Idazlearentzako, estiloa planteatzea, traizio kulturala planteatzea da, esaten zuen Mariok. Irakurlearen konplizitatea bilatu behar du erkide diren erreferentzia kulturalekin. Baina literatura denbora-pasatzat jotzen zuen, idatziz betetzen

den afizioa. Sakontasunaren eta esentziaren transzendentzia eman nahia ekintza literarioaren mugetatik irtetea zela esaten zekian. Autoreetaz mintzatzerakoan, kontuan hartu behar da asko eta denetarik irakurri zuela. Cácereseko zuzendariak senideei aitortu zien bisitariko baten harriturik zegoela hirurek irakurriko guziarekin. Hiru mila liburutik gora lau urteetan. Idazle bat irakurtzeko bere modua totala zen. Hau da, lan bat irakurri eta gustatzen bazitzaion, Mariok bere lan guztiak irakurtzen zituen, eta baita haretaz zegoen guztia ere.

Itzulpenaren garrantzia

Euskararen munduan egin zituen ikerketek ondorio bitxi batera eramán zuten, oroitzapenen lehen liburukian dioen bezala (513. orrialdean). Hau da, eskema estalinianoak, eta orokorrean marxistak ere, nazioaz zioena –kontzientzia zuen etnia bat zela– ez zela egia. Aitzitik, euskaldunek Arana aurretik bazutela kontzientziarik. Ikasten zituen autoreek, euren joskeran malgutasuna eta dotoretasuna erabiltzen zutenek, bazuten hizkuntza-komunitate baten partaide izatearen kontzientzia argia. Gainera, Aranaren eragina euskarazko kulturen tipiagoea eta negatiboagoea zen, Leizarraga edo Axularren aldean. Orduan, Mariok bere amamak irakurtzen zuen otoitz liburu zaharra eskatu zien etxekoei.

Heldu zitzaion. *Cristoren pasiñoia* (1902) –hirurehun orrialde ingurukoa– delakoak Axularren moduko prosa zuen. Aldi luzeak, perpaus elkartuak zerizkiela askatasun osoz. Diferentzia bakarra, bizkaieraz zeudela, baina ez zuten Marioren jarrera aldatu. Idazle hauek –eta Larraamendi, Etxeberri Sarakoa, Erro, Astarloa, Novia Salcedo– ondorio batera eramaten zuten, nazioaren eraikuntza ez zela eskema marxistak eta gramsciarrek esan legez, langileriaren eta haren aliatuek, eta aurrerago burgesiak eta berenak, hau da, subjektua, historiaren protagonista eta aliatuak sortua izan, arau batzuek onartzen zituzten lehiakideen batuketa arraro batek baino, nahiz eta beti borrokan ibili. Autore horiek guztiek euren buruek euskalduntzat zituzten, eta besteek ere halakotzat zituzten, nahiz eta argi eta garbi euren buruak kalbinista, katoliku edota Salamancako neoeskolastikotzat jo. Garrantzitsuena ez zen euskaldunek euren hizkuntzaren balio politikoa hartu izana (bere inguruko hizkuntzekiko berezitasuna, herri berezia sortzea, eta horregatik, autogobernurako instituzioak –sistema foraletakoak– sortu izana) ideologia desberdinetakoek euskara erabili izana euren ideiak elkarri adierazteko baino. Leizarraga eta Axularrek hizkuntzarekiko maitasunagatik idatzi zuten, baina ez horregatik soilik, baita euskaldunak euren doktrineta erakartzeko ere. Horregatik, Marxen testuak, euskarara itzuli behar ziren, Marioren ustez. Bere politikazko ideiak ulertzeko. Ez ekonomiaraz zuzenduak, gizarte zehatzetaz idatzitakoak baino.

Arestiren merituetako bat, dio Mariok, erdarazko euskal poeta estimatuenetakoen –Gabriel Celaya edota Blas de Otero– eta euskal kulturaren artean egotea da. Bera da zubi hori, euskaltasunaren eta ezkerreko pentsamendu eta kulturen artekoa. Borroka horrek sinbolizatuko du 60. eta 70.eko hamarkadetan mugimendu nazionalistaren baitan egongo den liskarra. Hala ere, memorien bigarren liburukian Leioan egin zen euskarari buruzko nazioarteko batzar

batean, Mariok kontatu zuen nola kartzelan zegoela liburuak lortzen zizkietenak han zeudela. Hau da, Juanito San Martin eta Mitxelena. Baina, honek ihes egiten zion. Ez zuen Mariorekin egoteko gogorik, edo. Txillardegi ikusi eta batera uste izan zuen ez ziola kasurik egingo eta gogoratu zuen bere nobela existenzialistetan –berrogeita hamarrekotetan idatziak zituenak– zelako eragin positiboa izan zuten beragan. Gero, hirurogeian, militarismoari eginiko kritika zuzenari –Patxi Iturriozek 1966an eta Patxo Unzuetak 1970ean bezala–, gero ez zuela jakin erantzuna ematen, beste biek ere egin ez zuten modura. Baina, berataz hori pentsatu arren, pentsatu zuen mereziko zukeela Txillardegiren lanak berriro irakurtzea, eta politikoki, marxismo leninismoari egiten zion kritika, eta sozialismo humanista baten alde jokatzeko, ondo zegoela. Guztia pentsatzen zebilen bitartean, joan eta eskua eman zion Txillardegi.

Itzulpenari buruzko atal hau bukatzeko, aipatu nahi nuke berak gurasoenera kartzelatik bidalitako gutun batean dioena. Jabier Amurizak ekonomiari buruzko liburua itzuli zuen eta Marioren eskuetara heldu zen. Pozik aipatzen ditu aurkitutako kointzidentziak Amurizak itzultzeratzekoan darabilen estiloaz, 1545 osteko modelo –bere hitzetan– erabili zuelako, eta ez Azkue / Aranarena.

Lehen eranskina: Marioren literatur lanak (nobelak eta ipuinak)

***Elurtzan datzaten zuhaitz enborrak* (1973; argit.: 1977)**

Kartzelara agertu zen mutil bat erotzen hasi zen eta Mariok haren zoratze prozesua segitu zuen, Kafkaren testuen estiloei jarraituz. Martxa handiko pertsonaia da, ero bat. Izenburua ere, Kafkaren “La condena” izeneko narrazio bilduman ipuin batetik hartu zuen, oso poetikoa iruditzen zitzaiolako, enborrak, elurra eta belarra erabiliz. Liburu honetarako, Fischerren liburu bat “Artista eta bere garaia” –Mariok berak euskaratu zuena– oso inportantea eta eragina egin ziona izan zen. Errealismo sozialistaren kontrako tesia defenditzen zuen, artea beste zeozker dela mantentzen zuena. Ez da errealtate objektiboa ispiatzea, pertsona batek errealtate nola bizi duen baino. Nobelaren tesi nagusia da errealtatea menderatu ezina dela, ezagutzen ez dutelako. Inoiz irakurri diot Txillardegiren literaturaren parodia nahi izan zuela izan, edo haren liburuetan agertzen ziren pertsonai sartrianoek kontrajarri ero bat. Oteizaren aitona bien teoriaran oinarritua. *Jon* pertsonaiak Txillardegiren moduko hizkuntza darabil, eta *Len* delako eroak kortserik gabeko hizkera zerabilen. Bi subjektuek bizitzaz bi ikuspegi dituzte eta aurrez aurre daude Lukácsen partikularitatearen espazioan. Izenordez sinatu zuen, *Jon Lariz*. Bere aita jaio zen Gizaburugako okindegiak izena Lariz Oleta zuen, eta handik hartu zuen izengoitia. Geroago, behin erabili zuen, *Oh Euzkadi!* izeneko aldizkariaren hamaseigarren –eta azken– alean argitaratutako lanean, *Nola akatu erlijioa behin betikoz (monoteista purtzil baten erreflesio teologikoak)* izenpetzerakoan. Kafka izen arrunta bazen, Lariz ere hala da, zioen. Eta baita klandestinitateko arrazoiengatik ere. Inoiz esan zidan bera politikara dedikatzen zen idazlea zela, eta *Lariz* sinaturik, literatura mespretxatu egingen lukeela. Liburuak

erantzun eskasa izan zuen argitaratu zenean 1977an, nahiz eta 1973an idatzia izan. Kritika guti, Sarasola, Saizarbitoria eta Ruiz Balerdirena. Konfiantza galdu zuen bere buruaz idazteko. Hau entzun nionean, liburu bat ateratzen zuen bakoitzean, nire apaltasunean, ene iritzia bidaltzen nion. Joan zitzaigun arte.

Ez gaztanberak hezurrik (1975; argitarabakoa)

Zuberoako "Haltzak ez dü bihotzik" baladatik hartua zen izenburua. Bigarren lerroa zen, tituluaren ostean zetorrena. Nahiz eta Jean Mixel Bedaxagarrek komentatu zidan, hango musikaz solasean, "ez kanaberak hezurrik" zela izatez, baina, aldatua zegoela. Hego Ameriketako literatura politiko barrokoaren bidetik eginiko nobela, garai haietan García Márquez asko irakurtzen ari zen aldi baten. Hizkuntza aldetik, klasikotasuna barra-barra ageri da. Esaldi luzeez beterik. XVIII. mendeko euskaraz nahi izan zuen idatzi. Bere ustez Espainiako trantsizioa eta Euskadin egongo zen erregimen politikoa ulertzeko egin zuen. Hau da, arazo ideologikoak konpondu gabe zituen 1936ko egoeraren jarraipena litzatekena. Arazo hauek erakusteko idatzi zuen. Aurrezki kutxa batek eratutako sariketa literario batera aurkeztu zuen –Caja de Ahorros Vizcaina zenera– eta galdu egin zen kopia bakarra. Ibili nintzen, orain urteak, aurrezki kutxa horretan lan horren aztarnen bila, baina ez zen ezer agertu.

Grand Placen aurkituko gara (1982 izkiriatua eta 1983an karrikaratua)

Bere lehen nobelatzat jotzen zuen. Aurreko biak, saioak zirela, zioen. Kartzelan bazuen pentsatua lan hau. Derrigor egin beharra zuen. Ez da autobiografikoa, baina bere moduko batek egin behar zuen. Hasieran, titulua "Penelope" jartzeko asmoa zuen, Ulisesen antzera, emakumea senarrari itxaroten egon zelako, zortzi urte kartzelan eginda. Moduren batean heroia, emaztea zen. Hiru plano daude liburuan. Batetik, gizonaren zain dagoen emakumeak idazten dion gutuna, urte horietaz hausnar egiten duela, nolako gizona aurkituko duen, bion alaba zelan hartuko duen, asko lagundu dion lagun baten berri ematen dion bitartean. Epistola, teknika egokia da eboluzioa adierazteko. Bestetik, Grand Placen zain dagoen kaleratu berri den gizona. Azkenik, Grand Place plazaren beraren deskripzioa. Belaunaldi baten joan etorria jaso nahi izan zuela esaten zuen Mariok. Beste izen bat ere jartzekotan egon zen: "Belaunaldi zurtza". Bere belaunaldiari jazotakoa ezin zen soziologikoki kontatu, nobela baten bitartez baino. Eta perspektiba ez zuzen batetik, emakume batek kontatua baino. Lehen lanean –*Elurtzan...*– ez zen emakumerik agertzen, edo nahiko bigarren tokian. Oraingo nobela honetan, pertsonaia garrantzitsuen da. Sentsibilibitatea erakusten du emakumeak. Gizonoi oso zaila egiten ei zaiguna. Hau idazteko, urte betez idazle emakumeezkoen lanak irakurtzeari ekin zion. Hala nola, Virginia Woolf, Doris Lessing, Simone de Beauvoire... eta gehien irakatsi ziona, Mercé Rodoreda. Detaileak oso ongi lantzen zituelako, gizonon abstrakzioaren aurrean. Ene ustez, 1982an izkiriaturako nobela honetan, dagoeneko heterodoxiarekiko joera erakusten

du. Aurreko urteetan bizi izandako ortodoxia aldatu nahi balu lez, lehengo utzita. Bizitza indibidualaz ere mintzo da, hura erreibindikatuz. Autokritikarako gogoa nabari zaio. Erakunde zertarako sartu aipatzen du. Grand Place deskribatzen duenean, etakide izandako gida turistikoa mintzo da, eta pozik da aitaren tailerra utzi izanaz eta Brusela kosmopolitean ibiltzeaz. 1983ko apirilaren 22an Ramon Saizarbitoriak aurkeztu zuen liburu hau Donostiako *Bilintx* liburu-dendan, Luis Haranburu Altuna editoreak sarrera egin ostean. Manu Ertzillak Bilboko *Herriaken* aurkeztu zuen, eta gero *Joker* kafetegia ohian afaldu genuen eta afal ostean goizaldera arte tabernarik taberna ibili ginen Manu biak, Jon Juaristi eta bera Mario. Azkenean, automobileraino lagundu nion eta Gasteizera abiatu zen. Liburuaren azalak ez zuen esanahi berezirik, baina asko gustatzen zitzaion Mariori. Jon Juaristik itzuli zuen gaztelaniarat *Grand Place* izenburuarekila.

Gau ipuiak (1983)

Narrazio surrealista dira eta irakurleak ez daki ametsak irakurtzen ari ote den, edo ez. Zinema amerikarraren eragina badute. Pertsonaiak era guztietakoak nahi izan zituen erabili. Hemen, Frantziako eraginez, denak katedratikoak dira, eta ikuspegi intimista eta psikologikoa agertzen da. Amerikarretan, oster, Faulknerren pertsonaietan bezala, laborariak, beltzak, askozaz jende herrikoia goa ageri da. Faulkner, Dos Passos, Hemingway eta horien eragina aipatzen zuen Mariok. Pertsonaia urbanoak, eguneroko problematika batean bizi direnak. Dena dela, Hemingway gehiago interesatzen zitzaion pertsona gisa, idazle modura baino.

Gilen Garateako batxilera (1984)

Durango 1443an sortu zen Fray Alonso de Mellaren heretikoen egoera aztertzeko, Erroman dauden kardenal bik tenplarioen azpilana dela pentsatzen dute eta hori jakiteko, gazte bat bidaltzen dute, espioi gisa, han gertatutakoa ikertzera. Gilen, kardinal baten senidea da. Umetan Lekeition eta Durango bizi izandakoa zen. Frantziskotarra zen, eta Italian uste dute heresia gehienak San Frantzisko sakon eta erradikal irakurtzetik datozela. Gai hau, Ecoren "Arrosaren izenean" ere agertzen da. Gero, Granadara doa tenplarioen arabeekiko nolabaiteko harremanak argitzeko. Ondoren, atzera Euskal Herrira dator, "zaldun ibiltari" baten gisara. Neska judu batekin maitementzen da, horrela maitasun nobela bihurtuz. Pertsonaia aldatu egiten da, ez zaldun nobeletakoen modura, non garapenik izaten ez duten. Hasieran, "zaldunen" nobela egiteko asmoa bazuen ere, azkenean "pikareska" nobela egin zuen. Garaiko egitura tipikoa zuen: zerbaiten bila joan, eta aurkitu ala ez, aldatu egiten da. Neska judua sarritan agertzen da, Ivanhoen Rebeca bezala. Walter Scotten eragina ikusten zuen berak. Protagonista pikaro goliardoa da, halako ironiaz eta distantziarekin idatzita. Ezin da abanguardiarik egon, aurretik literatura jasekoa ez badago. Narratzeko lengoaia propioa bilatzen du nobela historikotik gertu, Yourcenarren edo Robert Gravesen ildotik. XIII eta XIV. mendeetako testu arturiko klasikoaren egitura segitzen du nobela honek, bereziki

Tolkienek aurkitu eta 1955ean argitaratutako *Sir Gawain eta Zaldun Berdearena*. Egungo nobela nahi izan zuen egin, baina zaldunen nobelen parodia izango litzatekeena. Eta nola euskaraz genero horretako lanik ez dagoen, hizkera erromantikoa sortzen saiatu zen, “roman” en zentzuan, eta horrela barre egin lan horietan erabilitako hizkerari (*briosos corceles, ojos lapisazules, manos de alabastro...*). Klasikoa sortzen den heinean –ez baitzegoen–, haretaz trufa egin. Ganboatar eta Oinaztarren tartean, heretikoak ageri dira. Ziklo arturikotik eta Britainiako kondaira eta kroniketatik harturiko sinbologia darabil. Garai berezia izan zen. Zazpi urtetan, Durangoko heresia gertatu zen, laborarien matxinada jauntxoek soldaduen kontra, eta handik gutira Foruak idazten dira, non aitonen semeak diren denak. Mariok esaten zuen Durangoko inguru horretan errealismo magikoa egiteko aukera handia zegoela, bertako fantasiarako joera berezkoa kontuan izanik. Gaztelaniazko bertsioan –Jon Juaristik itzulia, *La tau y el caldero* izenez– Abadinoko udal harmarria agertzen da azalean, honako zeinuekin: tenplarioen erromesaren maskorra eta grialaren zeinua den pertza. Europan urte horren inguruan problema asko zeuden laborarien artean, munduaren kontzepzio berriak eta sortzen ziren aldaketak eta, inoiz, iraultzak, hamarrenak, juduekiko eta heretikoek jazarpenak. Horiek guztiak garai horietan gertatzen dira. Garai hartan –XV. mendean– protestanteen erreforma zetorren, eta berarekin europar modernotasuna, eta paralelismoa egin daiteke orduko egoeraz eta ezkerak laurogeiko hamarkadan bizi izan zuen kinka. Durangoko heretikoek –Europako beste toki batzuetan lege–, helburuen arazoa planteatzen dute lehenengoz. Ez salbazioa lortzeko metodoak, salbazioa bera baino, hau da, iraultza. Garaiko berreraiketa literarioa edo hizkuntzazkoa egiten du Mariok. Pertsonaiei une hartako ideologia eta estiloa ematen saiatu zen. Hizkuntzarekin eginiko esfortzuaz gain, nobela bisuala egiten saiatu zen. Euskal eta europar historia, kultura eta literaturaren ikerketa sakona egin zuela esaten zuen. Nerabeentzako literatura errealista laga, eta mundu fantastikoa sortu zuen. XV. mendeko hizkuntza erromantikoa asmatu nahian jardun zuen. Etxeparen oinarritu zen gehien. Kontzesioak egin bazituen ere, orduko moduko hizkera birsortzen saiatu zen. Erdi Aroko kronista bat balitz bezala idatzi zuen. Irun Hiria saria jaso zuen 1983an. Erdi Aroan egiten zuten lez, literatura oso errealista izan arren, intertestualitate mordoa erabiltzen zuten. Gauzak esateko orduan, klasikoek ahotan jartzen zituzten, Mariok berak zionez. Modeloak, Quintiliano eta Ciceron ziren. Berak, Aristoteles, Galeno, Heráclito, Catón aipatu zituen. Euskal Herria, XV eta XVI. mendeetan, Europari oso loturik zegoen. Horregatik, eskolastiko baten buruan sartzeko saiatu zen eta Tabirako heretikoetatik txostena prestatu. Erdi Aroko ipuin bat gura izan zuen idatzi. Lan hau idazten zebilela, kantu gregorianoa entzutera joaten zen Gasteizko eliza batera, lana girotzeko. Lana idatzi eta gero, orrazketa lanak Tunezen egin zituen, hara oporretara joanik.

Lanaren bigarren zatia idazteko asmoaz ibili izan zen –hau nire “Tormesko mutila” da eta bigarrenena, “On Kixote” izango da, zioen–, baina azkenean, beste proiektu batzuetan murgildu zen.

“Delrincon”en motorra (1985)

Laburra da, baina polita. Galego etorkin bat Gernikan kokatzen du, hau da, ez baserri giro hutsean eta ez hiri giro hutsean ere. Tarteko batean baino. Agertzen den pilotaria, Mariok esan zidanez, gure gurasoen lehengusua eta bere garaiko aurrelari onena ei zen Dionisio Onaindian oinarrituta dago. Pilota gaztetan lagata, bere anaia Seberinorekin –Espainiako lutzalibreko txapelduna izan zena– bizi zen, mendira txakurrekin jotzea bere afizio nagusia zela. Marjinazioa erakusten du. Aurrekoetan, erabilitako hizkera klasikoa, ez da hemen agertzen, estilo kaletarragoaren mesedetan.

Arrazismoa da nagusi, integrazio arazoa dago.

Olagarroa (1987)

Preso komun en kartzelan gertatzen da istorioa. Protagonista, Gerardo, bere lagunekin lapurreta egin eta gero, barrura doa. Zazpi urte barruan. Laster irten behar luke, baina lagunek diru asko ordainduta, bera baino lehenago, atera dira. Isabel eraman dute. Gerardo desesperazio latzenean erori da. Hasi, amaitu bezela egiten da, modu zirkularrean, protagonista berriro kartzelan delarik. Kartzela, olagarro handi baten modukoa da, behean zuloak dituen, baina kontrolaturik daudenak eta handik ezin da ihes egin. Teilatutik egin behar da. Bildurrak, frustrazioak, interesak erakusten dira. Pertsonaia bat -Tiranizida, Euskal Herriaren metafora dena- gizon arraroa da, ideologiak zabaldu, kartzela zaindareekin haserratu egiten da, baina ez du zigorrik jasotzen. Ilusioak saldu egiten dizkie presoei, kartzela hutsik dagoela eta ihes egin daitekeela, zuzendariaren botereak ez duela legitimatzerik. Dena hankaz gora jartzea berak oztopatzen du. Eta norbaiti ihes egitea sinistarazi egiten dienez, ez du ihes egiten. Kartzela den munstroaren kontrako borroka da nobela hau. Ardura bikoitz baten espresioa da: mitologia tradizionalaren aurkako borroka, eta borroka horren adierazpen nobelatua eta hizkuntzazkoa. Ideia argi eta ongi tajutua, eta literatur hizkuntzarekiko kontzientzia argia. Sinbologia maisuki darabil. Euskalduna ez dago mundutik aparte, bere borroka munduko borrokaren zatia da, oztopoen kontrako askatasunaren alde. Horra Marioren amerikar traszendentalismoarekiko lotura. Melville eta abarren bidetik. Olagarroa, Moby Dick izango litzateke, munstroa, infernua, gizona preso duena. Azkue Saria jaso zuen 1986an.

Gela debekatua (1988)

“Nora” izan zen lanaren lehenengo izena. Nobelak badu alde gotikoa eta baita intriga edo poliziakoa ere. Banku zuzendari baten emaztea da protagonista; aborto bat izan eta gero, herri batera eramaten dute. Andre hori zenbait gauzetaz nola askatzen den, horren prozesoa kontatzen da, emakumearen ikuspegitik, baina emakumeak berak lehen pertsonan hitz egin beharrean, zine montajearen teknika erabiltzen du eta hirugarren pertsonan mintzo da. Andra-gizonak etxetik aldatu, eta dorre batera doaz. Gela batera ezin da sartu. Dei anoni- moak jasotzen ditu, andreak dena jakin nahi... Andrearen sentimenduak ondo kontatuak dau-

de. Senarra bankuko zuzendaria da, diru mugimenduak zaintzen dituen. Maitalea ere badu kanpoan. Diru asko dabil, arrantza herri baterako. Gehiegi. Eta bankuren bidez zuritzen den susmoa badago. Zenbait harreman sozial ageri dira, ondo islaturik.

Bigarren eranskina. Mario hizkuntzaren batasunaz mintzo

Hizkuntz Batasunarena –edo *bateratuarena*, bere hitzetan–, klasikoen ezagutza zabaletik (kartzelan eta 1970eko hamarkadaren hasieran, inor gutxi egin ordura arte, eta inguru zailean) hasirik, euren sintaxiaren bihotzeraino sartu eta bereganaturik, eta hemeretzigarren mendearen hondarretan hasi zen klasikoekiko haustura arteko garaia ikertu zuen sakonki. Aipaturiko etendura, sasoi honetatik 1950ko hamarkadan berriro klasikoetara jotzen duten idazleak agertu arte, bitarteko Azkue eta Arana, Larramendiren jarraitzaileak ere estudia-tuz. Eta beti, lapurtarrez eta biga behenafarreraz, eta zubereraz idatzi zutenengana itzuliz. Bizkaierazko ekarpena mesprexatu gabe.

Marioren argitaragabeko hainbat lanen artean, kartzelan eginiko hiztegiak eta sintaxiari buruzko lanak badira. Baina, hizkuntzazko lan hauetaz gain, lan teorikoak daude linguistikaz, eta bereziki euskararen batasunaz. Hauetatik batzuk aukeratu ditut eta atal bakarrean batu, in-teresgarriak ikusten ditudalako. Klasikoetatik hasirik, 1968an euskara estandarra finkatu arte, zer pentsamendu, jarrera, proposamen eta abar egon diren modu berezian aurkezten ditu, bere iritzia emanez. 1970ko hamarkadaren hasieran idatzirik daude, baina ez dute gaurkota-sunik bat ere galdu. Garaiko hizkuntza darabil, gaurkoarekiko aldaketa tipi batzuekin egin.

Sarrera

Ez zuten orduko euskaldunek bi hizkuntzen artean aukeratu beharrik ikusten. Aukera, er-dara zen. Kontzientzia falta honek markatzen du euskal literaturaren historia XIX. mendearen bukaeraraino. Horregatik, XVI. mendetik XIX.aren bukaera arte doan epean, erlijio liburu mul-tzo bat eta ezer guti gehiago aurkitzen da. Euskaldunek ez dira euskaraz baliatu bere problema guztiez aritzeko, aitzitik maiz jo dute erdarara. Eta erdaraz eskribatu dira batipat, euskararen defentsa politiko guztiak, edo gehienak bederen, nahiz salbuespen xalogarri dugun Etxeberri Sarakoa baitan; baina salbuespen honek erregla egiaztatu besterik ez dauku egiten, bere obra gauden menderaino argitara ez baitzen. Mugimendu hau “apologiak” osatzen dute eta, batez ere, benetako garrantzia historiko eta sozial batekin, Larramendigandik Novia Salcedogana doa, nahiz gehiago egon, hark baino lehen eta hauen ondoan.

Sintaxia eta Batasunaren Bidea

Inportanteena, mendeen artean iriki den bidea izan da: Aintzinakoengana jo, klasikoak bezala eskribatzen saiatzea, zeren hauetan eriden baitzezakegu elkarrengana ez hurbiltzea, baina denok bat bihurtzea. Arreta handiz, hitzak banan banan hartu dira, baina estiloa eta sintaxia ukitu gabe. Nola behar diren hitzak lotu, hori da aberastasuna, Lafittek zioenez. Lei-

zarraga, Axular, Etxeberri Sarakoa, Mogel... alienigenak dira, ala euren garaiko euskara mintzatuen sintaxiarekin ez daude kontraesanean?

Etxeparek, Leizarragak (batez ere), Axularrek, Etxeberri eta gainerako klasikoek euskal joskera berri bat kreatu zuten, euskara egokituz zer nahi eskribatzeko euskaraz, euskara kulturaren, literaturaren eta zientziaren lanabes bilatuz. Eta sintaxis berri honek ez du ukatzen "joskera jatorra"; bestea ezagutzen dute eta ez dute ukatzen, tankera honetaz baliatzen dira.

Gainditze bat egiten dute, ezagutzatik, baina bere barnean asimilatua iraun erazten duen gainditze bat.

1. orazio mota hauek beharrezkoak dira, baldin euskara egoki bilakatu nahi badugu literaturarako eta zientziarako lanabes.
2. Tankera hauk ez direla erderatik hartuak, baina euskal orazio singlearen sintaxisaren desarroilo normala direla.
3. Garbikeria euskaraz jabetu zen dagino eskritore guztiek edo inportantenek erabili zituztela.

Leizarraga / Axular jarraitu eta ez Astarloa. Euskara aurreratuena, gaiena, egokiena hartu. Klasikoen sintaxiari boikota (nahi zioten egin), Astarloak hitzekin egin bezala. Klasikoen kontrako jarrera: idatzi, mintzatu bezala egin behar da.

Euskaraz ez dago bi sintaxis motarik, bata "jatorra" eta bestea "alienigena", nahiz haro batez zenbait orazio-mota erabat kondenuatuak egon arrotzat. Delako "alienigena" hori ez dago kontraesanetan jatorrarekin, aitzitik; klasikoen baitan argiki dagonez, biek elkar osatzen dira. Bata, hizkuntza mintzatuan guztiz erabilia da. Bestea, ordea, eskribatuan, batikpat.

Euskal Herriak dituen behar eta premia kulturalak euskaraz ihardetsi eta erantzun nahi baldin badugu, euskara zein nahi hizkuntza bezala aldatu egin behar da, euskara landu behar da, sintaxis korapilatsuago bat behar da, esaldi eta arrazonamendu korapilatsuagoak egiteko, baina beti egin den bezala, oraingoa, mintzatua baztertu gabe.

Hego Euskal Herrian, Larramenditik beti gaizki ibili gara. Gatazka, politikan egin beharrean, euskararen etimologia eta etorkia aztertzen eta eztabaidatzen nahi izan dugu egin. Nik ez dut iraultzarik proposatzen hizkuntza kontuetan, baina aitzitik, mende honen [XX. mendea] hasieran egin zen etendura euskaraz alde batera utz dezagun proposatzen dut. Iraultza horretaz uko egin dezagun eta lotu beti eskribatu den euskarari, Etxeparek, Leizarragak, Axularrek, Etxeberri biek erabili zuten euskara har dezagun eta ez beste berri bat asmatu; eta hark gainera beldur gabe ez soilik hitzak banan banan, baina bai ere sintaxisa, asko egokiagoa da egun hamaikak darabiltena baino. Euskalkiak elkar hurbiltzean emaitza euskalkiak hurbildu direla da, eta ez besterik, hortik ez da sortuko idioma berri bat. Hitzak elkartu bai, baina sintaxisa nola?

Euskarari kalterik gehien egin diona, debekuak eta persegizio ofizialez geroztik, horrelako jende mota zan da, garbizaleak. Autoreak dira inportanteak, ez dute euskalki baten idazten,

nahastu egiten dute. Eskritore zaharrek, klasikoek, hurbiltzen gaituzte eta bateratu. Euskalkiak, elkar bereizi eta separatu, hesia dira. Euskalkietatik aztertzen hasi, eta ez dago soluziorik. Autoreak aztertuz, erraza eta aise. Mogel eta Leizarraga hurbilago dira, beren euskalkiak baino. Klasiko guztiek ez dute euskara bera erabiltzen. Baina denei zegokien guna, nukleo, mami bat –so egite batean ez da agertzen, baina estudiantuz gero, aurkitu daiteke hizkuntza mintzatuari dagokiona–. Euskara BAT egin, dialektoak zeharo gaindituz. Beste gauza bat da dialektoak elkarri hurbiltzea.

Klasikoen Hizkuntza eta Euskara Bateratua

Euskara bateratzea, euskalkiak hurbiltzea baino gehiago da. Euskara idatziaren kontra, euskara mintzatua erabili izan da. Baina, euskara bateratua, hizkuntza idatzia da. Bateratua egiteko, idazleen obretara jo behar da. Dialektoak, elkar separatu eta bereiztu egiten gaituzte. Autoreek, elkartu eta bateratu. Bizkaiera, adibidez, bizkaitarren mintza moldea da. Axular ez da Lapurdiko eskritorea, Euskal Herri osoarena baino.

Euskara bateratzeko, klasikoen bidea iriki behar da. Ez gara hurbilduko, bat egingo baizik. Problema, euskara literarioa sortzea da, ez dialektoak hurbiltzea. Euskara bateratu eta gainera, euskara hizkuntza literario bihurtu. Hegoaldean, duela larogei urte [1890 inguruan] etena klasikoengandik ematen da. Ifarraldean, zorionez, gertatu ez zena.

Historian barrena, hizkuntzen bateratzea eta literatura berriaren sortzea elkarturik joan dira. Egun, asko irakurtzen da, sekulako gehien. Baina, eskritore profesionalik ez dago Euskal Herrian. Amateurismoa, arriskua da.

Herria ez da kanpokoekin konforme –nahiz eta problemak antz haundia eduki– bere problemari zehatz erantzungo duen literatura, nobela, saioa, filosofia, erlijio lanak..., baina gure problemak dituzten berezitasun eta zehaztasun orokin. Euskal literatura ez da altxako, honi erantzuna ematen ez badiogu.

Bi problema:

1. euskara literarioa egiteko, euskal literatura egin behar eta ez gramatikak eta hiztegiak
2. literatura herrikoa izateko, herriak egun dituen problemei ihardetsi behar die.

Euskal Herrian, euskal literaturak izan dituen gorabehera guztietan, mugimendu politiko eta sozial bati elkarturik zan dira. Leizarragak euskara erabili zuen, euskaldunak kalbinista bihurtzeko. Axular eta Tartasek, Trentoko Konzilioaren ondoko literatura egin zuten, katolikoak bezala. Euskararen korrante literarioak beti egon dira loturik mugimendu sozialei. Ez zuten nahi euskara filosofia kutsurik zuelako, kalbinismoari garaitu nahi zioten. Lehen aldiz, euskarazko hitz eta orazio-mota guztietaz baliatzen dira, batez ere, Leizarraga. Eta besteek, ondorengoek, ez dute baztertzen aurrekoek idatzitakoa. Hauek guztiok gainerako eskritore guztiak baino literatura gehiago ekoizten dute, eta hizkuntza mintzatu batek literario egiten dituen problema guztiak soluzionatu.

Geroago, ez dute euskara erabiltzen ideologia eta kultura bat kreatzen, baina euskara bihurtzen dute ideologia eta bere balio ideologikoa baizik ez dute ikusten. Bigarren prozesu hau aldeaz kaltegarri, eta aldeaz onuragarri izan da euskararentzat. Larramendi, Astarloa, Novia Salcedo, Arana Goiri, Orixe, Lizardi etab., etab. Eta egungoei esker, euskara, Axularren garaian ez zena, euskaldun guztien nazio-hizkuntza bihurtu da. Baina hegoaldez, denaz bezanbatean, balio politiko honek, bere balio linguistikoa gaingaitzen du, jan egiten du, eta garai batetan mintzatzeko eta eskribatzeko ez deus bihurtzeko arriskuan jarri zuen.

Eguno euskaldunok, nahi edo ez, bi korrante hauen semealabak gara. Lehen korrantea, berez, bakarrik ez da gai euskara nazio-hizkuntza bihurtzeko. Froga, gure gurasoek egin zieten kasuan dugu. Abertzale ez zirenak baizik ez zituzten irakurri liburu horiek, zenbait salbuespenez landa, noski. Bigarren korranteaz, bere "txadon", "ludi", "urrutizkin" etabarrek euskara itotzen zuen, eta literario ez ezik, ia mintzatzeko gauza ez zen bezala utzi zuten. Ez zitzaien axola handirik, gehienei bederen, zeren euskara euskaldunen nortasunaren gakoa bait zen, baina ez euskara erreala, jendea mintzatzen zena, baina edozein. Ejiptikoak bere piramideak bezala edukitzeko baitzen, arrotzei erakusteko.

Gu, bion semealabak gara. Aranistak gara egun euskaraz eskribatzen dugun guztiok, hau da, euskara eskribatzea erabakitzen baldin badugu, Unamuno, Julio Urkixo, Pio Barojaren joera arbuiaitzen ditugu eta Aranari jarraitzen. Baina, gure aranismoa ez da hemendik pasatzen, zeren erabaki hori politikoa da, ez du zerikusirik linguistikarekin. Baina, erabakia hartu ondoan, eskribatzen hasten garenean, gure joerak ez du zerikusirik Aranarekin. Egun [1971-2 inguruan], Euskal Herrian ez dago bat ere Aranaren hiztegi eta gramatika erabiltzen duenik.

"Jakin" aldizkariak, "Eboluzioa ala erreboluzioa?" galdetzen duenean, eboluzioa aukeratzeko denok, baina gure aurretiko iraultza guziak arbuiaitu behar ditugu, zeren, bestela iraultza baten korrantean jarraitzen kausitzen gara. Euskarak mende honen [XX. mendea] hasieran iraultza jasan zuelako, Arana eta Azkue gidari zituela. Batak: euskaratik, Larramendi, Astarloa, Novia Salcedo eta abarretik zetorren korrante bati jarraituz, erdal kutsu zituzten hitz guztiak zokoratu zituen. Besteak: korrante berari darrakiola, baina moderatuagoa izanik, hitzekin orobat egiten ez bazen ausartu, orobat egin zuen orazioekin, "alienigentzat kondetatu".

Guk zer? Iraultza bat bien kontra, azken hogeitaz Aranaren purismoaren kontra egin den bezala. Euskaltzaindia orain 20 urte (1950 inguruan) ez baitzen sentitu erantzule Aranak hitzekin egin zuen etendurarekin. Exenpluz, arima ez da gogoaz, gehiago da. Hitzekin, kontzeptu berria dela onartzen bada, gauza bera sintasiaz. Konstrukzio berriak galdetzen duen hizkuntza bat eskribatzeko.

Euskara literarioa ez da sartzen erreka zuloetako baserrietako hizkuntzekin ez taferna zuloetakoekin harreman eta konpetentzian, baina frantsesa eta espainolarekin, hau da, gainerako hizkuntza literarioekin. Mokoroaren exenpluen aurrean ("euskaraz, nola esaten da...."), [Mariok dio] Ez dakit eta bost axola zait. Axola zaidana, eta asko da hau euskaraz esatea, eta

denok aditzeko moldera esatea da. Are gehiago, euskararen etorkizuna honen mendean dago: gai bihurtzen baldin badugu hori esateko ez dugu problemarik ukanen, ez badugu gauza egiten, ez badugu esaten alferrik gabiltza.

Euskaraz nobela bat eskribatzea ez dago kontraesanetan Arrate Balleko (Eibartarrentzat Arrate Balle, Nabarniz Lekeitiarrentzat dena da, hau da, munduaren azken fina) baserriarren euskararekin, zeren zoritxarrez, hau ez da konturatuko nobela hori argitaratu denik, baina Euskal Herrian nobelak irakurtzen dituenekin.

Euskara ez dute hizkuntza literario bilakatuko, egungo egoera eutsi dadin nahi dutenak, baina euskaraz zerbait esan nahi dutenak. Historian barrena beti izan da horrela. Gehien aportatu zuena Leizarraga izan zen eta ez zuen erabili euskara, hau gal ez zedin, baina euskaldunak kondena eta arbuia ditzeten "Serbeten deabrukeriak". Azkue: moderatuenak. Beti bezala erdian. Eskritore zaharrak kontutan ukan, baina bere obra dialektoen termino multzoetan galtzen delarik; erdaratik datozen hitzak jarri hiztegian, baina galdera-ikurrez(?) beterik.

Nik [Mariok] egin ditudan itzulpenak, liburuagatik egin ditut, ez euskara lantzeko, ez esperimentuak egiteko. Erdarakadaz josita kausituko dituzte: baina hitz bat edo beste aparte, joserakera "arrotz" bat erabiltzen dudalako, hitz honek dituen bi zentzuez: estrainio eta kanpotarra, alegia. Nire esperientzia ez dadin alfer izan besteentzat.

Ene iritziz hedatuegia dago iritzi bat, guti gorabehera baieztan duena gauden garai honetan euskaraz egiten ari garen lan oro esperimentu hutsa dela eta ez duela baliorik, edo balio handirik bederen, oraino euskara seaskan dagoela eta zenbait kultur alorretan, guztiz ere, zientziatzko liburuetan. Horrek iradokirik, jende gehiegi ari zaiku oraino euskaraz jorratu ez den eremu berrietan, baina ez bere interes bat dutelako alor honetan, baina lehenak izateko nahiz edo euskara lantzeko gura soilez. Nik kaltegarri deritzat portaera horri eta gure maila kulturalaren apaltasunaren salatzaile aparta. Izan ere, portaera horrek ez gaitu harritu behar gatozen lekua eta maila ezagutuz: euskara abertzaletasunak itorik zegoena eta nolabait erbaildurik haren baliostasunean kulturaren eta ideologiaren tresna izateko, Axular, Leizarraga, Kardaberaz eta, oro har, mende honetako hasierako eskritorerik gehienentzat. Eta hor ez dakusat erdiko biderik: edo euskara hizkuntza xahu garbi bat egin (kanpokoak harritzeko, jakina) edo elkar ulertzeko erabili (konkreta dezadan puntu hori: zertaz dugu elkarrekin ulertu behar? Sermoiak? Arantzazuko Amabirginaren kalendrera? Tabernazuluetako eztabaidaz? Zakurrak agintzeko: hator! hoa! Kalerat! ala kulturaren babes eta tresna izateko. Azken puntu hau, jakina, gainerako beste gauzetarako beti balio ukan baitu eta baitu euskarak. Kulturaren babes bezala ukan duen eta duen balio hau uste dut anitzek ez duela guztiz klarki eta horretaz aritzea ezin besteko deritzat.

Gauden mende honetan, gehiago enplegatu dugu euskaldunok euskara aztertzen, euskal gramatika egiten, euskaraz baliaturik gure eztabaida politikoak argitzeko eta literaturgintzan aritzeko baino. Diodan honen exenplurik argienak Azkue eta Sabino Arana dugu, askorentzat euskararen alorrean maisu eta eredu jarraile direnak oraino.

Zer eskribatu zuen Azkuek euskaraz, zer euskarari buruz? Euskaraz deus guti eta gehiena herriaren ahotik hartu eta berak apainduta. Euskarari buruz? Gehiegi, larregi. Gehiegi, funtsean bere garaiazen seme izanik, euskara aztertzen ari zenean ez zuelako libratzen –gramatikalariek zer dioten baztertuz– jendeak orduan eta historian barrena erabili duten hizkuntza, baizik eta beste inguruko hizkuntzekin zerikusirik ez duten gauzak. Jakina, berezkuntza horretan ezin bestez erori behar ukan zuen pertsonalkerietan. Ikuspegi subjektiboetan, eta erori egin zen.

S. Aranek bestalde, bere garaiko –eta Euskal Herriaren aurreko garaietako seme zela, huts berberak– eta handiagoak egin zituen; hain garbitu eta xahutu zuen euzkera, non ezin baitzen balia beretaz euzkaldunei zein zen bere aberria erakusteko, tituluak eta erakundeen slogan eta izenak jartzeko baizen ez zuen balio haren eskutan. Eta hori ezin bestez zen, itzulpiderik gabeko karrikan sartu zuelako bere burua, eta ez garai hartan euskara karrikan jendartean kausitzen zen egoera eta mailaren kariatz. Orduan egun baino euskaldun gehiago baitzegoen.

Tinta gehiago joan da euskarari buruz eztabaidatzen, euskaraz eskribatzen baino. Gure artean egon diren banaketa eta etendurak Historian barrena sakonegiak izan dira eta euskara aspalditik politika-gatazka guztien gai eta alor bilakatua, literaturaren mailan etendura hauk ez jasotzeko.

Baina zuzentzeko garaian gaude, sekula ez da kausitu euskara hain goruntz indartsuan, inoiz ere ez dira Historian egon egun bezanbat liburu argitarat eta, enetatzat erabakileena eta inportantena, sekula ez da hain argiki kausitu euskarak zuen balio politikoa, euskaldunen nazio-hizkuntza bezala, zeren 1936ko gerla aitzinean, euskarak politika-kutsua bazuen ere, bazegoen Euskal Herrian populuaren sektore bat joera erabat argia ez zuena Euskal Herriari eta beraz, euskarari buruz, eta euskararen parte bat hartu zuena ez beretaz mintzatzeko, baina beroni buruz mintzatzeko. Urkixo, RIEV eta honelako jende moduez ari naiz.

Hauen aldean, Sabindarrak, Sabineek berak egin zuen, “garbitu” zuen euskararen defendatzaileek, zeintzuentzat euskarak erdararen antza zuen oroz ukatu behar baitzuen, bai Eliza eta Mundua bezalako hitzak, bai eta batez ere, erdararen antza zuen “joskera” tankera oro.

Talde batek ez besteak ez zuten egin obrarik oraingo eskritoreentzat jarraigari agertzen denik, nahiz eta talde batetan idazleak egon, besteak euskara estudio-gai erabiltzen zuen bitartean espainol, frantsez, ingeles, aleman eta are latina (!) erabiltzen zuelarik bere estudioetako (hizkuntza hauetan eskribatua baitago RIEV).

Halaz ere, gerla ondoan, dena, euskara osoa politizatzen da. RIEV bezalako aldizkariak ere debekatuak gelditzen dira. Garai honetan ez da hain klarki agertzen euzkeraren aldeak. Berdin da “Txandon” edo “Eliza” esatea. Biak daude guztiz debekatuak. RIEV bezalako gauzak gerizatzen zuen taldeak ezabatu egiten dira, lurrak iraungiak bezala.

Euskal Herriaren etsaiek, Larramendi hiztegia eta gramatika egitera, Astarloa Apologia egitera behartu zuen jarraileek euskara bateratu zuten erabat eta behin betirako. Hala ere,

bateratze hau politikoa da, eta ez linguistikoa. Orobat daiteke “eliza” edo “txandon” esatea, baina guardia zibil baten aitzinean, ez euskaldun baten aurrean.

Halaz ere, euskararen bateratzea serioski planteatzen daitekeen inguramendua eta baldintzak gerturik daude, 1950 aldian prestatzen da lehen aldiz euskararen bateratzea klasikoak jarraile eta irudiztat harturik egin behar dela. 1960 hamarkadan, mugimendu politikaria goraka ari denean, “batasuna” euskararen hitz entzutetsuan bilakatuz doa. 1968a da gaurdagino prozesu bi hauen tontorra. “Batasunaren Kutxa” eta orok buruan dugun gertakariak hilabete beretan jazotzen dira.

Halaz ere, bultzada izugarri honen ondoan arriskutan gaude bat bedera bere euskalkian gelditzeko, duela hamar urte baino hurbilago baina gipuzkera, bizkaiera etab. izaten dira hizkuntza batetan. Eta ez dago itzulpiderik, ezin daiteke pauso gehiagorik eman. Orain urrats egiten dugu, klasikoak izan ziren bezala onartzera eramaten gaituen urrats bat, ala behin betirako gelditzen gara egungo egoera honetan, editorial bederak bere buruz dialekto batetan eskribatzen duelarik.

Hirugarren eranskina: hizkuntza eta gizartea

Euskaltzaletasunaren sentimendua, jarrera naturala izan behar zuela ustkoa zen, eguneroko euskaldunen gauza, pisu metafisikorik bakoa. Hori izango litzateke komunitate naturala. Euskararen egoera asko hobetu zela esaten zuen. Lehen ez zegoen batere dirurik eta gero, miloiak. Baina arazoak ere ekarri zizkigula: batasunarena. Batasuna, zioen Mariok, Arestik eta bere ingurukoek egin zuten. Baina, hauek egin beharrean, apaiz kontserbadoreek egin behar zuten; eta herri-hizkera, gazteek bultzatu. Baina alderantziz izan zen: apaiz nagusiek euskalkietako herri-hizkerak bultzatu, eta gazteek hizkuntza estandar arautua zaindu, eta ez gazteriari gustatu behar litzaiokena egin, arauak apurtu. Uste genvela askok euskara batu eta gero, dena konpondurik egonen zela, baina telebistan entzuten den euskara ondo dagoela euskaltegiak ikasleentzako, baina jende askok ez duela ulertzen, esaten zuen Mariok. Zorioneko problema da, baina azken finean, arazoa.

Marioren iritziz, legitimazio soziala izan du eta hori euskararen kapital handiena da. Lehen “habla en cristiano” esaten zuten euskara denda batean entzunez gero, eta, orain, “perdona, no sé euskara”. Aukerakoena, denek euskara ikastea litzateke, baina hori bakarkako lana da, eta euskaldunen –euskaradunen– eskuetan dago gakoa. Inzentiboak, pizgarriak, eman behar zaizkio euskarari, baina ez da politizatu behar. HABE eta AEK bultzatu beharrean, dirulaguntzekin batzokietan euskaltegiak zabaltzen ari zirela eta garai batean kexu zen Mario. Euskara alderdi batzuei lotzea, gerta dakiokkeen gauzarik arriskutsuena zela esaten zuen. Go-goan dut, autonomia prozesua hastear zegoela, autobusean nola komentatu zion gure amari euskararen zabaltzea eta lanetarako eskakizun gisa erabiltzea kontuz egin behar zela, inor zapaldu barik eta gauzak ondo pentsaturik. Jendea euskararen aurka ez jartzeko. Garrantzitsua da hizkuntza bat maite dela erakustea, baina norberak egin behar du lana, bai idazlea-

rena eta bai irakurlearena. Gauza sinbolikoek –Korrika, Kilometroak...– eragin laburra dute. Euskara salbatzeko ekintza kolektiboak muntatu egin izan dira. Ez da ulertu nahi berbeta banan-banan ikasten dela. Hala zioen. Era berean, euskara ikastea norberaren arazoa bada ere, harriturik utzi ninduen laurogeiko hamarkadaren hasieran esan zidanean, euskara soilik jakitea ez zela nahikoa. Ze, azkenean, batek euskara baino ez bazekien, Mariok zioen, “euskara baino ez dakik? Hi, kale-garbitzaile”. Beste zerbaite ere jakin behar zela nahi zuen adierazi. Eta baita euskarazko eskolak emateko ere. Edo, batez ere. Filologia, kasurako. Mariok zioen jendea euskaldundu egin dela euskara ofiziala delako, ez gizarte mugimenduengatik. Nafarroako erregina zen Joana de Albreten garaian (1555-1571) berak bultzatu zuen *Itun Berria* Leizarragak euskarara ekartzea. Orduetik, ez da egon euskararekiko joera positiborik 1980ra arte. Orduan, euskarak zero pezeta zituen eta geroago, hogeitertan, 50.000 miloi pezeta. Eta horrek ematen dio historiako bultzadarik inportanteena euskarari. Jende askok eta askok ez daki euskararik, baina bere zergekin ETB ordaintzeko prest dago. Edo egunkaria. Gauzak borondatez egin behar dira. Baldin norbait balego euskaraz egin nahi duena, bada, munduko laguntza guztia eman, baina ez da apurtu behar oreka, ez bortxatu ezin duzuna. Uste zuen kaltegarria zela horrelako polemika kaskarrak sortzea, honi buruz denok dugulako praktika integratzaile eta tolerantea. Beraz, ez dugu tradizio hori apurtu behar, eta politika zientifikoagoa egin behar dugu. Ikusi egin behar da zer dagoen egiteko gizartean bertan, instituzio publikoetatik at, euskara gehiago garatzeko. Baina, politikaren ikuspegitik ikusita: onartu behar, horrez gain badaudela beste sentsibilitate batzuk, eta horiek kontuan izan behar direla, jende guztia ados jartzeko. Eta hori ez da inolako nobedadea. Uste dut hori dela Euskal Herrian egin den politika, nahiz eta jendeak baloratu ez, jendeak nahiago du iskanbilak eta diferentziak nabarmendu, zioen.

Euskara arma politiko bezala erabili da eta maiz banakuntza sortzeko. Alderantziz egin beharko genuke, demokrazia zaintzeko erabili.

Laugarren eranskina: hizkuntza-politika

Euskara inoizkorik egoera mesedegarrienean eta onenean zegoela esaten zuen Mariok. Berrogei urteetan hilzoritik aurrerapauso nabarmenak ematera pasatu da. Abertzaletasunak euskara berpiztea ekarri zuen –batzuen *erradikaltasunak*– eta demokraziak beste bultzada bat eman diola, formazio politikoaren adostasunean oinarrituta. Baina beste alde bat ere kontuan hartzekoa zela zioen, erdaldunen erosotasuna funtsezkoa izan dela. Irakaskuntzan ia protestarik ez da egon irakasleen euskalduntzea ahalbidetzeko saioan, eta horrek euskara irakaskuntzan arrakastaz sartzeko ekarri zuen.

Euskara normalizatzeko, telebista bezain inportantea egunkaria dela zioen. Literaturarekin mundua sortu egiten dela askatasun handiarekin, baina egunkari batek hizkuntza bortxatu egiten du eta alor guztietara hedatu beharra dago. Hezkuntzaren sistemak demokraziaren baloreak garatzeko balio behar du, eta euskararen eta gaztelaniaren kulturetatik, bietatik, parte

hartu dezaten hiritarrek euren prestakuntzarako. Euskararen gaia borroka politikoetatik atera egin behar dela, eta arlo zientifiko batean planteatu. Denok gaude euskararen alde, euskarak izugarritzko garapena izan du hogeitaz urteotan eta ez dugu apurtu nahi hori, baina arlo zientifikoago batean planteatu behar da, esan zuen. Borroka ez da euskara eta erdararen artean. Instituzioetan, euskararen aldeko jarrerak hartu behar ziren. Adibidez, orain urte asko komentatu zidan nola bera izan zen Legebiltzarrean idazleei laguntasuna ematea proposatu zuena. Oso zaila dela idazleak kobratzea. Politika editorialak ez dio bat ere laguntzen idazleari. Kobratzen ez bada, idazteari utzi egin behar diola idazleak. Horregatik, irakaskuntzan, profesio edo lan liberean ari dira gehienak. Laguntza eman behar zitzaizela idazleei komentatzen zidan. Berak proposatu egin zuen Legebiltzarrean hau, lehenbizikoz, esan zidanez, eta baita AEKri ere laguntasun ekonomikoak ematea. Geroago, *Euskaldunen Egunkariari* ere laguntza ekonomikoak ematea proposatu zuen Mariok. Behin baino sarriagoetan entzun nion Mariori beretzat lege garrantzitsuenak Autonomia Estatutua zela, eta gero Euskararen Legea eta Eskola Publikoarena. Guzti hau bere erran batean ikusi daiteke: "HABEri dirua eman behar bazitzaion, ez zedila izan AEKri kenduta, Guggenheim Museolari baino".

Bostgarren eranskina: hizkuntza - politika plana

PSE-EE gobernura indartsu eta sendo helduz gero, Mariok Hezkuntza eta Kultura Sailak, eta Hizkuntza Politikaren idazkaritza elkartzeko asmoa eta plan zehatza zuen, 1994an presatua. Uste dut garrantzitsua dela plan hori hona ekartzea, zeren, berez, oso interesgarria baita eta honen berri inon ere ez zen ezagutzero eman, *Argia* aldizkarian izan ezean. Eta, bestalde, Marioren euskaltzaleasuna erakusten duelako, baina ez ikuspegi pertsonal literariotik, denon mesederako baino. Bere politikari izatea euskaltzaleasunari lotua. Hezkuntza Sailak koordinazioa egingo luke aipaturiko beste sekzioekin. Kultura eta Hezkuntza elkartu ondoren, maila bi bereizi egin beharko lirateke: lan zientifikoa eta administrazioarena. Unibertsitatean, soziolinguistika sail zientifikoa osatuko litzateke, hizkuntzaren eremu guztietan egoera aztertu eta gero, hartu beharreko erabakiak eta lanak egiteko. Adituekin eta zientifikoekin osatu egingo litzateke departamentu edo sail hori, alderdiekiko erabateko autonomia izango lukeena. Horrela, euskararen inguruko eztabaida, politikaren eta ideologiaren esparrutik atera egingo litzateke. Administrazioak sail horrek agindutakoa bete egin beharko luke.

Balizko soziolinguistika bulego berri horren betebeharra hau izango litzateke:

- hezkuntza ereduaren emaitzen azterketa egitea,
- administrazioaren euskalduntzearen jarraipena,
- helduen euskalduntzearen eta alfabetatzearen diagnostika egin eta plangintza berriak proposatzea,
- edota udal elebakarren jarduna eta dinamika aztertzea.


Hizkuntza Politikaren Idazkaritza Nagusiaren zeregina zalantzan ipini behar litzateke. Eta, lehenik eta behin, Lehendakaritza Saitetik atera.

Behin Unibertsitateko sail berria osatu eta gero, Hezkuntzak ardura zabalagoa izango luke. Hala hola, helduen euskalduntzea eta alfabetatzea Hezkuntza Saileko gauza izango litzateke, PSE-EErentzat. HABE, Kulturatik kendu, eta Hezkuntzara joanen litzateke. Mariok hau esaten zuen, garai hartako eztabaidak HABE eta AEK artean puri-purian zeudenean. EITBren funtzio-namendua, Kultura Saitetik kendu eta autonomia izango litzateke.

Mariok aipatzen zituen beste bi ardatz, hauek ziren:

- herri ekimenak eta administrazioaren arteko elkar ez ulertzeak, konponbidean ipini beharra zegoela. “Herrigintza” esaten zion. Adibidez, *Egunkariari* publizitate instituzionala jartzearen betoa jaso. Gero, elkarlan zintzo batean, ea *Egunkaria* nola zabaldu egin zitekeen. Betoa jasotzea ezin izan zitekeela presentzia instituzionalaren truke.
- euskal agente esanguratsuenekin –idazleekin, kasurako– harremanak normalizatu. EAJ-PNVko apaiz zaharrak eta idazle aurrerakoien artean urtetako banaketa egon izan da, eta EAJ-PNVk ez zuela, Mariok zioenez, ezer egin hori gainditzeko. Premiazkoena, edozein politika egiteko, alde aurretik euskal munduarekin eztabaidatzea litzateke.

Laburbilduz, kultura munduko agenteenganako hurbilketa egin, urrats garrantzitsua izango litzatekeena. Lehenengoa, Unibertsitatearen eta idazleen mundura hurreratu. Gero, herri ekimenetan elkarrekin egitasmoak egin eta aurrera atera. Geroxeago, administrazioa euskaldundu. Eta horretarako, Unibertsitateko sail soziolinguistikoak alor hau aztertu eta diagnosia egin beharko luke. Hainbat erakunderekin harremanak argitu. Bereziki, Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntzarekin. Unibertsitate mailako egitura berrian lan alorrak zehaztu. Eusko Ikaskuntza, eztabaida kultural eta ideologikorako toki aproposa litzateke, eta batetik Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa, Nafarroa bestetik eta EAEko unibertsitateen koordinazio eta topaleku baliagarria. Programan esaten zuen konturik interesgarriena da instituzio zientifiko bat egin behar zela gauzak aztertzeke, euskara ez zedin egon beti auzipean, edo debate ideologiko baten barruan. Plan interesgarri hori ez zen gauzatu sozialistek hauteskundeak irabazi ez zituztelako, nagusiki. Baina, 1999tik aurrera bizi izan zen giroa, mehatxuekin, bizkartzainekin, politika ahari topeka bihurtu zenean, eta Marioren osasun arazoak sortzearekin batera, pott egin zuen Mariok sortutako Plan honek. Asmo bikaina, baina sarritan jazo zitzaion bezala, aurreratuegia eta sakonegia herri honentzat.



MARIO ONAINDIA ETA OLAGARROAREN GARROAK¹

IVAN IGARTUA

Inoiz ahaztuko ez dugun 2011ko urriaren 20an, albistegi guztietan terrorismoaren amaierari buruzko berria zabaltzen ari zirela, Mario Onaindiaz gogoratu nintzen, ezinbestean. Jende gutxi egongo da gure artean Mariok beste borrokatu zuena, bide politiko zein intelektualetatik, ETaren eldarnio kriminalarekin, eta euskal gizartearen izan zuen babes nardagarriarekin, bukatzeko. Inork gutxik desiratu eta irudiztatu zuen Mariok egin bezala talde terroristaren itzalik gabeko euskal gizarte bat. Joan den mendeko laurogeigarren hamarkadan egindako elkarrizketetan dagoeneko aurreratzen zuen tamalez ezagutuko ez zuen terrorismorik gabeko egoera baretua. Historia eta bizitzaren laidoen artean geratuko da kronologiaren bidegabekeria hori. Erretiraren heroia errentzat (heroi ironikoarentzat, Antonio Muñoz Molinak deitu zion bezala) bere ahalegin eta nahi barrenekoak behin betiko gauzatzen ikusteak bidezko eta merezitako emaitza behar zuen izan, baina zortzi urte lehenago denbora, ongi dakigun bezala, agortu egin zitzaion.

Erretiraren heroia bere esku egon zitekeen guztia egiten ahaleginduko zen helburua lortzeko, alegia terrorismoa eta

indarkeriaren azpikultura erotik desagerarazteko, garai batean sortu eta hazitako munstroak abian jarri zuen bide ankerra ahalik eta lasterren eten behar zelako konbentzimendu osoak bultzaturik. Hans Magnus Enzensbergerren kontzeptu famatuan (*El País*, 1989) ez dira sartzen aukera gaiztoak bazter utzi eta beste bide pertsonal bati ekiten diotenak, baizik eta sistema zital baten baitan edo handik urrunduz hura desegiten laguntzen dutenak. Mario Onaindia guztiz jakitun zen bere zereginetako bat, menturaz nagusia, xede horrekin lotua zegoela modu askaezinean, ziur aski, eta horren erakusgarri dira gaiaren inguruan idatzi zituen hainbat artikulua eta saio labur. Buruan zerabilen ideia oso era garden eta zehatzean formulatu zuen tarteka. Honako pasarte esanguratsu honetan, adibidez: "Francoren kontra borroka armatua bultzatzeak gero demokrazian terrorismo bihurtu den praktika bat sortzen duela bistakoa da" (*"Lurra eta askatasuna"*, *Egunkaria*, 1995). Marioren gogoetak izan zezakeen hor bere bizi-penetatik zerbait, edo zerbait baino gehiago akaso, testu berean orokortze maila jakin batera iristen baita: "Zein ahul eta fina den

onaren eta gaitzaren artean dagoen muga. Gauza onek ondorio kaltegarriak ekartzen dituzte”, eta artikulua, akabuan, honela borbiltzen du:

Nahiago dut pentsatzea demokrazia gauza ahul eta fina dela eta egunero sortzen dela. Egunero behar dugu landatu, ur freskoa bota eta hautsa garbitu. Lehenago egin genituen gauza onen ondorio txarrak garbitzeko. Eta zer esanik ez lehenago egin genituen gauza txarren ondorio txarrak kentzeko.

Egitasmoa ezin zen argiagoa izan, erretiraren heroi bati dagokion zereginaren (edo patuaren) seinale. Kontzientzia hori, garai batean ereindako lurraren fruitu kaltegarri eta are izugarriak ere deuseztatzearen beharrarena, behin eta berriz azaleratzen da Marioren lanetan, gogoeta historikoa, literatura, gidoigintza edota euskara eta elebitasunaren –hots, bere gai begikoenen– gainetik. Bazekien, ongi jakin ere, terrorismoarekin bukatzeak esan nahi zuela hura elikatzen zuten sinesmenak, euskal gizartearen gutxiengo batek –baina hala ere jende mordoxkak– bere eginak zituenak, agerian jarri eta ezabatu behar zirela, balio demokratikoez ordeztuz. Gizatalde horretako kideak eskema demokratikoan integratzea izan zen denboraldi batez Marioren obsesiotako bat, eta hori lortzeko garbi ikusten zuen ETAk ahalik eta ahulen egon behar zuela, haren ingurukoak –edo inguruan ibilitakoak– sistemaren arauak onartzen hasi zitezen behingoz. Ilustratuen antzera, prest zegoen bizitza politiko normaldu batean haien ikuskera eta iritzien plazaratzea onartzeko, nahiz garbi

adierazia zuen (Fernando Múgicaren erailketaren ondorengo artikuluan, hain zuzen) ideologia guztiak ez direla zilegiak (“Poto”, *Egunkaria*, 1996).

Piztiari dagokionez, hura ahultzeko zuzenbideko estatuaren baliabide guztiak erabili behar ziren, olagarro erraldoiari zenbait norabidetan zabalduak zituen garroak moztzen joateko. Hortik jo behar zela, atakatik irteteko beste biderik ez zegoela, garbi ikusten zuen erretiraren heroiak; ikusi eta ezagutu ez zuena, damurik, prozesuaren beraren amaiera izan zen, behin betiko arma uztea eta ondoren, handik urte batzuetara, ETArek desagertzea. 2011ko urriaren 20an Mario Ona indiaz oroitu nintzen, ezinbestean, harentzat egun bereziki garrantzitsua izango zelako, ikustea merezi zuena inondik ere, 850etik gora hildako eta sei mila zauritu baino gehiago eragin zuen olagarroa akabatzeko berak eta beste askok egindako horrenbeste ahaleginen ostean.

Terrorismoaren aurkako antidoto ezagun bakarra demokrazia dela idatzi zuen behin (“Euskadi e Irlanda”, *El Periódico de Catalunya*, 1995). Demokraziaren bideetan sakontzeari ezinbesteko irizten zion Trantsizioaren prozesua azken muturreraino eramango bazen, elkarbizitza bermatzeko, besteak beste. Espainian, oro har, ez zuen arrisku nabarmenik sumatzen laurogeita hamargarren hamarkadan; aldiz, Euskadin, trantsizio politiko itxuraz amaiezina deitzen zuen horretan lehenik eta behin euskaldunen (“basko”) arteko gatazka konpondu behar zen. Eta gatazka horretan bi kontu nagusi azpimarratzen zituen Mariok, biak ala biak gaunditu beharrekoak: alde batetik, abertzaleen artean hedatuxe

zegoen bazterketa sozialaren tentazioa eta, bestetik, balio-sistema komun baten gabezia ("Fuerismoa eta autonomismoa", *Egunkaria*, 1994).

Esklusioaren tentazioez (noizbehinka eskusibismoa deitzen zuen horretaz) behin eta berriz mintzatu zen bere idatzietan. Ekimen zatitzaile horren asmoa begi-bistakoa zen Mariorentzat: euskal nazionalista sutsuenentzat abertzaleak ez diren hiritarrak ezin dira komunitatearen osoko kide izan eta ezin zaizkie, hortaz, eskubide berak aitortu (bozketarako eskubidea horien artean). Zenbaitentzat euskal nazioaren eraikitze prozesua ez baita aukera politiko bat, beste batzuekin lehia irekian aritu beharko lukeena, baizik eta ezinbestean gauzatu beharreko egitasmo kolektiboa. Totalitarismoaren zantzuak ez ziren soilik ETaren jardura hiltzailean sumatzen; terroristena, egiazki, proiektu derrigorrezko horren adierazpenik krudelena izan zitekeen (baita koherenteena ere, begiz jotako helburuak lortze aldera), baina hiritar ez-abertzaleen bazterketarako joera nazionalismoaren beste adarretan –beste garroetan– ere antzematen zen oso argi. Ikuspegi eskusibistak lurraldearen kontzeptzio patrimonialista bat dakar berekin ("Lecciones tras una tregua", *El Periódico de Catalunya*, 2000), biztanleriaren errealitate anitzarekin talka egiten duena. Horregatik sentitzen du nazionalistak errealitate deseroso hori alde edo moldez aldatu eta bere interesetara egokitzeko premia. Nazioaren eraikuntzaren definizio zehatz bezain gordina eman zuen Mariok "Miguel Ángel, asesinado otra vez" artikuluan (*El Periódico de Catalunya*, 1998): nazio eraikuntzaren estrategiak

euskal nazionalitatea –euskal gizartea– bi komunitate antagonikotan zatitzea suposatzen du, eta horren adibide lotsagarri eta barkaezina izan zen Lizarrako ituna, EAJ-PNVk, HBk, EAK eta Ezker Batuak sinatu zutena, ETaren xede jakin batzuekin bat egiteko. Abertzaleen nazioaren eraikuntzari Mariok euskal nazionalitate anitz baten eraikuntza kontra-jartzen zion ("euskal" hitzaren azpian "basko guztiak" ulertuz, edo, bestela, "Euskadin bizi diren hiritarrak", Autonomia Estatutuari jarraiki). Horretarako bi baldintza nagusi bete behar ziren nahitaez: alde batetik, onartu behar zen "baskoa" izateko ez zela zertan abertzalea izan eta, bestetik, sistema demokratikoaren defentsa bateratua egin behar zen terrorismoaren aurka ("Un gobierno vasco transparente", *El Periódico de Catalunya*, 1998). Bigarren baldintzak demokraziaren zutabeak errespetatu eta babestea eskatzen du, eta zutabe horiek aski ezagunak dira: Konstituzioa eta Autonomia Estatutua. Badakigu zer-nolako begirunea izan dieten bie alderdi abertzaleek ("¡Viva la Constitución!", *El Periódico de Catalunya*, 2000), eta nolakoa den oraindik ere euskal autogobernua ahalbidetzen duten oinarritzko testu horiekiko batzuek behintzat erakusten duten jarrera. Onaindiaren hiritartasun plurala gure gizartearen ezaugarri naturala izan da, baina hori behar beza-la aitortu behar zitzaion. Gaurko egunean ere, hein batean behintzat, mantentzen dela esango nuke; ez, ordea, nazionalisten ahalleginei esker.

Euskal auziaren bigarren faktorea, balio-sistema komun baten ingurukoa, zoru etikoa deitua izan da gerora. Hemen ere ahaztezina da nolako oztupoak jarri izan diren

Eusko Legebiltzarrean gutxieneko partekatu batera iristeko. Izan ere, zoru etiko hori ultranazionalistek arbuaiatuta zokoratu zen, eta ez dago, horrenbestez, akordio minimorik ezta funtsezkoak lirudiketen kontuen gainean ere. Aitzakia ezaguna da: etika hautu pertsonalaren baitan kokatzeko joera dute batzuek, eta hor alferrik da adostasuna eskatzea, diotenez. Dena dago norberaren iritziz eta balioen mende, ustez gizakiak berak bezain ezberdinak diren iritziz eta balioen mende, eta akordioak bilatzea, guztiz oinarritzekoak izanik ere, ikuspegi batzuk beste batzuen gainetik inposatzea bezala litzateke. Pentsamolde horrek logika osoa du, ongi erreparatzen bazaio: ezberdin pentsatzeagatik terrorismoak eragindako biktimen aurrean inolako enpatiarik agertu ez eta, aitzitik, haien memoria lokazten saiatu izan direnen portaera etikoki onartezina izango da agian batzuentzat, baina erabat irensgarria –eta are defendagarria ere– beste batzuentzat. Etika horrelakoa baita zenbaiten ustez: ez du, eta ezin du eduki, zoru partekaturik. Jakina, nola arraio zuritu bestela gizakiak daukan lehen eskubidearen aurkako krimenak! Nork bere etika du (hori etikaren ukapena bada ere), eta hor bukatzen da eztabaida, gustatu zein ez.

Zoritarrez zabalduak zeuden –eta dauden– aurreiritzi horien aurka, Mariok argi adierazi zuen “demokraziak bere etika eta estetika behar dituela” (“Masoiak”, *Egunkaria*, 1996), horiek gabe ez baita ezer. Demokraziaren estetika bermatzen duten prozedurak argiak eta ulergarriak izan daitezke guztientzat (gutxi gorabehera, eta onbera samar izanda); aldiz, edukietan –demokraziaren etikan– gabezia deigarriak

ikusten zituen euskal gizartearen, batez ere ikusmolde liberal batetik begiratuz gero. Demokraziak “giro egoki bat behar du erroak egiteko eta sendotzeko”, haren helburuetako bat delako “inolako talde sozial bat gauza ez izatea besteak bere mendean hartzeko” (testu berean). Demokraziaren eta zuzenbide estatuaren oinarritzeko ezaugarriak diren funtzio-banaketak eta betebeharrak (botere erlazioen arteko oreka, gutxiengoaren eskubideen babesa) une oro zaindu behar dira inork ez dezan –Jainkoaren edo herriaren borondatearen izenean– botere osoa eskuratzeko aukerarik izan; hori guztia, etika demokratikoaren oinarrien multzoa nolabait, kontzentratzen da Marioren esaldi horietan. Ez da gehiagorik behar: *intelligenti pauca*.

Demokraziaren etika nahiz estetikarentzako mehatxu mota jakin bat identifikatu zuen Mariok nahiko goiz (“Miguel Ángel, asesinado otra vez”, *El Periódico de Catalunya*, 1998), gerora bere garroak etengabe hedatuz joan dena. Olagarro setatsu beraren nolabaiteko jarraipena izan da mehatxu hori, kontrabotere herrikoia itxura –eta izena– hartu duena, betiere talde politiko jakin baten kontrolpean (berdin Eliza-2000, Senideak, Udalbiltza, Sare, Kontseilua edo beste hainbat kasutan). Asmoa garbia izan da hasieratik, garbiegia akaso: gizartearen gainera presio ideologikoa zabaltzea handik eta hemendik, eta aldi berean hauteskunde ofizialen emaitzen aurka sistema politiko paralelo bat antolatzea, “herriatik” eta “herriarentzat” sortua, eta hortaz legitimazio maila ustez handiagoarekin. Hitz gutxitan esateko, antisistema bat itzalean, demokraziaren fun-

tzionamendua ezbaian jarri eta ahultzeko asmoz eraikia. Kontrabotere horren jardunaren azken adibideetako bat euskararen aurkako oldarraldiari buruzko kanpaina izan da, 2023ko udazkenean garatua. Nazionalistek gogoko izan ez dituzten hainbat erabakik bultzatuta, epaileen kontrako kanpaina abiarazi dute zenbait eragilek, Kontseiluaren gidaritzapean. Presio modu hori ez da berria, ezta ere legedia gutxietsi eta gainditzeko egin duten deia: euskararen izenean baldin bada, araudiek ez lukete mugarik izan behar, antza. Edo beste modu batera esanda, López Basagurenek egin bezala, euskararen sustapenarekin lotutako edozein neurrirentzat inpunitatea eskatzen ari dira, funtsean (Alberto López Basaguren, "Ofensiva judicial contra el euskera: una invención", *El Correo*, 2023-11-01). Horrelakoetan, borondatea litzateke (abertzaleen borondatea, noski) kontuan hartu eta obeditu beharreko gauza bakarra. Hala eta guztiz, kezkaragariena izan da ekimen horietako lehen errenkadetan erakunde publikoetako ordezkariak ikustea, EAJ-PNVrenak batez ere, talde horren kideak izan baitira azken berrogei urteotan Euskadiko hizkuntza politikaren lidergoa izan dutenak eta, hortaz, indarrean dagoen araudia, epaileek ezinbestez aplikatu beharrekoa, hezurmamitu dutenak. Mario Onaindiak honen inguruan zer pentsatuko zuen ez da zaila imajinatzen, euskara ikurrin modura –eta albokoak astintzeko makila gisa– erabiltzen zutenei buruz zeukan iritzia guztiz gardena (guztiz ezkorra) baitzen (ik. "Euskadiko sozialismoaren bat-egitearen zentzu bat", *Egunkaria*, 1993, eta "Egin eta esan", *Egunkaria*, 1994).

Sasi guztien gainerik, euskal hiritarren elkargune bat erdiesteko balio-sistema komun bat (erakundetze demokratikoan islatuko zena) eraikitzearen beharra ikusten zuen Onaindiak, "beste nazio 'normaletan' konstituzioa funtziona dezan permititzen duen balio-sistema bat" ("Fuerismoa eta autonomismoa", *Egunkaria*, 1994), hain zuzen. Hogei urte geroago, zentzu osoa du, oraindik ere, proposamenak. Zoru partekatu horretan nahitaezkoak dira iragan terroristaren erabateko gaitzespena, biktimen aitorpena eta haienganako hurbiltasuna –eredugarria da zentzu horretan Gregorio Ordóñezi eskainitako artikuluari darion gizatasuna ("Frente a ETA", *El Periódico de Catalunya*, 1995)–, eta, haiekin batera, baita bazterketa sozialaren tentazioari uko egitea ere. Lehen egitekoak nazionalismoaren parte bati bakarrik dagokie gaur egun; ondorengoa orokorra da. Baldintza horiek bete gabe, kultura demokratiko sendo batean errotutako euskal gizarte, Mariok amesten zuenaren bidetik, ez da posible izango; are gutxiago, jakina, etorkizunerako iruditatzaren zuen gizarte postnazionalista ("Sozialisten etsaia", *Egunkaria*, 1994).

Onaindiaren pentsamolde osoa mutur batetik bestera zeharkatzen zuen beste gai nagusietako bat askatasunarena da. Aski litzateke gogora ekartzea zein izenburu hautatu zuen bere memorien lehen liburukirako. Askatasunaren lorpena bere ibilbidearen helburu nagusitzat jotzea ez dut uste gehiegikeria denik. Askatasunak aurpegi asko izan zitzakeen lotura ugarietatik libre izan nahi zuenarentzat. Francoren diktaduraren eta hirurogeita hamargarren hamarkadako kartzela-esperientziaren ostean, lehen egun

argitsuetako askatasun demokratikoak haien ifrentzuaren zantzuak izango zituen, nabarmenki. Ondoren, askatasuna irabaztea terrorismoaren eta haren mendeko bortizkeriaren azpikulturaren garroak ebakitzea zela barneratu behar zen. Denborak aurrera egin ahala Marioren idazlanetan gero eta argiago azaleratzen den moduan, auzia ez baitzen horrenbeste bakea lortzea, baizik eta askatasuna erdiestea, horren bidez bakarrik iritsiko zelako bake justu eta sendoa, egiazko bakea. Bilatzen zuen askatasun zibilaren beste baldintza bat derrigorrezko abertzaletasunik gabe bizitzea zen. Egun horietan inork gutxik adierazi zuen hain modu zehatz eta gardenean abertzaleen proiektua beste egitismo politiko bat baino ez zela, eta inola ere ez behar historiko bat. Zama hori kendu behar zitzaion euskal gizarteari, nazionalistek horretan lagunduko ez bazuten ere. Mariok, euskal ilustratuen tradizio noblean, aberriaren muin eta oinarri bihurtu zuen askatasuna bera: askatasuna da hain zuzen aberria eratzen duena, aberria ez baita jaiotzen garen tokia, baizik eta hiritarra askatasunez bizi ahal den tokia ("Tú, cada vez más tú", *El Mundo*, 2001, "El sentimiento único", *El Mundo*, 2002). Ezin azpi-atal hau itxi Mariok argitara eman zuen azken artikulua hitz adierazgarri batzuk bere horretan aipatu gabe ("A los diez años de la convergencia", *El Mundo*, 2003):

El mínimo común denominador que une a todos los ciudadanos en cuanto a tales no es otra cosa que la libertad, la seguridad, la igualdad y el pluralismo [...] Siempre hemos tenido presente que, frente al exclusivismo y el sentimiento de propiedad, debíamos defen-

der lo de todos. Y lo que es de todos es precisamente la libertad. La libertad garantizada y protegida por las leyes, fundamentalmente por la Constitución y el Estatuto de Guernica.

Legeen eta batez ere Konstituzioaren aurkako eraso zuzen eta zeharkakoak, baldar zein ezkutukoagoak, ugaltzen ari diren garai katramilatsu honetan, Marioren hitz horiek gaurkotasun osoa dute berriro.

Heroi ironikoa trebea zen eztabaida larri eta pisutsuetan ere umore finaren distantziaz jokatzeko noizbehinka. Muñoz Molinak berehala antzeman zion zantzu hori. Adibide bat besterik ez: 1987an, oso ezaguna egin zen *boutade* baten bitartez, Jon Juaristik gomendio probokatzailerik bat egin zien euskal idazle onei: erdaraz idazten hastea, hain zuzen. Erantzun amorratua berehala heldu zen, espero zitekeen bezala, bestalde. Juaristi Unamunorekin konparatu zuten batzuek, hura sekulako iraina bailitzan. Egun haietan idatzitako artikulua batean, samin duei Mariok gogorarazi zien Jonen hitzak soilik euskal idazle onei zuzenduta zeudela eta harritzeko modukoa iruditzen zitzaion hainbeste jende inplikaturatik sentitu izana aholku horrengatik ("J. Juaristiren alde", *El Correo Español-El Pueblo Vasco*, 1987). Horrelakoetan ironia bezain tresna eraginkorrik ez da izaten.

Amaitzera noa. Tangoak diotenari kontra eginez, hogeitaz urte ez dira gutxi izan gure historia garaikidean. Funtsezko aldaketa bat gertatu da lurraldearen garapen politikoan, ez horrenbeste ideien esparruan, baina bai, zorionez, gizakien eguneroko bizitza eta lanean eragina duten baldintza orokorretan.

Orain ez du inork besteen bizia mehatxupean jartzen totalitarismoaren proiektuarekin bat ez egiteagatik. Behar-beharrezkoa zen garaipen hori Mario Onaindiak gartsuki defendatutako demokraziarena eta zuzenbide estatuarena izan da.

Mario Onaindia etorkizunari begira baino ezin dut irudikatu gaur egun, bere begi sarkor eta ironikoez errealtatea arakatu eta ulertarazten, arazoan gainetik jendearen balizko desanimoaren aurka. Garairik latzenetan ere ez zuen esperantza galdu euskal gizartearengan, bizitakoa bizi eta gero.

Egingarri ikusten zuen hiritartasun anitz eta libre bat, mitoez pozoitutako hiltzailerik gabe, nazionalismo itogarriaren presioetatik aske. Zailtasunak zailtasun, fedea mantendu zuen euskal emakume eta gizonen ahalmenean, "basko" guztion etorkizun demokratiakoan, tolerantziaren atzera bueltarik gabeko ezarpen zabalean. Hogei urte igaro ondoren, eta Mariok amesturiko bide horretan oraindik aurrera egin nahian gabiltzan arren, uste dut guk orain ezin dugula gure gizarteari buruz besterik pentsatu.

NOTA

¹ Lerro hauetan aipatuko ditudan Mario Onaindiaren idazlanak bi iturri nagusietatik datoz: *Testigo privilegiado. Artículos periodísticos* (1979-2003), Barcelona, Ediciones B, 2004, eta *Saioak*, Donostia, Hiria, 2006. Lehenengoa gaztelaniaz argitaratuko artikuluek osatzen dute; bigarrenean, aldiz, euskaraz idatzitakoak jaso ziren. Guztiak Manu Gojenolak bildu eta antolatu zituen liburu horietan. Testuan zehar gutxieneko erreferentzia bibliografikoak eskaintzen ditut, hala nola artikulua izenburua, hedabidearen izena eta urtea. Gainerako xehetasunak aipatu bildumetan aurkitu daitezke.



MARIO ONAINDIAREN LITERATURA

FELIPE JUARISTI

1.

“Elurretan dauden enborrak bezala garelako. Itxura guztien arabera, lurrazalaren gainean dautza, eta bultzada tiki batzuekin mugitu ahal izan beharko lirateke. Ez, ez da posible, lurrari tinko lotuta baitaude. Baina adi, hori ere itxura baino ez da”.

Testua Franz Kafkarena da; itzulpena, Naroa Zubillagarena. Testu horretatik hartu zuen Mario Onaindiak bere lehen nobelaren izenburua: *Elurtzan datzaten zuhaitz enborrak*.

“Elurtzan datzaten zuhaitz enborrak bezalakoak baikara. Itxuraz, elur gainean baizik ez daude sostengaturik, eta bultzada tipi batez higi daitezke. Ez, ezina da, zeren lurrari xit tintoki loturik baitaude. Baina, erne, hori ere itxura soil bat baizik ez da”.

Mario Onaindiaren itzulpena da. Bi testuon arteko desberdintasuna euskalgintzak igarotako denborak ezarria da. Arretaz irakurritz, ikus daiteke nola eta zenbat aldatu den euskara batuaren erabilera.

Liburua Mensajero etxeak argitaratu zuen, 1977an, baina testu idatzia 1973koa da. Ohar gisa liburuaren aitzineko orrian honako hitz hauek dira ageri: “(Espainiako gartzeletan 1973ko udazkenean egina)”. Ez da oso datu zehatza, baina tira. Memoriako liburuki batean, alegia *El aventurero cuerdo* izenekoan, Cácereseko kartzelan amaitu zuela esaten da. Litekeena da orijinala kartzelaz kartzela ibili izana, egilea ibili izan zen bezala.

Mario ez zen orduan Mario, ezta Karlos ere, Jon Lariz baizik. Manu Gojenolak berak esandakigu Lariz abizena familiakoa dela, alegia ez dela arrotza.

Pedro Alberdik *Carlos esaten zioten gizona* idatzi zuen, Mario Onaindiaren gazte-denborako biografia nolabaitekoa. Liburu interesgarria da, ondo idatzia; Eibarko gorabehera eta pasadizo ugari dakartza, Marioren gazte-denbora kontatzearekin batera. Carlos eta Jon Lariz, biek ala biek dirudite fikziozko izenak, literatura-munduko pertsonaiak, eta beharbada halaxe izango dira. Bizitzaren esanahia bezala, fikzioarena ere aldatu egin da. Biak dira benetakoak, alegia errealak. Biak dira txanpon beraren bi aldeak. Errealitateak

fikzioaren sostengu den bezala, fikzioa ere maiz errealitatearen makulu dugu. Literatura-
rekiko zaletasuna galdu den seinalerik nabariena da, gaur egun, ez dela beti bereizten
fikzioa errealitatetik, edo, bestela esanda, errealitatea fikziotik. Errealitatea, azken bolada
honetan, fikzio ez ezik, gezurgintza ere bihurtu denean, fikzioa nekez egingo da zerbait ai-
pagai, are gutxiago hunkigarri edo pentsarazteko bultzatzaile. Mario Onaindiaren *Grand
Placen aurkituko gara* liburua 1982koa da. Bertan, pertsonaietako batek, Bruselako Grand
Placen dagoelarik, bere atxiloketaren berri ematen du, polizia etxean sartu eta armairu
batean gorde zela esaten digu. Pedro Alberdik pasadizo horri ere garrantzia ematen dio.
Egiak, askotan, fikziozkoa dela ematen du; eta egiak, kontatzearekin batera, zerbait gehia-
go izaten amaitzen du, egiaren neurriak eta mugak gainditzen dituen errealitate desberdin
bat. Norberaren bizitza piloa kontatzeko ahaleginari literatura esaten zaio. Baina literatu-
rak ez du inor engainatu nahi; garbi daude arauak eta garbi daude legeak. Beste kontua
da norberaren bizitza kontatzerakoan, zenbaterainokoa den gertatu ez dena kontatzeko
tentazioa.

Mario Onaindiak ezagutu zuen kartzela hutsik dago orain. Duela gutxi pasa ginen aurretik,
bero sapa-egun batean. Ondoan zezen-plaza dago, eta handik zuzen, barruraino sartuz, hiri-
gunea, toki ederra historiaren jabe egin nahi duen edonorentzat. Kartzelan ez dago iraganean
izan zen horren arrastorik.

2.

Mariok berak elkarrizketa batean aitortu zuelako dakigu, Kafka Cácereseko kartzelan
irakurri eta Kafka erabat ezagutu arte ez zuela etsi, ohitura setatsuari jarraiki. Esan nahi dut
ongi ulertzeko, Kafka ezagutzea obsesio bihurtu zela preso haren baitan. Ez da lan erreza,
asko idatzi baita Kafkari buruz, eta iturri horrek, kafkagintzak, ez du agortzeko itxurarik.

“Elurtzan datzaten zuhaitz enborrak” esaldia dakarren ipuina itxurakeriari buruzko idazkia
da, itxurakerian azpian zer aurki daitekeen azaltzen duena. Amos Oz idazle israeldarrak testua
aztertzen ari zelarik aipatu zuen ez dagoenak dagoena adierazi nahi duela ezaren bitartez.
Hutsak adieraz lezake hutsa ez den guztia. Mario Onaindiak *El precio de la libertad* (1948-
1977) liburuan azaltzen du zenbaterainokoa izan zen Jorge Oteizaren eragina. Cácereseko
kartzelan irakurri zituzten taldean *Quosque Tandem* eta *Ejercicios espirituales en un túnel*; eta
han jakin zuen, nolabait esateko, hutsa zertan den Oteizaren pentsamendu metafisikoan. Eta
ez da harritzekoa kontzeptu horrek erabat liluratzeko garai hartako gazte irakurzaile, aktibista
eta kontzientziadunak. Oteizaren hutsak, izan ere, ez du kontrariorik. Euskaraz, bederen ez.
Hona hemen Mikel Lasaren poema baten lerro esanguratsu bat: “‘DANA’ ta ‘NADA’-k zirkulua
bukatzen dute”. Poema hori 1971n argitaratu zen, Herri Gogoia argitaletxean, *Quosque Tan-
dem*, 1963koa da. Hutsa euskaraz “puroa, absolutoa, osoa” ere izan daiteke. Hutsetik hutsera
esperantza ere zabal daiteke, dakigunez.

Cáceresen etorri edo piztu zitzaion berriro Onaindiari euskarari buruzko kezka. Manu Gojenolak idatzi duenez, kezka hori betikoa zuen, sortzez geroztikoa, euskaldunok gauza on asko ditugun bezala. Berriki aipatutako liburuan idazten du kartzelan zegoela irakurri zuela Axularren *Gero*. Lehendik, ez dakigu noiztik, ezagunak zituen Txillardegiren testuak, tartean *Hizkuntza eta Pentsakera*. Txillardegiren pentsamendua asko zabaldu den horietarikoa da; haren tesirik ezagunenak baieztatzen du hizkuntzak moldatzen duela pentsaera, eta ez alderantziz. Axularrek euskaraz idatzi zuen, Onaindiaren arabera, euskaldunak Kontrarreformaren bidean gal ez zitezen, Leizarragak euskaldunak bide horretatik abiarazteko idatzi zuen bezala. Logika horri jarraiki, Marx euskaratzea izan zitekeen euskaldun marxistak, edo marxista euskaldunak, sortzeko modu egokia. Hortik *Luis Napoleon Bonaparteren Brumairearen hemezortzia*, besteak beste, itzultzeko afan eta desira. Dena dela, logika hori Marx euskalduntzeagatik marxista euskaldunak errazago sortuko zirela ustea inozo samarra iruditzen zait. Ezin ahaztu dugu hizkuntzen gorabeherak hizkuntza horien sostengatzaile direnen boterearen gorabeherak direla. Leizarragak Testamentu Berria euskarara ekarri bazuen, Joana Albret erregina higanota zelako eta Kontrarreforma bera agintari zen lurraldean zabaldu nahi izan zuelako izan zen. Axularrek, hain zuzen, Trentotik zetorren haizea zabaltzeko bezala. Hizkuntzak ahultzen eta desagertzen dira, baita sustatzen eta indartzen ere, botereren batek babestu eta erabilera arautu ala ez.

Elurtzan datzaten zuhaitz enborrak eleberrian bada bikoiztasun nabari bat, gero *Grand Placen aurkituko garan* bezala. Bi pertsonaia eta bi ahots. Batak Txillardegiren pertsonaiek bezala adierazten du bere mundua; bestearen joeraren nondik norakoak azaltzeko Axularrena darabil Onaindiak. Gaur egun hizkuntza literarioari buruzko eztabaida erabat konpondu ez den arren, oraindik Altuberren jarraitzaile sutsu asko baitago literaturaren autobidean, egia da, joera orokorra bestelakoa dela, gure klasikoek idazten zuten bezala idaztekoa, edo-eta gure klasikoek erabiltzen zuten euskara-eredua erabiltzekoa. Onaindia ez zen orduan geroxeago izango zen aditua, baina intuizio oneko gizona izanik, ez zen gehiegi erratu egindako hizkuntza-hautuaz. Memoria liburu horretan aipatzen du Gabriel Arestiri idatzi ziola gutun bat eta hark hamabi folioko izkribu baten bidez erantzun ziola eta esanahia kosta egin zitzaiola argitzea eta hilabete batzuk igaro zituela dena ulertu arte.

Arestik euskara batuaren alde erabilitako argudioak ez zituela ulertu esaten du *Grand Placen* dagoen gizonak, bainan eskertzekoa zela. Nonbait euskal berpizkunde aro horretan bi jarrera zeudela aipatzen zion Arestik: batetik, ezkerreko-zentristak, bestetik, eskuinekoak. Bigarren talde horretan h-ren aurkakoak sartzen zituen, eta Txillardegi ere bai (beste arrazoibatuengatik, espero dut). Itzulpengintza lagungarri izan zitzaion, lexikoa aberasteko orduan, eta, horrekin batera, itzulpenean aritzeak narratiorako behar diren hizkuntza-baliabideak ekarri zizkion. Dena egiteko zegoen garai hartan, egiten zen guztia zen mesedekoa, bai euskalgintzan, bai literaturan.

Ikusi besterik ez, zenbat liburu argitaratzen zen orduan.

Euskal Literatura 72, 1972ko hazilan argitaratua, 70ko hamarkadan idazten hasiak, edo idazten indartuak, zirenen bilduma da. Hitzaurrea, Luis Haranburu Altunarena da. Arantxa Urretabizkaiak, *San Pedro bezperaren ondokoak* testua argitaratu zuen antologia-bilduma-zernahi horretan; Mikel Azurmendik, *Eta orain borrokarenean*; Ibon Sarasolak ipuin bat, *Oroitzapen desmemoriatuaren egunak* (II); Xabier Kintanak, *itsasoari begira*; Bernardo Atxagak, *Oskar edo nola egin behar den publizidaderako prospektu berri bat*; Anjel Lertxundik, *Emadazu eskua*; Anjel Zelaietak, *Beltza, joan adi etxera!*; Gabriel Arestik, *Malgizon-en abenturismoa*; Haranburu Altunak, *Hil*, antzerki-lana, eta bukatzeko Bernardo Atxagak *Borobila eta puntua*, antzerki-lana edo, hori ere.

Lehen baieztapena, antologia horretan azaldu zirenetatik, gaur profesionalki literaturaren zereginetan bete-betean ari direnak Anjel Lertxundi, Bernardo Atxaga eta Arantxa Urretabizkaia dira. Anjel Lertxundik 1970ean argitaratu zuen lehen liburua, *Hunik arrats artean*, ipuin-bilduma. Bernardo Atxagak, 1976an argitaratu zuen lehen liburua, *Ziutateaz*. Arantxa Urretabizkaiak, aipatutako lan hori da argitaratu zuen lehena, urte bat lehenago Gipuzkoa Saria irabazitakoa. Ramon Saizarbitoriak 1969an argitaratu zuen *Egunero hasten delako* eleberria. Beraz, 1971n eleberri bat argitaratzea ezohikoa zen gure literaturan eta nago, seguru asko, jaso zuen kritika baino zerbait eskuzabalagoa merezi zuela.

Len da pertsonaietako bat; Jon, bestea. Mariok Len kartzelan ezagutu zuen, haren arazoa omen ez zela gertatutakoaz jabetzen, errealitatea ez zuela zen bezala ikusten, fikzioa gehiago zen haren adimenean.

Fikzioa, izan ere, gehiago da, beti ez bada, ia beti, adimenean ez ezi, munduan ere.

3.

Kafka ez zen kartzelan egon, baina berak irudikatutako mundua kartzela baino latzagoa da: erbestealdiaren esanahia du. Erbestealdia, dakigunez, arrotza da beti. Kartzelaldiak hasiera eta amaiera-datak ditu. Kafkaren erbestealdiak hasiera du, baina amaiera-eguna ez da jakina. Borgesek idatzi zuen Kafkaren literaturan bi gai zeudela, infinitua eta legearen handikeria. Nik beste ezaugarri bat erantsiko nuke, bakardadearena hain zuzen. Aforismo batean irakur daiteke honako testu hau: "Zure eta munduaren arteko borrokan, jar zaitez munduaren alde". Kafka ez zen munduaren alde jarri, eta munduak muzin egin zion, neurri batean. Dena dela, eta gure garaira etorritz, zaila da, nahita ere, munduaren alde jartzea. Ez gara gu mundutik alde egiten dugunok, mundua da guregandik ihesi dabilena, etengabe gainera.

Ez dut uste Onaindia infinituaren gaiak gehiegi kezkatzen zuenik, infinitua, azken finean, filosofo peripatetikoko eta poeta metafisikoen gaia da. Baina egunero bere gotorlekuko mugei erreparaturik, izango zuen kezka bat, esparen bat, mugez harago zer zegoen jakiteko bai-

no, berak desira zuena aurkituko ote zuen argitu nahia. Gela itxi batetik begiratutako paisaia-
ren marrak amaiezina dirudi, infinitua. Gure bizitza ez bezala. Kartzelan dagoenak badaki
legearen pisua zenbateraino den gogor eta astun, dakien bezala bakardadea zigorra ere izan
daitekeela, ezarritakoaz gainera.

Onaindiak, Cácereseko kartzelan zegoela, pentsatuko zuen behin baino gehiagotan bere
egoeraz. Haren memoria liburuak irakurrita, *El precio de la libertad* batez ere, ikusten dugu
kartzelaldia ikastaldi bihurtu zitzaioela. Marxen *Kapitala* itzultzen saiatu zen, baina ohartu
zen berak buruan zeukan hiztegia ez zela nahikoa halako lan bat burutzeko. Beraz, hiztegia
sakondu zuen Marxen testuak euskaratu ahal izateko eta, bide batez, euskaraz literatura egi-
teko.

Idaztea, Kafkak ere bazekien, bakarrik ez sentitzeko modua da.

Olagarroa nobela 1987an argitaratu zen. Ordurako Mario Onaindia gizon heldua zen,
politiko ezaguna eta idazle gisa kontsideratua, ez guztientzat, dena esan behar bada. Kartzela
du kokaleku nagusi, kartzela baita olagarroaren moduko eraikina.

Liburu horretan bada aipamen literario bat, esanahi handikoa. Pertsonaiak kartzelatik alde
egitera erabakitzen duenean, preso bati Moby Dick liburua opari egiten dio. Balea zuria ez da
olagarroa, biak itsasoan bizi badira ere. Iruditeriaren aldetik, eta alde batera utzita Melvilleren
eta bere garaiko sinbologia kristaua, damuaren presentzia eta aszetika puritanoa, olagarroa
esku askoko animalia da, dena harrapatzen duena eta denera iristen dena: kartzela bera.
Zomorro bihurtzen den gizonaren irudia erabili bazuen Kafkak, bere nobelarik ederrenetarikoa
eta kezkarrienetarikoa, Mario Onaindiak olagarroarena darabil. Ikuspegi estetiko huts ba-
tetik ere, urrunetik begirata, kartzela, Onaindiak ezagutu zuen kartzela, olagarroa da: burua
handia, kontrol-gunea; garro luzeak, korridoreak.

Zinema-gidoi antzera ere irakur daiteke. Preso batek ihes egin nahi du, lapurretan laguna
lehenago irtenik, ohostutako diruarekin geratuko ote den beldurrez. Noizbait ateratzen da,
baina ez pentsatuta zeukan moduan eta, handik berehala, berriro kartzelara sartuko dute.

Kartzela eta literaturaren artekoa maiz jorratu den gaia da. Baina bereizketa bat egin
beharra dago. Batetik, kartzelan idazle egiten direnak ditugu; bestetik kartzelan ere idazten
duten idazleak. Lan eder eta onak idatzi izan dira kartzelako itxialdian, lan bikainak daude
kartzelaldiari buruzkoak; eta badira idazle izatera iritsi diren kondenatuak ere.

Marco Polok Genovako espetxean idatzi zuen *Munduko mirarien liburua*, berak egindako
bidaien kontaera zehatz eta aberatsa, orduko irakurleak liluraturik utzi zituen. Makiavelok
Florentziako ziegan idatzi zuen *Printzea*. Cervantesek kartzela batean ekin zion *On Kixote*
idazteari. Campanellak *Eguzkiaren hiria*, utopia-liburua, kartzelan idatzi zuen, espainiarren
aurka altxatzeagatik kondenatua. Oskar Wildek *De Profundis* idatzi zuen Reading-eko kartze-
lan, jakina denez. Miguel Hernándezek poema sentikor asko idatzi zituen itxi zuten kartzele-
tan. Alacantekoan hil zen. Poema baten pasartearen hemen, *El hombre acecha* liburukoa:

Las cárceles se arrastran por la humedad del mundo,
van por la tenebrosa vía de los juzgados;
buscan a un hombre, buscan a un pueblo, lo persiguen,
lo absorben, se lo tragan.

No se ve, que se escucha la pena de metal,
el sollozo del hierro que atropellan y escupen:
el llanto de la espada puesta sobre los jueces
de cemento fangoso.

“Ziegek munduko hezetasuna zeharkatzen dute/ epaitegiz epaitegi doaz/ gizon baten bila, herri baten bila dabilta, jazartzen dute/ zurruputzen dute, irensten dute”.

Bada Kafkaren aforismo bat, antz handia hartzen duena poemarekin, gaurko ikuspegitik: “Kaiola bat atera zen hegazti baten bila”. Kartzela kaiola izan daiteke, eta hegaztia preso.

Baina nik txoria nuen maite.

Soljenitsinen kartzelaldia ez zen alferrekoa izan. *Egun bat Ivan Denisovitxen bizitzan, Gulag artxipelagua* sufrikario horren emaitzak dira; Dostoievskik, *Hildakoen etxea* idatzi zuen kartzelan; Shalamoven *Kolimako ipuinak* liburu berezia da. Irakurtzen duenak badaki zertan zen sobietarren presondegi bat. Idazle errusiar askok ezagutu zuen kartzela.

Idazle denak kaiolan ere idazten du.

Bitxia egiten da Ezra Pound poeta estatubatuarren historia. Mussoliniren ideiekin baino haren jarrerarekin bat egin zuen. Bigarren Mundu Gerra bere gordinean zegoenean, alemaniarren aldeko eta aliatuen aurkako mezuak zabaldu zituen irrati-saioetan. Oraindik entzun daiteke haren ahotsa, orduko grabazioen bidez. Gerra amaituta, atxilotu eta kaiola ibiltari batean itxi zuten, Pisa hirian. Sei hilabete igaro zituen ez-toki horretan, ez kartzela ez erbestaldi. Zirku-ikuskitun bat bilakatu zen, jendeak ondotik pasa eta irain zezan. Erotzat jo eta bere herrira eraman zuten, Washington hiriko psikiatriko ospetsu batera. Preso egon zen bitartean Konfuzio irakurri zuen, eta gero *Pisako Kantak* izango zen liburua buruz idatzi. Ezin poesia modernoa ulertu, Ezra Pounden testu eta proposamen poetikorik gabe.

Lekukoek diotenez, hainbeste ibili zen kaiolan zegoen bitartean, ezen, bertako zola bigunean, infinitua adierazten duen irudia marraztu baitzuen, oinez oin.

Infinitua, Kafkaren arabera, irudimenaz harago dagoen zerbait da.

Infinitua da kartzelako barrutitik kanpo aldera begiraturik ikusten dena.

4.

Joseba Sarrionandiaren poema bateko esaldia dugu: “Preso egin denaren gogoia kartzelara itzultzen da beti”. Pentsatzen dut esaldia eskarmentutik datorrela, esperientziatik. Mario Onaindiaren literaturagintzan kartzela eta kartzelaldia oso ageriko kontuak dira, ez

kontzientziak estali eta, noiz edo noiz, mekanismo ezkutu batez ageriko egiten dena soilik, azpi-kontzientzia deitzen dena.

Grand Placen aurkituko gara 1982ko testua da. Bertan bi pertsonaia dira nagusi, gizon-nezko bat, Bruselako Grand Placera iristen dena, kartzelatik irten berria. Bestea, emakume bat, gizonarekin elkartu nahi duena. Gizona kartzelan urte askotan egon denez, emakumearekin duen harremana, gertukoa bada ere, ez da fisikoa. Emakumeak gutun luze bat idazten dio, eta testu horrek osatzen du nobelaren zati inportante bat. Bigarren partea, gizonaren gogoe-tek osatzen dute. Batetik, hiriaren deskripzio historikoa; bestetik, bere oroimenak sueto uzten dizkion pasarteak ekarriz.

Pertsonaien iragan politikoa oso da nabarmena. Oroitzen dutena biek ala biek gehiago da militantzia politiko zehatz batean bizitakoa eta, ondorioz, sortutako harremana, egoera sentimental baten kontara baino. Mario Onaindiaren pertsonaiak ez dira sentimentalak, zentzu orokorrean hartuta. Sentimenduak dituzte, baina horien aurretik beti dago zerbait lehenago, sentimenduen bidez nekez adieraz daitekeena.

Gogoeta-eleberri gisa ere definitu daiteke. Pertsonaiak bere iritzia ematen du, karrikaz karrika dabilelarik, eta, tarteka, tabernaren batean edo bruselar batekin topo egindakoan, solasaldi txiki bezain azalekoa izateko aukera duenean. Oteizari buruz, baina une hone-tan ez dago esan beharrik Onaindiak, garai hartako idazle eta intelektual askok bezala, miresmen handia ziotela Oteizari; Unamunori buruz, Unamuno belaunaldietan euskaltzale askoren mamua izan baita. Miretsia bezain gorrotatua izan da, eta ez don Miguelek erakutsi zuen pentsamenduaren harira, euskarari eta euskaren orainari buruz izan zuen jokaeraren-gatik baizik.

Lehen esan dut Onaindiaren pertsonaiak ez direla oso sentimentalak, baina euskaltzale askok gehiago erabiltzen dute bihotza arrazoimena baino, bihotzak bere arrazoiak ditue-lako eta arrazoiak bere bihotza, ez beti hotza. Joyce ere aipatzen du, erbesteaz aritzeko, jakina baita zer nolako harreman txarra izan zuen Joycek bere garaiko irlandarrekin eta, bereziki, dublindarrekin. Alde egitea beste irtenbiderik baino ez zuen ikusi hark ere. Horre-tan esango nuke, joera etikoaren aldetik, Onaindia Joyce ere bazela, alde egin baitzuen bere komunitatetik, jasan ezinda komunitate horrek ezarri zituen, edo ezarriko zituen, arau eta lege moralak. Herri txiki, infernu handi: infernu txikirik ez dago. Simone de Beauvoir eta Franz Fanoni buruz ere mintzatzen da *Grand Placera* iritsi den preso ohia. Ordurako aspergarriak zaizkio bigarren sexuari buruzko eztabaidak, kolonialismoari buruzko gogoe-tak. Che Guevara bera ere arbuatzen du, Kuban ondo dagoenak ez duelako zertan ondo egon Euskadin. Garai bateko eztabaida politikoak dira, giro bateko arnasaldiak, berrikuntza gabeak. Aspaldikoak.

Camus ere aipatzen du, Sisiforen mitoa hain zuzen. Baina Camusen kasuan filosofikoa den kontua Onaindiarenean erabat praktikoa da. Ikus pasarte hau:

Beste edozein herritan problema administratiboa soil bat izan behar zuena, gure herrian arazo metafisikoa zen. Euskaldun izan nahi izatea. Eta nola lortzen da hori, zein leihatilan eskaintzen dute halako zertifikatua. Egun On, euskaldun izan nahi dut. Santu, astronauta, jakintsua, Nobel sariduna, ofizio lort errazagoak Palentziatik datorren batek euskaldungoa lortzea baino.

Euskalduna izatea ez da zaila, dena dela. Beste kontua da euskaldun homologatua izateko zer egin behar den. Okerrik gabe esango nuke egoera ez dela gehiegi aldatu, barrenean berderan. Jantzera bai, prosa bezala. Oraingoa dotoreagoa da.

5.

Esan bezala, Kafkaren literatura ezerk definitzen badu ederkien, hori bakardadea da, alegia bakardadearen kontzeptuak.

Bada nahita bilatzen den bakardaderik, norberarentzat aberasgarri delakoan. Askotan aipatu izan da sortzaileak bakardadea behar duela, bere sormenaren iturria ireki eta isuriari joaten, edo etortzen, uzteko. Idazle batzuen bakarraldiak mitikoak dira, eta eraginkorrak oso. Artistak isolamendua nahi du noiz edo noiz, munduaren zarata eta oihartzunetik ihes eginda, bere buruarekin bakarrik egoteko aukera bila ibiltzen da. Jakinik, hori bai, nahi izanez gero, itzuli daitekeela bere egoera naturalera, gizartean ala gizartetik kanpo. Bada, ordea, beste era bateko bakardadea, behartutakoa, nahi ez eta inposatutakoa, bakarrik egon gabe, bakarrik sentitzea, jendearen artean bizi izanik, jendearekiko harremanik batere ez izatea: nork bere burua abandonaturik ikustea, azken finean.

Hannah Arendtek bi bakardadeak ezagutu eta haiei buruz teorizatu du. Lehenari, isolamenduari, *loneliness* deitzen dio; bigarrenari, *solitude*. Euskaraz ez dago, hitzez bederen, bereizketa hori. Guretzat bakardade guztiak bakardade dira, eta bakarrak. *Solitude* hitzaren kidekorik, nonbait, poeta galiziarrek zabaldu zuten aspaldi, poesia kontuetan aitzindari zirenean. *Soëdade* hitzaz bakardadea, abandonua eta ausentzia adierazten zuten: ez-egotearen moduak horiek denak. Baina ez-egotea, nonahi delarik ere, mingarria izan daiteke, jasanezina. Gaztelerak ez du “nostalgia” hitza ezagutuko XVIII. mendera arte: gure “urrutimin”a. Portugesezko *saudade* hitza ez da bakardade soil; adierazten zaila da, nortasunari eta izaerari loturik dago. Poesiaren makulu da, urrutira begiratzen duenaren jarrera.

Hannah Arendt aipatu badut, berak totalitarismoaren oinarrian bakardadea ikusten duelako da. Totalitarismoak, Arendten iritzian, gizon-emakumeak mendean hartzen ditu, bakardadea (*solitude*) eguneroko esperientzia bilakatzen den neurrian. Totalitarismoak bizitza oro publikoa egiten du, pribatutasunik gabe. Beraz, harreman guztiak publikoak izanik, den-denaren kontua Estatuari eman beharra dagoelarik, gizon-emakume guztien bizitzak bakardadera kondenatuak dira. Isolaturik egon gabe, bakarrik egotea da kondena, inorekin ha-

rremanik ez izatea, azalekoa eta itxurakoa ez bada. Bakardade hori, beraz, bizi daitekeen esperientziarik latzena eta etsipenezkoena da. Bakardadearen aurpegi asko dago gure artean: gizon-emakume adinekoak, beren etxeetan irauten dutenak, edo zahar-etxeetara bidali dituztenak, azken orduak nolabait eta nonbait igarotzeko.

Ez da asko idatzi bakardadeaz. Euskaraz, Atxagaren *Gizona bere bakardadean* aipatuko nuke. Gizon baten hautuaren ostean datorren bakardadea azaldu nahi du.

Mario Onaindiaren pertsonaiak bakartiak dira, zentzu batean. Karlos da Atxagaren pertsonaia eleberri horretan. Eta Marioren pertsonaiak, Atxagaren Karlos bezala, militantzia garai batetik datoz, baina garai hura atzean utzi dute eta beste une batean, beste egoera batean daude. *Elurtzan datzaten zuhaitz enborrak* eta *Olagarroa* eleberriko pertsonaiak kartzelan daude. Erbestean dago *Grand Placen aurkituko gara* eleberriko pertsonaia. Bakardade horiek ez dira aukeratuak izan, behartuak baino; inor ez da kartzelara bere kabuz eta bere gogoz sartzen.

Literatura, ordea, askatasunaren lurraldea da. Mario Onaindiak ondotxo zekien hori.



MARIOREN ABERTZALETASUNA

JON SUDUPE

Al final de todo este recorrido, que a mí me ha llevado varios años, me encuentro con que creo haber llevado a cabo el descubrimiento de una tradición, la republicana, que plantea la modernización de la sociedad en el terreno político y que ofrece las ideas fundamentales para comprender un fenómeno tan escurridizo como la nación y su construcción, que constituye una auténtica alternativa al nacionalismo de inspiración culturalista y por tanto tradicionalista. Y para ello (me) resultó fundamental el conocimiento de la cultura e historia británica, porque este y no otro era el modelo de los ilustrados españoles.

La construcción de la nación española, 2002

Mario Onaindia ez da gure artean behar bezain ezaguna, ez idazle bezala ez pentsalari bezala, politikaren eremuan izan ezik. Ez zaio merezi duen lekurik aitortu, ez euskal literaturan ez euskal pentsamenduan. Hala ere, ekarpen nabarmengarriak egin zituen arlo bietan. Horregatik, haren bizitza eta obra euskal historiaren zati dira, zati saihestezina eta beharrezkoa.

Duela urte batzuk, Mario Onaindiari buruzko saiakera bikaina kaleratu zuen Fernando Molina Aparicio historialari bilbotarrak (*Mario Onaindia (1948-2003) Biografía patria, Biblioteca Nueva, Madril, 2012*). Liburuak, funtsean, nazioari buruzko gogoeta da. “Ezin baztertuzko lana” dela iritzi dio Juan Pablo Fusi pentsalari donostiarrek. Nire idazlan honetan oinarritzko testu gisa erabili dut, nahitaezkoa baita azken urteotako euskal historia ulertzeko.

Aberria eta euskara

Hautzaroa izan zen bere lehen aberria, aberriarik barnekoiena. Mario Onaindiarentzat euskara izan zen aberri horren hizkuntza. Literaturaren arloan, euskara erabili zuen sorkuntza lanetarako. Euskaltzale porrokatua izan zen, kartzelan zegoela, euskarazko liburuak dozenaka irakurtzen zituena. Hiru urteko presoaldi horretan, hainbat testu marxista euskaratu zituen. Baita Louis Althusserren *Pour Marx* famatua ere (esan behar da Althusserrekiko ahaidetasuna aitortu zuela beti, bere “kutsu arrazionalizatzaileagatik eta materialismo historikoa aseptikoa bihurtzeko grinagatik”). Komunitate aber-tzaletik aldentzen hasi zenean ere, euskaraz idatzi zuen *Grand Placen elkartuko gara* nobela, bere sentimenduen hizkuntza zelako, eta hizkuntza hori bere aberriarekiko

sentimendu kontraesankorra erakusteko tresna bihurtu nahi zuelako ("euskaraz idazteak sentimendu antagonikoa du: gure naziotasuna berrestea eta hizkuntza horretan James Joycek Irlandari buruz zituen maitasun eta gorroto sentimendu kontrajarri berberak islatzea").

Beste gai batzuetan bezala, honetan ere euskaldun "heterodoxoa" izan zen, euskaltzale disidentea. Orduak eta orduak pasatu zituen euskal klasikoak irakurtzen, Axular, Leizarraga eta Etxepare bereziki. Euskara batua indarra hartzen ari zen garaian, euskara klasikoaren aldeko apustua egin zuen hizkuntza literarioa garatzeko. Euskal idazle klasikoek eredu "bateratua" hartu zuen ardatz gisa, alegia. Ibon Sarasolaren iritziz, "euskal panorama txikian beste ikuspuntu bat izan zen. Une hartan aberastu egin zuen euskal nobelagintzaren panorama. Liburu irakurgarriak idatzi zituen, eta hori ez zen gutxi, eta batez besteko kalitate mailarekin. Orain famatuagoak diren egile batzuk baino aipagarriagoa dela uste dut". 15 obra euskaratu zituen. Tamalez, jarduera politikoa itzali zuen Marioren idazle lana. Luis Haranburuk ekin zion Hiria argitaletxean Marioren idatziak argitaratzeari. Haren euskarazko lan guztiak (nobela, ipuin, artikulua, itzulpen...) *Mario Onaindia Biblioteka*-n bilduta daude, Manu Gojenolaren ahaleginari esker.

Nazionalismoa eta sozialismoa

Mario familia nazionalista baten altzoan jaio eta hazi zen, Lekeition. Txikitan misiolari izan nahi zuen, eta fraide merzedarioetan sartu zen Galizian. Urte batzuk ge-

roago, gurasoek, zailtasun ekonomikoetan murgilduta, Eibarrera joatea erabaki zuten. "Garai hartako Eibarrek izugarri eragin zidan. Emigrazioaren fenomeno bizi izan nuen", idatzi zuen. Gaztelaniaz hitz egiten zen gehienbat, eta horrek Eibarren "euskaldun" izaera eragozten zuen. Baserri eta arrantza tradizioetik modernitate industrialerako jauzia egin zuten. Onaindiatarrek Eibarren jarri izanak are gehiago indartu zuen haien nazionalismoa. Mario militante jeltzalea izan zen 1964 eta 1967 artean. 16 urterekin Seminarioa uztean, alderdiak "ordezkatu" zuen erlijioa. Bere memorietan gogoratzen du klasearen ideiak sorrarazi zizkion emozio mistikoak, nazioarekiko sentitzen zituenak indartzen zituenak (Txillardegiren arabera, "marxismoa eliz lide-rrak ordezkatzeko filosofia bihurtu zen"). Jakina, marxismo oso berezia zen ("indarkeriak baldintzatu zuen marxismoaren moda... hirugarren munduko ezaugarriekin garatzea Euskadin"), zentzua "espainolen" ukazioan soilik hartzen zuena.

Hasiera hartan, nazioaren kontzepzio "kulturalista" defendatu zuen, Txillardegiren edota Krutwigen arrastoan. Gertakari objektibotzat zeukan nazioa (hizkuntza, paisaia, historia, memoria). Norberaren gainetik legokeen izaki transzendental moduko bat zen berarentzat. Helburu absolutu edo erlijioaren ordezkotzat bat balitz bezala. Ondorioz, familia hizkuntza Marioren eguneroko bizitzako beste ezaugarri bat izatetik nazio-tasunaren marka izatera pasatu zen. "Amak Euskadi izugarri maite izatera bultzatu ninduen (...). Eta aitak euskara gurtzen irakatsi zidan". Euskararekiko atxikimendu hori bere bizitzaren amaierara arte mantenduko zuen,

hasierako abertzaletasun zentzua alde batera utzi bazuen ere. Politikaz eta gai teorikoez gaztelaniaz idatzi zuen, baina euskarari beti eutsi zion literatura hizkuntza gisa.

Bigarren une batean, nazionalista ezker-tiarra izan zen. Borroka armatuaren bidea hautatu zuen. 1967an sartu zen ETAn, Bosgarren Asanbladaren ondoren. 1969an Bilbon atzeman zuten (Pedro Alberdi idazle eibartarrak Marioren bizitzako lehen urte horien berri eman digu *Carlos esaten zioten gizona* izeneko narrazio polit eta atseginean). Teoria marxista besarkatu zuen eta abertzaleen nazioa euskal langile klasearekin uztartzen ahalegindu zen ("pueblo trabajador vasco"). Marxismoa eta nazionalismoa bateragarri bihurtu nahi izan zituen, alegia. Horregatik, V. Batzarreko ETArekin bat egin zuen, Txabi Etxebarrietak gidatutako "aurrerapauso handiarekin". Mario bereziki erakarri zuen biltzar hark berretsi zuen izaera abertzalearen eta langilearen arteko orekak. Ildo horretatik, nabaria izan zen indarkeria iraultzailea aldarrikatzen zuen Franz Fanonen eragina. Burgosko epaiketan, *Eusko Gudariak* abestu ondoren, "gora Espainiako langileria" oihu egin zuen. Zortzi urte luze preso eman ondoren, Belgikara erbesteratu zuten 1977an. 1980 arte, jendaurrean ETA pm-ren indarkeria justifikatu zuen, nahiz eta -Gaizka Fernandezek dioen bezala- "itxura guztien arabera, Mariok beti izan zuen ikuspegi kritikoa ETA pm-ren jarduerarekin".

Handik aurrera, nazionalismotik urruntzen hasi zen pixkanaka, gaztetan onartu zuen nazio erromantikoarekin hautsi arte. Euskadiko Ezkerraren sorreran parte hartu zuen, bi identitateak (nazioa eta klasea)

hobeto integratzeko asmoz. EE eta EPKren batasuna bultzatu zuen. Batasun horren zentzua euskal ezkerre espainolisten eta abertzaleen artean banatzearekin amaitzea izan zen, "klase dinamikak" indartuz. Autonomia Estatutua onartu ondoren, indarkeria nazionalista erabat gaitzetsi zuen. PSE-EE alderdia sortu zuenean, euskal ezkerre eta ezker espainolista bateratu nahi izan zituen, nolabait esan. "Postnazionalismoaren" bolada izan zen hura. Berehala, heroi izatetik traidore izatera pasatu zen (zerrenda beltz batean agertu zen, eta bizkartzainek babes-tuta bizi behar izan zuen). Ondorioz, komunitate abertzaletik kanporatu zuten (sozialistak "hemengoak" ez zirela ebatzi zuen Xabier Arzalluzek).

Ikuspegi foruzale eta liberala

Gero, euskal autogobernuaren ikuspegi foruzale eta liberalaren atzetik ibili zen. Foruak eta Konstituzio espainiarra bateragarritzat jotzen zituen XIX. mendeko foralismoan aurkitu uste zuen Euskal Heriarentzat irtenbide egokia. "Nazio ideal" abertzaleak Estatutuak babesten zuen "nazio errealeko" biztanle guztiak barne hartzen ez zituenenez, beharrezkoa zen bi elementuak bateratzea: sinbolikoa eta erreala. Aldi batez, "Euskadi xume" bat amestu zuen, 1839tik 1876ra arteko foru oasiaren euskaltzaletasun harmoniatsuan oinarritua: "Ezin dut saihestu Euskadi xume baten herrimina (...), aberria alderdi batek bahituta ez zeukana, jendeak "santuak" deitzen zien legee, eta udal bandak *Gernikako Arbola* interpretatuz amaitzen ziren herrietako dantzak. Jendea begirunez zutitzen zen, gizonak txapela kentzen

zuten eta denek bat egiten zuten musikarekin (...). Eta zuhaitz gazteari abesten ziotela amesten du". Foraltasunaren garaia zen, hemeretzigarren mendekoa, bere aspaldiko ametsa islatzen zuena: nazioaren oinarriak bilatzea, Arana anaiek EAJrekin forma publikoa eman baino askoz lehenago. Uste zuen euskaldunak beti izan zirela nazio bat, eta Sabino Arana "printze urdin" okerra besterik ez zela izan. EAJrengandik urrundu zen, bere interes nazionalistengatik kezkatuago baitzegoen euskal aniztasunari irekitako autonomia zuzentzeagatik baino.

Nazioa "komunitate imajinatua" dela adierazi zuen Benedict Andersonek. Baina, segur aski, askoz konplexuagoa da. Mariok nazioaren ohiko ikuspegiari eutsi zion, nazionalismoaren aurreko fenomenotzat hartuz ("nazionalismoa ez da nazioaren ideia asmatzen duena, baizik eta ideologia bat da, nazioaren auziari eman dakioken erantzunetako bat bezala sortzen dena"). "Nazionalismoak ez du nazioa asmatu", dio Mariok. Nazioaren ikuspuntu politikoaren eta kulturalaren artean, Ernst Gellner eta Anthony D. Smithen artean, azken aldeko horren aldekoa apustua egin zuen. Ez zetorren bat Eric Hobsbawmek babesten zuen tradizioaren asmakuntzari buruzko teoria instrumentalistarekin. Euskal gizarteak bere egin behar zituen autogobernuari esker finkatutako sinbolo abertzaleak (ikurrina, euskara, etab.), eta memoria bat eta sinbolo batzuk hartu behar zituen, nazio gisa identifikatu ahal izateko. Memoria komun batek bermatu behar zuen erreferente patriotikoen eta kulturalen arteko nahaske-ta. Mariok foru memoria idealizatuan eta hainbat sinbolo komunetan oinarritutako

euskaltzaletasuna bilatzen zuen. Espainiako tradizio liberalarekin zerikusia zuen kontzientzia nazional mota bat zen, eta, beraz, autogobernuaren berezko erakundeekiko leialtasunean oinarritutako ilustrazio berezitik zetorren. Foruzaletasun liberala zen kontakizun horren inspiratzailea, espainiar (eta euskal) ilustrazioarekin lotzeko aukera ematen baitzion, eta tradizio horretan ainguratu nahi zuen euskal nazioaren ideia berria.

Madriren, terrorismoari buruzko jardunaldi batean, nazio ideia pluralista bat planteatzen saiatu zen, ezaugarri esentzialistarik edo, berak esaten zuen bezala, "kulturalistarik" gabea: "Euskadi nazioa da, bere biztanleriaren gehiengoa era batera edo bestera autogobernuaren aldekoa den heinean. Nazio bat ororen gainetik fenomeno politiko bat dela uste dugulako, nahiz eta sustrai eta ondorio kulturalak, ideologikoak eta abar izan, uste dugu autogobernurako borondatea dela nazio bat eraikitze-ko faktore erabakigarria". Dena den, "euskararen defentsa eta euskal kulturaren garapenaren aldeko borroka nazio eraikuntzaren funtsezko alderdia dira". Postnazionalismoak aukera eman zion aurreko urteetan azaldutako "euskal arazoaren" pertzepzio kulturala aberasteko. Garai hartan, 52 urterekin Madriren *Guía para orientarse en el laberinto vasco* aurkeztu zuenean, euskal autogobernuaren interpretazio "ilustratu eta liberala" bilatzen zuen intelektualki, "eskubide historikoetan" islatutako oinarri kulturalak barne hartzen zituen. Nazioaren osagai politiko eta kulturala -hiria eta tribua- bateratzen saiatu zen.

Biraketa zibikoa

Azken urteetan, bere "biraketa zibikoa" egin zuen. XVIII. mendeko errepublikanismo ilustratuan antzeman zuen zein litzatekeen hiritar baten benetako aberria (horri buruzko doktore tesia idazten aritu zen). "Nazio" ideia modernoaren eta "aberri" klasikoaren arteko bereizketa nabarmendu zuen: nazioan berez gaude kokatuta; aberriak, berriz, askatasunez bizitzea ahalbidetzen digu. XVIII. mendearen amaieran, José Manuel Quintana liberalak zioen aberria dela bakoitzak askatasun demokratikoez gozatzeko duen lekua. Hiritarren askatasuna bermatzen duen lurraldea ("el lugar donde se es libre"). "Ez jaiotzen garen herria, libre bizi nahi dugun herria baizik". Marioren aberria errukiz blaitutako askatasuna da. Ez al digu honek Xabier Leteren "aberri poetikoa" gogorarazten? ("amesten dut aberri libreago, ederrago eta gizakoiago bat"). ETA pm-k Jose Ignacio Ustaran hiltzea "sentimendu iraultza" izan zen berarentzat.

Bizitzako azken aldian, bada, nazioaren kontzepzio laiko, tolerante eta pluralistaren alde egin zuen. Gupida, solidaritatea, tolerantzia eta, bereziki, askatasuna dira nazio zibikoaren ezaugarriak. Nazioa ez dago herritarren gainetik, hauen menpe baizik. Euskal Herrian fanatismoan eta indarkerian oinarritutako kultura nazionalista ezarri zen, gizalegearen kontrakoa. Euskal nazioak komunitate nazionalistaren eta komunitate zibikoaren artean hautatu beharra zeukala adierazi zuen. Fernando Buesaren, Miguel Angel Blancoren eta beste hainbaten hilketek zerikusi handia izan zuten Marioren azken biraketa horretan. Inflexio puntu bat eragin

zuten: herritarren matxinada. Hilketa horiek eta Ibarretxeren Gobernuaren jokaerak PSE-EEren eta PPren jarrerak hurbiltzea eragin zuten. Ortodoxia abertzalea alde batera utzi eta disidentzia jarrera hartu zuen handik aurrera. Mario, 1984an, fedegabea zen euskal kanon patriotikoari dagokionez. Eta askok ez zioten hori barkatu.

Egoera berri horrek azaltzen du Marioren abertzaletasunari eta nazioari buruz zuen ikusmoldearen aldaketa. Konstituzioari buruzko etengabeko aipamenak, bere diskurtso politikoan, nazionalismoa intelektualki birplanteatzeko etapa bat markatzen du: "Konstituzioa eta Estatutua dira terrorismoaren aurkako gure ezkutua, Estatua terroristengandik defendatzera behartzen dutelako" ("boteretsuen eta hiltzaileen arbitrariotasunetik defendatzen gaituen gauza bakarra da"). Bere planteamendu konstituzionalistak aberriaren ideien beste formulazio bat egitera behartu zuen: 2000 eta 2001 artean, ¡Basta ya!-k sustatutako ekintzetan aktiboki parte hartu zuen. Denoi egokitu zitzaigun garai beldurgarrian bizitzea. ETAk eta berak eragindako indarkeriak sakonki markatutako belaunaldia gara.

J. M. Ruiz Soroak dioen moduan, "Mario no se hizo nunca constitucionalista español, sino que se convirtió en constitucionalista a secas, intentando abstraer en la libertad la esencia de su trayectoria vital". Horixe besterik ez da Jürgen Habermasek proposatu duen "abertzaletasun konstituzionala": hiritarren askatasuna eta berdintasuna bermatzen dituzten erakunde batzuekiko leialtasuna. Garrantzitsua ez da Konstituzio zehatz baten letra, hura inspiratzen duten

printzipio unibertsalak baizik. Zibiltate horrek, baina, herentzia erromantikoa behar zuen oraindik, foru garai aurrenazionalista hartan oinarritua. Euskal herritara eta espainiarra izatearen arteko bateragarritasuna finkatzeko orduan eska zezakeen tradizioarik onena zen garai hartakoa, bi naziotako kide izateko aukera ematen zuena. Mugako gizona zen, alde batean zein bestean mugitzen zena.

Bere ibilbidea oso laburra izan zen, baina oso bizia: askatasunaren aldeko borroka, ETAko hasierako militantziazatik –Busgosko epaiketa, heriotza zigorra eta zortzi urteko kartzelaldia– organizazioarekin eta indarkeriarekin erabat haustera eraman zuena, espazio eta proposamen berrien (EIA, Euskadiko Ezkerra, PSE-EE) eraiketa, euskal historia eta nazionalismoaren (moderatuaren zein erradikalaren) *ethos*-a sakon berrikustea, ETA faxismo gisa salatzea, eta Euskadiren aldeko apustu irmoa, komunitate demokratiko gisa ulertuta, eta ez komunitate nazionalista gisa. Sentimendu espainiarreko sozialismoa eta euskal nazionalismoa uztartzeko lan egin zuen. Marioren ibilbidea, bere askatasunaren prezioa –idazten du F. Molinak– norberaren nortasuna bilatzeko eta aztertzeo etengabeko prozesu gisa bizitako bizitza izan zen, bere burua eta bere ingurune sozial, politiko, etniko eta kulturala ulertu eta azaltzeko premia gisa.

Mariok hasierako militantzia faxismo espainiarraren aurkako borroka abertzale eta iraultzaile gisa bizi izan zuen ETAn (horrela adierazi zuen geroago). Ondoren, Euskal Herriaren historia eta errealitate sozio-ekonomiko eta kulturala aztertuz eta,

batez ere, euskal langile mugimenduaren izaera ez-nazionalista egiaztatuz, Euskadi eratzeko egitate gisa hartu zuen euskal aniztasuna (horregatik, espetxetik irten eta 1977an Euskal Herrira itzuli ondoren, integratzaile espazio politikoak eraiki nahia). Azkenik, nazionalista ez den konstituzionalismo zibikoan aurkitu zituen euskal demokrazia posiblearen (eta beharrezkoaren) gakoak, berarentzat betebeharrak ukaezina zena. 90eko hamarkadan ETAk eta haren ingurune politikoak izan zuten bilakaera ideologiko eta estrategikoa ikusita batez ere (politikari ez-nazionalisten hilketak, kale borroka, kontramaneifestazioak, “sufrimenduen sozializazioa”), Mario Onaindiak euskal faxismoaren osagaiak ikusi zituen “euskal nazio askapenaren mugimenduan”, Euskadi nazionalitate moderno, integratzaile eta zibiko gisa eraikitzea ezinezko egiten zutenak. Burgosen prozesuan ETAko buruzagi gisa heriotza zigorrera kondenatua izatetik, sigla berak mehatxatuta bizitzera igaro zen, hiru hamarkada geroago, bere totalitarismoa salatzeagatik.

Bilaketa etengabea

Marioren ibilbidea, bada, bilaketa prozesu etengabea izan zen. Jauzi ideologiko eta politiko ausartak egin zituen. Abertzaletasunari buruzko ideia behin eta berriz aldatu zuen. Izan ere, Kant handiak esan ohi zuen bezala, jakintsuarena baita iritzia aldatzea. Nazionalismotik errepublikanismoa egin zuen ibilbidea. ETatik konstituzionalismoa (1988an, EEK bere egin zuen Espainiako Konstituzioa, hamar urte lehenago arbuia zuena). Kanon abertzaleetik urrun-

dutako leialtasun zibiko bihurtu zuen bere gaztaroko nazioa. Norberak modu ezberdinez lantzen du “nazioaren narratiba”. Mariok gertaera pertsonal bihurtu zuen nazio identitatea. Bere bizitzako gaitzat hartu zuen (“harentzat nazioaz hitz egitea bere buruaz hitz egitea zen”). Azken boladan, bere-berea egin zuen aberriaren ideia ilustratu eta errepublikarra. Aldarrikatzen zuen aberriaren ideala guztiz zibikoa zen, ez zekarren euskal kutsua zuen kultur ezaugarririk: urte haietako eztabaida politikoan aipatzen zen “abertzaletasun konstituzionala” nabarmendu nahi zuen. Beste era batera esanda, Mariok pentsatzen zuen aberria askatasunaren errepublika zela, eta ez arraza, hizkuntza edo historiaren adierazpidea. Aurreratu bat izan zen bere garairako.

Euskaldunei eta espainiar guztiei eragiten dien bizikidetzaren arazoa konpontzen laguntzeko asmoz, *La construcción de la nación española: republicanismo y nacionalismo en la Ilustración* idatzi zuen 2002an. Espainiako pentsamendu ilustratua aztertzeari ekin zion, nazio gisa identifikatutako eta autonomia pertsonala errespetatuko zuen gizarte moderno baten eraikuntza nola planteatzen zen zehazteko. Halako nazionalismo euskal-espainolista batetik abertzaletasun politiko eta abstraktuago batera igaro zen: hemeretzigarren mendeko foruetatik Cadizko Konstituziora; bidez batez, foru haiek babesten zituen. Hitz batean, Espainia konstituzional eta demokratiko bat, osatzen duten herrien autogobernua errespetatzen duena.

Horrela, azken aldian, bere bizitzaren kontakizuna kritika gupidagabe baten mende jartzeko gai izan zen.

Espainiako Ilustrazioaren eztabaidan, zehazki, haren babesean sortu zen pentsamendu errepublikarraren aldaeran, aurkitu zuen Mariok tradizio patriotikoa gogobetetzen zuena, erreferente gehienak alde batera uzten zituelako nazioaren ideal zibikoa proposatzeko. Mariok abertzaleekin partekatzen zuen euskal kulturarekiko eta erregionalismo foruzaletik maileguan hartutako amets etno-romantikoarekiko zaletasuna, “baina orain eta hemen egokiena askatasunaren defentsa da”, aitortu zuen elkarrizketa batean. Nazio abertzalearen ereduaren alternatiba gisa balio zion, baina baita edozein nazionalismo etno-espainol unitaristaren kontra ere. Tradizio horrek nortasun komun bat izateko aukera ematen zien euskaldunei, Konstituzioak ezarritako gizabanakoaren eskubide eta askatasunetan oinarrituz. Azken urteetan, gehiago axola zitzaion legearen errespetua, aberriari begira jar daitekeen edozein sinbolo edo tradizio baino.

Aberri horrengatik jokatu zuen bizitza Mariok. Baina, ez zuen gauzatua ikusi. 1998an, pilota partida bat jokatzen ari zela, bihotzekoak eman zion. Lanzarote izan zen bere azken babeslekua; han moldatu zuen bere bizitzako oroitzapenen bigarren zatia, *El aventurero cuerdo* deitua. 2003ko abuztuaren 30ean, minbiziak heriotzara eraman zuen.



JOE SPARKS

MARIO ONAINDIA COMO INTELLECTUAL

MESA REDONDA

GORKA LANDABURU, JOSE MARÍA PORTILLO, JUAN PABLO FUSI

Gorka Landaburu

Arratsaldeon. Hoy seguimos con este homenaje que queremos tributar a Mario. Tenía una relación especial con nosotros los zarautzarras y con esta sede. Aquí hemos vivido momentos muy importantes. Y Mario siempre era para nosotros como un guía, era el guía al que íbamos a preguntar por nuestras sospechas, nuestras credibilidades, y siempre nos respondía en tono afable. Y voy a contar –antes de empezar y presentar a Txema Portillo y a Juan Pablo Fusi, que no necesitan presentación–, como soy periodista, aunque medio jubilado, una anécdota que era muy característica de Mario: año 1982. Me llaman de *Cambio 16*, desde Madrid, me dicen “oye, estamos en agosto, ya no hay tanta política”, aunque eran años complicados, 1982, “y vamos a hacer unas hojas especiales de políticos en verano, y a quién se te ocurre que se puede llamar”. “Mira, yo tengo suerte, creo que Garaikoetxea sigue viniendo a pasar el verano a Zarautz, y a Mario ya le pillaré porque está cada dos por tres en Zarautz”. Entonces le llamé al fotógrafo y le dije: “Mira, ya he concretado la cita con Garaikoetxea, no es complicado, es el toldo 560 en la playa de Zarautz, seguramente es uno de los más morenos, enseguida le reconoceremos y creo que tiene traje de baño azul”. Y así salió la foto, muy elegante, muy guapo, muy Garaikoetxea. Y lo de Mario fue más complicado porque me dice, “no sé yo, la playa no, pero si quieres, mira, mañana vamos a jugar a pala en el frontón”. No me acuerdo de si era en Meagas o en Anoeta, no me acuerdo bien del frontón, y allá nos presentamos. Él estaba jugando y tenía un chándal un poco grande, fotogénico no iba a salir mucho, comparado con Garaikoetxea, lo tengo un poco complicado, pero es igual, y lo único que me dijo con la

sorna que tenía fue “oye, sácame la foto cuando marque el tanto yo, ¿eh?”. Ese era también Mario.

Volviendo a lo nuestro, hoy tenemos aquí a dos eminencias, dos hombres que se han dedicado toda la vida a la historia. Son dos referencias en muchos aspectos, está José María Portillo, Txema, al que conocemos todos. Y qué decir de Juan Pablo Fusi, yo creo que el maestro de los maestros historiadores que hemos tenido. Voy a empezar por José María Portillo. Es catedrático de Historia Contemporánea por la Universidad del País Vasco. Ha sido profesor en las universidades de Chicago, en Colombia, Colegio de México, universidades de Nevada, etc., etc. Investigador sobre historia política e institucional de las provincias vascas, publicando *Sueño Criollo*, un trabajo más que relevante, un libro muy interesante, y, sobre todo, en el contexto en el que se hizo. Gran parte de su trabajo y dedicación ha consistido en explorar los orígenes de la cultura constitucional en España y América. En su larga trayectoria, Txema ha abordado la compleja historia de la transición y la relación entre violencia y política. También, y para no alargarme demasiado, me referiré al libro de Mario publicado, creo recordar en el 2002 o 2003, titulado *La construcción de la nación española*, un libro que todos hemos leído. Obra, por cierto, dedicada a nuestro gran y buen amigo Patxi Elola, con las palabras “a Elola, el jardinero de Zarautz”. El prólogo de ese libro es de Txema, que lo concluye diciendo: “Sinceramente, creo que por fin un ensayista –se refiere a Mario naturalmente–, nos ha proporcionado un libro que no casa con concepciones románticas, trágicas, o milagrosas de España. Para el psicoanálisis colectivo que los españoles practicamos tan asiduamente, intentando acallar los fantasmas de nuestro pasado más nacionalista y retrógrado. Es no poco alivio descubrir con Mario Onaindia que también tenemos en nuestras venas gotas de sangre republicana”.

Juan Pablo Fusi Aizpurua, donostiarra. Es un gran colaborador de la Fundación Mario Onaindia y, no en vano, se le otorgó con todo el merecimiento el Premio Mario Onaindia del año 2015. Prestigioso y reconocido historiador, que prácticamente no necesita una presentación. Juan Pablo ha dedicado toda su vida profesional a repasar y estudiar la historia, fundamentalmente la historia de España y particularmente la del País Vasco y los nacionalismos. Juan Pablo Fusi es catedrático emérito por la Universidad Complutense de Madrid. Lo fue de Murcia, de Cantabria y del País Vasco. Galardonado con varios premios, no podemos enumerarlos todos. Recibió, entre ellos, el de Lagun Ona-

ri del Gobierno Vasco en el 2011, el Premio Europeo Montaigne de Ensayo en el 2000, y fue nombrado doctor honoris causa por la Universidad de Nueva York, hace unos cuantos años ya. Su bibliografía es amplia y extensa, y ha escrito y colaborado en muchos libros y artículos de prensa, al igual que Txema. Entre los libros de Juan Pablo está *La guerra Civil, ¿cómo pudo ocurrir?*, un libro interesante, *La patria lejana. El nacionalismo del siglo XX*, *Franco: autoritarismo y poder personal* o *Historia de España: La España de Juan Carlos, El País Vasco 1931/1937 Autonomía, revolución, guerra civil, Breve historia del mundo...*

En el preámbulo del libro de Fernando Molina Aparicio, *Mario Onaindia 1948-2003 Biografía patria*, Juan Pablo Fusi escribe: “Yo veo la vida de Mario Onaindia, una vida breve, sí, pero intensa, palpitante, esencial, como la vida de un hombre en búsqueda de sí mismo y en busca de la salvación y de la verdad de sus circunstancias más inmediatas. Onaindia fue un hombre con vocación, o lo que es lo mismo, un hombre comprometido con la gestación y salvación de Euskadi y del País Vasco. Eso fue precisamente lo que unificó y dio sentido a toda su trayectoria vital”.

Vamos a empezar el coloquio con estos dos señores. Yo les haré unas preguntas, las mismas para los dos, y después espero que nos dé tiempo para hacer un debate entre todos. Responde primero Txema, por ser el más joven de la mesa. La primera pregunta que os hago es:

¿Cómo, en qué circunstancias conocisteis y estuvisteis con Mario Onaindia? Espero que lo recordéis

Txema Portillo

Yo creo que una de las consecuencias de, a pesar de lo que has dicho ahora, de ir cumpliendo muchos años, es que te hacen esta pregunta muchas veces. “¿Cuándo conociste a Mengano?”. Y, la verdad, también una consecuencia de cumplir muchos años es que se te olvidan las cosas. Exactamente, cuándo conocí a Mario no lo sé, lo que sí tengo más marcados son recuerdos de Mario en la época más complicada del *pim pam pum* en el País Vasco y, concretamente, en torno al momento del asesinato de Fernando Buesa, quizá en los años entre el asesinato de Tomás y Valiente y de Fernando Buesa. Fue cuando yo más traté a Mario. Personalmente llegué a tratarlo bastante, estuve en vuestra casa, Esozi, varias veces.

Sí, recuerdo lo que has dicho y lo que también decía el texto de Carmen Iglesias, y creo que es muy importante. Es precisamente esa capacidad que tenía hablando para transpirar el mecanismo republicano, en el sentido que ha dicho Carmen Iglesias en su texto, es decir, no como forma de gobierno. Aunque supongo que también lo sería, sino como entendiendo que la comunidad o está fundamentada en la libertad y en la participación de los ciudadanos o no merece la pena como comunidad. Yo creo que esa es la sensación política, que a mí Mario me transmitía más intensamente. Por ese motivo, ese libro que has mencionado tú de *El sueño criollo*, está dedicado precisamente a Mario, y la dedicatoria es a Mario Onaindía, el mejor de los repúblicos vascos, y repúblico en el sentido precisamente, no de que sea republicano, de pensamiento republicano como forma alternativa a la monarquía, sino en el sentido precisamente que decía antes de persona muy comprometida con la idea de la libertad civil y de que la comunidad o está basada en la libertad civil, en la representación política, o realmente no merece la pena. Ese es el fundamento también de, creo yo, lo que le lleva a Mario a investigar la tragedia ilustrada y ahí –entre la tragedia ilustrada y la Constitución de Cádiz, que es la generación de Manuel José Quintana, de Jovellanos, de los grandes ilustrados–, ver el surgimiento precisamente de esta idea republicana de la nación. El mismo había hecho un tránsito –también lo habéis dicho–, hizo un tránsito vital entre la idea del nacionalismo de la nación a la idea republicana de la nación. A mí lo que me parece interesante con esto termino, en el caso de Mario quizá es lo siguiente: todo en contexto, ¡eh!; los historiadores sin contexto estamos perdidos. Entonces creo que hay que verlo en el debido contexto de aquellos durísimos años que van del asesinato de Tomás y Valiente, en los primeros años 2000. El ejercicio que hace Mario es realmente interesante, visto ahora por mí al menos, porque la reacción más habitual, la de Rosa Díez, por ejemplo, fue, frente a la nación nacionalista de los nacionalistas vascos, oponer la nación nacionalista española. Es decir, contraponer a un nacionalismo otro nacionalismo, Mario, sin embargo –y el hecho de que este libro como tú has dicho, esté publicado en 2002 es enormemente sintomático–, está trabajando en este libro. En los años anteriores lo que trata de establecer es un tránsito que vaya de la nación nacionalista, o contraponer a la nación nacionalista

atosigadora, agobiante, asesina en aquellos momentos, no una idea de nación nacionalista española, sino una idea de nación republicana, España. Que es algo completamente diferente, por dos razones: primero, porque no va hacia otra forma de nacionalismo; y, en segundo lugar, porque en ese tránsito tampoco se les hace la donación, como si la nación fuera cosa solo de los nacionalistas. Lo que hace Mario en el fondo es reivindicar que la nación española no es cosa de nacionalistas, ni tampoco la vasca, sino que es cosa ciudadana y que, como cosa ciudadana, merece la pena ser tratada, merece la pena ser reivindicada, merece la pena ser utilizada, es decir, esa dejación que él veía que se había hecho de la idea de nación española como si fuera una cosa solamente de nacionalistas. Hombre, veníamos de una sobredosis de nacionalismo español en el franquismo. No era conducente a algo positivo y, por lo tanto, él contribuía a ello con una especie de arqueología de esa nación republicana española, entre la Ilustración y la primera Constitución española, que fue, yo creo, el gran aporte de ese este punto de vista que hizo Mario.

¿Y de qué me acuerdo más de Mario? Personalmente, pues que mi hija Alicia se iba a haber llamado Mario, pero quiso ser chica.

Juan Pablo Fusi

A mí me pasa exactamente lo mismo que a Txema. No recuerdo cuándo conocí a Mario, pero tengo tres flashes en la cabeza. La primera vez, que es la que tengo duda, fue en Salamanca, en un congreso de intelectuales que había convocado el Ministerio de Cultura en el año 1984; se habían formado grupos distintos; yo no estaba en el grupo de Jon Juaristi y Mario Onaindia. Yo estaba en el de los historiadores, y ellos estaban en el de Lengua y Literatura, o algo así.

Y, en un determinado momento, pues había una sesión conjunta, y yo estaba de pie con otros amigos historiadores y oigo detrás que Mario dice algo como “hay una cosa que dice Fusi, que cita a Malinowski, que está muy bien...”, allí entre nosotros, todos un poco pedantes, citando a Malinowski, el antropólogo británico del que yo no me acuerdo qué pude haber citado. Y Jon le dice “pero si Fusi está aquí mismo”, y estábamos casi espalda contra espalda, pero no nos habíamos visto. Tampoco tenía yo entonces una gran relación con el propio Jon; nosotros

nos conocimos, iba a decir como Baroja y Azorín, en la Gran Vía, pero es verdad, Jon dio una conferencia en Madrid, yo fui porque ya conocía su nombre, no me atreví a presentarme por lo tímido que soy, y al día siguiente coincidimos en una librería que ya no existe, una librería francesa que había en la Gran Vía de Madrid. Y entonces sí. Éramos los dos únicos clientes allí y le dije “tú eres el señor Juaristi”. De ahí que en Salamanca él informara a Mario de que estaba en la misma sala.

Segundo flash, y así hablo de Carmen Iglesias. Carmen Iglesias, que ustedes conocen, es la única mujer miembro de las academias y directora de la Academia de Historia a la que yo pertenezco. Carmen sacó la cátedra bastante tarde, no tengo claro por qué. No habría vacantes o alguna cosa de ese tipo. Y hubo un homenaje en cuanto la sacó, en Lhardy, un sitio que, aparte de ser estupendo, para los historiadores está lleno de sentido, porque es el restaurante quizás más antiguo. Botín es más antiguo, pero a este iba Isabel II. No sé si han estado ustedes por Lhardy: estupendo. Presidía la homenajeada. Éramos un montón de gente, unos cuarenta, y a su derecha estaba Mario. Por lo tanto, doy fe de esa excelente relación entre ellos dos. Cuando Alberto me llamó, yo hablé inmediatamente con Carmen, me dijo, “ahí voy como sea”. Pero no ha podido ser verdad, porque tiene una tendinitis muy fuerte en la rodilla, viene padeciendo problemas de rodilla y en la planta del pie, hace ya algún tiempo, y este verano me dijo que se había confiado en que estaba estupenda, pero está siendo una tendinitis muy larga, y está en rehabilitación.

Y la tercera –a lo mejor estaba ahí Eguiguren–; fui a Bilbao a una conferencia, o lo que fuese, y entré en un hotel, debía de ser ya cuando se había producido la fusión entre el Partido Socialista de Euskadi y Euskadiko Ezkerra, porque estaban casi todos ellos, que tendríais alguna reunión, algún congreso, lo que fuese, y yo entré. “Qué hace toda esta gente por aquí”, pensé. Y entonces, en un determinado momento, me pidieron, Mario, y yo creo que estaba también Jon, que habían escrito una cosa sobre los fueros y si podía verla un poquito por encima. Revisé aquello y añadí alguna línea. Creo que iba a ser como una especie de preámbulo de algún declaración o manifiesto, o alguna cosa de ese tipo.

Esas tres situaciones las tengo completamente mezcladas, no sé en qué orden se produjeron. Pero sí es una relación de ese tipo, más ocasional que sistemática, o que hubiéramos coincidido de

manera más estable o más esperable. Lo que sí es verdad es lo del prólogo que se ha mencionado, y esto también tiene que ver con Baroja. Ortega escribe un artículo, una serie de artículos magníficos, que se los recomiendo a todo el mundo sobre Pío Baroja. El primero se titula “Baroja, circunstancia nuestra”. Yo hice una paráfrasis, “Onaindia, Mario, circunstancia nuestra”. Me refiero, no solo a mi generación, al País Vasco, que es la que nos condiciona a todos y nos incita y rige de alguna manera en nuestras vidas. Mario Onaindia es alguien con el que uno se las tiene que ver, es decir que hay que entrar en serio en su pensamiento, obra, y trayectoria, porque es parte de la circunstancia vasca desde los setenta hasta nuestros días.

Menos mal que Gorka en su presentación ha dicho lo de Aizpurua, porque primero suele desconcertar, pero yo soy nacido en San Sebastián, en la calle de San Marcial, en el número 21, y hasta los veintitantos años, he estado viviendo en ese mismo sitio de forma continuada.

Gorka Landaburu

Vamos a entrar en el debate. Lo que es sorprendente es que cuando lees y has conocido a Mario —aquí la gran mayoría lo ha conocido, han sido amigos, lo han tratado, la semana pasada Teo Uriarte nos resumió una época, cómo y dónde empezaron, los duros años de finales de los 70, final de la dictadura, la transición democrática, ETA en su apogeo, no os voy a resumir porque conocéis mejor que yo todas esas historias—, digo que lo que sí sorprende es que Mario no es, al uso, un político de turno. No quiero ser malo, pero políticos intelectuales creo que conocemos pocos, lo vamos a dejar ahí. Pero, sin embargo, ¿cómo veis vosotros esta evolución desde el principio? ¿La historia de Mario, desde dónde sale? ¿Cómo se mete en ETA?, que era muy fácil meterse en ETA en esa época. ¿Cómo se produce la evolución en ese pensamiento? Leía mucho, era su pasión máxima en la cárcel, como nos contó Teo, y entonces lo que sorprende es esa evolución y ese final del que después intentaremos también hablar, su espíritu republicano ciudadano. No sé si al estilo de citoyen, como en Francia, que vive en la República de otra manera, no es el problema. Es a la inversa del nacionalismo, como tú, Txema, lo has dicho perfectamente, pero ¿cómo se puede evolucionar en épocas tan tormentosas? Poniendo fechas, desde los 70 hasta hoy.

Txema Portillo

Primero, yo creo que dices bien al señalar que es un personaje de ese periodo. Bastante singular, en el sentido de que no es lo habitual esa combinación entre alguien como Mario, al que, claramente, le gustaba leer y escribir. Era lo que lo que le apasionaba; era un pensador, digamos, un escritor en el sentido más clásico del término, con la política activa. Eso no suele ser, ciertamente, ni suele ser ahora, ni lo era en aquel entonces muy habitual, ¿no? En el caso de Mario, tu pregunta, si no lo he entendido mal, es “¿cómo vemos que se produce ese tránsito, esa evolución?”. Yo creo que en parte la respuesta puede estar en lo mismo que tú señalas: era una persona con una inquietud intelectual marcadísima desde un principio. Lector, yo diría que un lector muy contemporáneo de sí mismo, es decir, leía las cosas que había que leer en el momento preciso, es decir, se forma en diferentes corrientes filosóficas y en diferentes corrientes politológicas y demás, atendiendo a lo que está ocurriendo en su momento. Lo interesante de Mario es que lo hace varias veces. Es decir, no lo hace una vez y con ese bagaje tira toda la vida, que eso es, digamos, lo que nos solemos encontrar muchas veces: la persona que has conocido con veinte o treinta años y era de las Juventudes Comunistas, como tú, y estaba apasionado leyendo a Gramsci o leyendo lo último del comunismo europeo, y te lo encuentras casi con sesenta y cinco años y sigue viviendo lo mismo, y sigue siendo prácticamente la misma persona que era entonces. Mario, yo creo que lo que hace es precisamente, como lector contemporáneo de sí mismo, ir adaptando también su inquietud intelectual y sus lecturas al tiempo que le toca. La tesis que escribe al final y que lee, defiende y publica casi al final de su vida, es un clarísimo ejemplo. Al Mario del juicio Burgos le mencionamos la Constitución de Cádiz y a lo mejor no sabía lo que era, o tenía una pequeña referencia. Al final es un tipo que ahí ve algo importante y se dedica a estudiarlo. Creo que eso es lo interesante y lo que convierte a Mario en un político también enormemente interesante, porque traslada todo eso a la política.

El día que estaba, que estábamos, manifestándonos en Vitoria por el asesinato de Fernando Buesa, cuando convocó el lehendakari, me acuerdo que nosotros, un grupo de gente, decidimos que íbamos a ir a la manifestación. La idea fue de un tipo que murió, que se dedicaba al cine y a la escena y, seguramente, tendría por eso buenas ideas. “Tengo una idea –dijo–, vamos a

